

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-10-20  
ASTELEHENA  
470. ZENBAKIA  
11. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.EUS  
TOKIKOM

## Garbiketa sakona egin diote ibaiari

500 bat lagun ibili dira auzolanean | 5



Gazteak Aretxabaletako tartean. | M.T.



Leire Fernandez (19:43) eta Endika Donnay (16:31) irabazle Arrasateko Tafyd krosean | 22



Mondragon Unibertsitateko jokalariek Valladolid taldeari irabazita estreinatu dute EBA liga | 25



Txapa Irratiko zenbait kide soinu-mahaiaren bueltan, maratoiaren azken saioan.

### 30 ordu, isildu barik

Bergarako Txapa Irrati libreak 30 orduko maratoiarekin ospatu du 30. urtemuga. Entzun eta ikusi egin da Txapa asteburuan: Seminarioko karpapa atera dute irratia, eta handik esatari eta gonbidatu ugari igaro dira. | 29

JOSETXO ARANTZABAL

## Caritasek iaz 2.000 lagunetik gora lagundu zituen bailaran; aurten gehiago izango dira

Debagoieneko Caritasek arreta zerbitzua du beharra dutenei laguntzeko. Xabier Jorriñ da arduraduna eta dio egoera ez dela ona: "Krisitik ateratzen gabiltzala diote, baina guk ez dugu hori nabaritzen". Urtetik urtera jende gehiagok jotzen du eurengana: etorkinek eta bertakoek. | 6

### SINADURAK

	OIHAN VITORIA   9
	OIHANA ELORTZA   9
	ENEKO FERNANDEZ   14
	JULEN ABASOLO   19
	IMANOL GALLEGO   37
	IXIDOR SOLUPE   40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 5  
ELKARRIZKETA 8 | IRITZIA 9 | HERRIAK 11 | KIROLA 22  
KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34  
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38  
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

### Maskulinitatea lantzeko tailerra, Aretxabaletan

Gaur egungo testuinguruan gizon izatea zer den hausnartu eta birplanteatuko dute | 32

### Gauzak ondo bidean, bihar iritsiko da doako TAO sistema Arrasateko Ferixalekuko gunera

| 14

### "Lehen, mozketa handiak egiten ziren bularreko minbizi kasuetan; orain, soluzioa ez da hain gogorra"

Jose Ramon Serrano

Ginekologoa | 8



MIREN ARREGI

# Bailarakoak ere industria iraultza berrira begira

Lantegiak adimendu beharraren ganean bat datoz Bilboko saioan izan diren Debagoieneko ordezkariak

JULEN IRIONDO | ARRASATE

"Gure enpresen lehiakortasuna hobetzeari dagokionez gakoak izango da, eta behetik datozenekiko hesi teknologiko bat sortzea ekarriko du, merkatuan sartzen ari diren aktore berriekiko. Hazten ari diren herrialdeak, Txina-eta, ari dira indar egiten ingeniari-tza mekanikoaren alorrean, eta guk aurretik joan behar dugu, IKTen alorrean sartuz, konputazioan, sentorizazioan, kontrolean... distantzia apur bat egiteko, lehiakor izateko", hala dio iragan eguaztenean Bilboko Euskalduna jauregian, SPRI-k antolatuta, egin zen *Basque industry 4.0* jardunaldian Fagor Arrasateren esperientzia azaltzen egon zen David Chicok.

700dik gora enpresetako ordezkari izan ziren Alemanian laugarren industria iraultza gisa batailatu duten lantegi adimenduari buruzko jardunaldian, tartean Oñatiko Ulma Packaging, Antzuolako Goizper, Bergarako Lazpiur eta Arrasateko Fagor Arrasate eta Ikerlanekoak. Etor-kizuneko euskal industriaren ezaugarri behar luketen teknologiak izan zituzten hizpide: fabri-

kazio gehigarria, elkarlaneko robotika, sistema ziberfisikoak, errealitate areagotua, ikuspen artifiziala, *cloud computing*-a eta *big data*, besteak beste.

## Hainbat adibide

Eta zer dago gehienontzako ezezagun diren izenon atzean? Ulma Packagingeko Berrikuntza zuzendari Josu Ugartek ikuspen artifiziala zer den azaltzeko adibidea, Bilbon eman zuena: "Pieza bat enbasatzerakoan edo produktu bat enbasatzerakoan, nola lortu enbasatzeko materiala ahalik eta gutxien izatea. Hori egin dezakezu fresatzailean neurtuta, baina neurtu beharrean, geometria guztia ezagutzen baduzu hiru dimentsiotan eta aztertzen baduzu geometria hori, askotan gertatu daitekeena da material gutxiago erabiltzea". Hiru dimentsiotako eskaner baten aurkezpena egin zuen Ugartek, eta eskaner horren aplikazioarena produktu edo prozesu konkretu batean, enbasatzeko makina batean.

Fabrikazio gehigarriaren adibidea Aitor Urzelai oñatiarrak, kasu honetan Eusko Jaurlaritzako ordezkari, Ekintzailetza, Berri-

kuntza eta Informazio Gizarte arloko zuzendari gisa jardunaldian parte hartu zuenak: "Makina erreminta ekoizle batek makina erremintak saltzen ditu mundu osoan, tornuak, fresatzaileak... Eta makina horietako piezak, denborarekin, hondatu egiten dira edo zaharkituta geratzen dira. Eta enpresa horiek eduki behar izaten dute asistentzia tekniko zerbitzu oso ona, piezak ordezkatzeko... Gaur egun inork ez dugu jartzen zalantza pieza horiek mundu osora bidali beharra, piezak ordezkatzeko dituzten muntatzaileekin eta abar. Hori birtualizatzen badugu eta fabrikazio gehigarriaren edo 3D inprimatzaileen arloa eramaten badugu, posible izan daiteke etorkizunean, eta ez du ematen oso urrun dagoenik, ordezkatzeko pieza horiek bidali beharrean diseinu birtuala, konfigurazio birtuala bidaltzea, eta makinak dauden munduko beste leku horretan, bertako jendeak, zuk bidalitako plano birtual horrekin, 3D inprimatzaileekin pieza horiek ekoiztea eta eurek ordezkatea". Urzelai dio, adituen arabera, logistika eta garraio ereduetan



Wolfgang Wahlster, adimen artifizialari buruzko Alemaniako Ikerketa Zentroko zuzendariak

"iraultza" ekar dezakeela honek.

Azken adibidea, sistema ziberfisikoa, auto baten ordenagailu txertatuarekin erkaketa eginez, Goizperreko zuzendari tekniko Mikel Mondragonek: "Gure kotxeetan, alde batean dugu, panelean, ze abiaduratan goazen, zenbat gasolina geratzen zaigun, zenbat erreboluziotara goazen une horretan; eta gero dugu ordenagailu txertatua, esaten diguna egiten ari garen gidatze motaren arabera zenbat kilometro egin ahal izango ditugun... Guk ere gure konponenteetan momentuko argazki hori badaukagu, baina ez dakiguna da baldintza horietan erabiltzen jarraituta ze bizitza edukiko lukeen, gasolina noiz bukatuko litzaiokeen gure konponenteari, nolabait esatearren. Eta hori jakin ahal izatea nahi dugu, erabiltzaileak ere jakin dezan noiz aldatu beharko duen, ez dadila izan hondatzen denean

istripu bat bezala, eta makina geratu beharra eta horrek dakarren kostu guztia".

## Elkarlanaren garrantzia

Hain justu ere, sistema ziberfisikoen arloko proiektu batean elkarlanean dihardute Goizperrek, Fagor Arrasatek eta Ikerlanek, Europak subentzionatuta. Tendentzia berrikin lehiakortasuna hobetzeko, elkarlanaren garrantzia dihardu Fagor Arrasateko Garapen Korporatiboko zuzendari David Chicok: "Inguruan ehun teknologiko oso indartsua dugu, gai hauetan lanean ari dena; enpresok jakin behar dugu geure onenarekin elkartzen, garen onenak lortzeko. Enpresen artean elkarlanean jardun behar dugu, guk Goizperrekin egiten dihardugun bezala; ze beraiek ekoizten dute enbrage-freno bat guk prentsei ezartzen dieguna. Hori baino naturalagoa, ezin".

## Debagoieneko enpresak 'Basque industry 4.0' jardunaldian



4.0 Industriaren ezaugarri bat da konektibitatea: datuak batetik bestera, makinatik makinara, makinatik pertsonara... horretan lanean ari da Ikerlan. Ari dira mikro-sentsoreen arloan ere, datu horien neurketak egiteko: neurgailu gero eta txikiagoak, iristea zaila den lekuetan jartzeko modukoak... Eta datuen ulermenerako lanean ere ari dira: datuok bihurtu behar dira baliodunak, erabakitzeko gaitasuna eman diezaioten maneiatzen dituenari.




Ulma Packaging-en teknologia propioa dute, eta kontrol sistema propioen bitartez egiten dutena da jardunaldian ikusi ziren tendentzia asko gehitu. Makinen konektibitatea edo makinaren Internet agertzen zen jardunaldian; Packaging duela urte pare bat hasi zen makinaren konektibitatea lantzen, eta gaur egun ekoizten dituzten makina gehienek ahalmena dute Internet erabiliz Ulmara, zentralera, konektatzeko eta datuak elkarbanatzeko, zerbitzua hobetzeko.



Fagor Arrasate ari da sistema ziberfisikoen arloan. Badute zerbitzu bat gainkargak monitorizatzeko, ikusteko ze ahalegin egiten ari den makina. Informazio hori segurtasunerako baino ez zen erabiltzen lehen; muga pasaz gero makina geratu egiten zen. Orain informazioa ematen diote bezeroari, makina ondo erabiltzen ari ote den, mugatik gertu dabilen; eta hurrengo izango ei da abisatzea: "Jarraitzen baduzu makina horrela erabiltzen, bi hilabetean hondatuko da".



Lazpiurren, dimentsio kontrola egiterako orduan aplikatzen dute, adibidez, ikuspen artifizialaren teknologia, torlojuak fabrikatzen ari direla eta fabrikatzen amaitutakoan, ziurtatzeko, dimentsioei dagokienez, torlojuak kalitate estandarren barruan daudela. Ikuspen artifizialean, sentzore batekin hartzen da irudi bat, eta irudi hori prozesatu egiten da software baten bitartez. Hortik lortzen da informazioa, nahi bada hiru dimentsioena, neurtu den horren kalitatea ziurtatzeko, adibidez.



Goizperrek ere sistema ziberfisikoen arloan dihardu, adibidez. Teknologia horrek emango lieke aukera, esaterako, transmisioko konponenteak sentorizatu, bere seinaleak lainora igo, han konputatu, eta informazio bat jasotzeko, adieraziko lukeena konponente hori barrutik nola ari den funtzionatzen. Goizperren bezeroak eta azkeneko erabiltzaileak ere edukiko lukete aukera hori. Eta segun eta nola dabilen, aukera dago lan egiteko era aldatzeko, mantenua erreklamatzeko...



a, hitzaldia egiten, aretoa enpresetako ordekariz beteta dela. | EUSKO JAURLARITZA

AITOR URZELAI | EUSKO JAURLARITZA

## "4.0 Industria kontzeptua da bidea adierazten duen horizonte bat"

Ekintzailatza, Berrikuntza eta Informazio Gizarte arloko zuzendaria da oñatiarra.

### Basque industry 4.0 jardunaldiaren ze balantze egin duzue?

Balorazio oso positiboa egiten dugu. Antolatu genuen formatu batean, sare zientifiko-teknologikotik demostratzeko enpresei ze kapazitate, ze aukera zabaltzen zaizkien 4.0 Industria kontzeptu honen inguruan, eta jaso genuen feedbacka positiboa izan zen. Aukera asko ikusten dira, orain tokatzen dena da lan egitea bide horretan. **Enpresa batzuk ari dira dagoeneko teknologia hauek aplikatzen; zer da, oraina? Etorbizuna?**



IREKIA

Enpresa batzuk, aurreratuenak, esan dezakegu gauza batzuk aplikatzen ari direla dagoeneko: fabrikazio gehigarria, errealitate areagotua, big data... Bai-

na, orokorrean, esango nuke 4.0 Industria kontzeptua dela bidea adierazten duen horizonte bat, etorkizunean, poliki-poliki eta hemendik urte batzuetara, errealitate bihurtzen joango dena. **Edozein motatako enpresen eskura egongo den teknologia da? Txikien eskura ere bai?**

Jardunaldian esan zen: nahiz eta eman dezakeen hau bakarrik enpresa handien eskura egon daitekeela, inbertsio handiak eskatzen dituela, tendentzia hauetan guztietan badira, gaur egun, eskuragarri dauden teknologia, enpresa txiki eta ertainen eskura ere bai, eta, kasu askotan, eta jarri zuten sentsoreen adibidea, ez dira batere garestiak. Gero, beste gauza guztietan bezala, egongo dira inbertsioak eta inbertsioak, eta tamaina bateko eta besteko proiektuak. Baina kontzeptu hauek aplikatzeak ez du zertan inbertsio handia eskatu.



Ikerlaneko Salvador Trujillo, mikroarekin, sistema ziberfisikoen tailerlean. | E.U.


Eta lantegien adimentzeari eta lankidetzari buruz Goizperreko Mikel Mondragonek gehitutakoa: "Ez da nahikoa batek garbi edukitzea, inguru guztiak izan behar du; azkenean, kultura bat moduan delako". Eta Ikerlaneko Fabrikazio Aurreratuaren zuzendari Xabier Sagaratzak: "Enpresak sinistuta daude lan-ildo horretan egon behar dutela. Prestatu egin beharko dute eta prestatu egin beharko dugu denok emaitza egokia izan dadin. Bailaran enpresa garrantzitsuak ditugu, eta agian teknologia hauek aplikatzen ari dira, eta orain garrantzitsuena da zentzua ematea". Mikel Mondragonek dio bide hori "eskuragarri" duela hemen go industriak: "Eta gainera heldu egin behar diogu, ze bestela atzera geratuko gara".

### Egokitzaren kostua

Teknologiaren aplikazio berriekin, datorkeen laugarren industria iraultza honek ere ekarri beharko omen du pertsonaren egitekoen birplanteatzea, eta badakar kostuen gaineko kezka ere. Hauen gainean, Lazpiurreko Elektronika departamenduko arduradun Jorge Garinek dio, 4.0 Industriaren arabera,

lantegiak adimentzea ezin daitekeela gain-kostu gisa hartu: "Beharrezkoa da, ze industria-ren bilakaera alde batera doa non produkzioako medioak eta instalazioak oso aurreratuak izan behar diren, eta berez birplanteatu behar da zein izango litzatekeen pertsonen funtzioa planteatzen den industria berri horretan. Ze gauza asko automatizatu egin behar dira, horretarako erabili behar dira robotak eta ikuspena, eta halako gero eta gauza gehiago, kapazitate, produktibitate eta kalitate handiagoa lortzeko". Hala ere, Ulma Packagingeko Josu Ugartek argi dio: "Ez pertsonak ordezkatzeko".

Adituek omen diote bezeroen eskakizunei eraginkortasun handiagoz erantzuteko aukera eman dezaketela teknologia tendentzia berriekin, baina ez direla pertsona gutxiago behar: "Pertsona gutxiago behar, pertsonen kualifikazio desberdina bai, eta hori erlazionatzen zuten edukazio sistema osoarekin; unibertsitate aldetik, lanbide heziketa aldetik, perfil honetako pertsonak hezte oso inportantea izango da etorkizunean", dio Aitor Urzelaiak.



**2014/2015 IKASTURTEA**  
**IKASTAROAK DOHAINIK**  
**LANGILE ETA LANGABETUENDAKO**

**PROFESIONALTASUN**  
**ZIURTAGIRI**  
**BERRIAK**

**LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)**  
**KATALOGO MODULAR BERRIA**

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
(FMEH0409) URRADURAREN, ELEKTROHIGADURAREN ETA PROZEDURA BEREZIEKIN BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0092_2 Urraduraren, elektrohiduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozedurak	UF1006 Urraduraren, elektrohiduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuen espezifikazio teknikoak	60
		UF1007 Urraduraren, elektrohiduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuen kostuen kalkulua	40
	MF0093_2 Urradura, elektrohiduraren eta prozedura berezietako makina eta sistemen prestaketa eta programazioa	UF1008 Makinak, ekipoak eta erramintak prestatze urradura, elektrohiduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-eragiketetan	80
		UF1009 Urraduraren, elektrohiduraren eta prozedura berezien bidez piezak egiteko CNCko programak egitea	80
(FMEO110) ELEKTRODO ESTALIZKO ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA	MF0099_2 Arku elektrikozko soldadura, estalitako elektrodoekin	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa-prozesuak eta ertzak prestatzea	70
		UF1623 Altzairu karbonozko profil eta xafraz estalitako elektrodo bidezko soldadura, errutilozko elektrodoak dituen	90
		UF1624 Altzairu karbonozko profil eta xafraz estalitako elektrodo bidezko soldadura, oinarriko elektrodoak dituen	90
		UF1625 Altzairu karbonoz, herdoilezinez eta beste material batzuek egindako egituraz estalitako elektrodo bidezko soldadura	90
(SSCS0208) MENPEKO PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEA ERAKUNDE SOZIALETAN	MF1016_2 Esku-hartzeen antolamenduan laguntzea, erakunde eremuan	UF0127 Erakundeetan mendeko pertsonen harreraren laguntzea	30
		UF0128 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa	70
	MF1017_2 Higiene eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan		70
	MF1018_2 Arreta sozio-sanitarioko esku-hartzeak erakundeetan		70
	MF1019_2 Erakundeetan dauden mendeko pertsonen komunikatzeko teknikak	UF0129 Menpeko pertsonen animazio soziala erakundeetan	30
	UF0130 Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea	50	
	UF0131 Erakundeetan dauden mendeko pertsonen komunikatzeko teknikak	50	

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE) DOAN


KATALOGO MODULARRETIK KANPO DOAN


**ZIURTAGIRI PROFESIONALA:** SSCS0108  
 Pertsonen etxean gizarte eta osasun-arreta ematea ..... 480 ordu


**MODULO FORMATIBOIA:** MF0092\_2 Urraduraren, elektrohiduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozedurak .... 100 ordu


Garabietan lan egitea 20 | Solid Edge (Konjuntoa) 30  
 Eskorgan lan egitea 20 | AutoCad (basikoa) 40  
 Solid Edge (Pieza) 30 | AutoCad (aurreratua) 40  
 Solid Edge (Txapa) 30

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA: Astelehenerdik ostiralera: 08:00 - 18:00  
 ETXEBARRI AUZOAN, Z/G / 22 Pk. 20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)  
 WWW.IARETXABALETA.COM - IA@IARETXABALETA.COM  
 T. 943 797 900 / 943 797 943 - F. 943 770 955











# Denis Josselin

ZIRRARA SORTZEN DUEN FUNANBULISTA

'ZERUAREN ETA LURRAREN ARTEAN' IKUSKIZUNA

Urriaren 24an, 19:00etan  
Arrasateko Herriko Plazan  
**15 metroko altueran**

**IKUSGARRIA!**

**ZATOZI!**

# Deba ibaia garbitzen 500dik gora debagoiendar aritu dira

Garbiketa sakona egin dute, herritarren kontzientzia pizteko helburuarekin

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

Zapatuan 500dik gora debagoiendar Deba ibaian murgildu ziren, inguruak garbitzeko asmoz. Talde txikitik banatu ziren ibaia tartez tarte garbitzeko, eta ondoren, herriko plazetan jarri zituzten ibaitik ateratakoak, herriki-

deen kontzientziak pizteko. Guz-tira zenbat bildu duten jakiteko, hondakinak zabortegietara eramane arte itxaron beharko da.

Errekak berak ekarritakoa eta haizeak errekarra bultzatutakoa baino, hondakinen gehien-goia herritarrek botatakoa zela

aitortu zuten garbiketa lanetan jardun zutenek. Harrituta agertu ziren, jende askok ibaia oraindik "zabortegizat" daukalako. Izan ere, bazterretako ohiko litxarrerria poltsez gain, burdinazko egiturak, trafiko seinaleak, erosketa gurdia, auto baten kolpe leungailua, patineteak, gurpilak eta beste hainbat bitxikeria topatu zituzten goizean zehar.

## Pixkanaka biziberritzen

Ibaian ikusitako guztia ez zen, ordea, zikinkeria izan zapatuan. Besteak beste, Aretxabaletan eta Eskoriatzan bertako espezieko hainbat karramarro ikusi zituzten, eta Bergaran, berriz, aingirak eta ezkailuak. Inguruetako ingurumen arduradunak, beraz, "pozik eta itxaropentsu" daude.

Herriz herrikako argazki gehiago [www.goiena.eus](http://www.goiena.eus) atarian daude ikusgai.



Arrasaten Monterongo parkean pilatu zituzten jasotakoak. | MIKEL ARREGI



Bergaran, adin guztietakoek elkarlanean garbitu zuten ibaia. | MAIALEN TORRES



Oñatin, frontoi atzeko ibai tartean, lanean. | MAIALEN TORRES

## Espeleosorosleek bi zauritu atera dituzte Gesaltzako kobatik, simulazioan

Euskal Herriko zein Valentzia, Asturias eta Kataluniako 80 lagunek hartu dute parte

A.TXINTXURRETA | OÑATI

Urtean behin gutxienez espeleosorosleek egin beharreko erreskate simulazioa egin zuten zapatuan Gesaltzako kobazuloan. Bi ibilbide prestatu zituzten kobazuloan barrena eta ibilbide bakoitzetik zauritu bat atera behar izan zuten. Euskal Herriko, Valentziako, Asturiasko eta

Kataluniako 80 espeleosorosleek hartu zuten parte.

### Ondo antolatzea, inportantea

"Zailena izaten da ondo antolatuta egotea, hau da, kudeaketa taldea txukun ibiltzea garrantzitsua da. Eta bestetik, parte hartzen dutenek argi izan behar dute beti egongo dela norbait

agintzen eta hark esandakoari kasu egin behar zaio. Guzak egin behar dira azkar eta ondo, ahal izanez gero", azaldu zuen Santi Ugarte koordinatzaileak.

Emergentzia zerbitzuak abisua jasotzen duen unetik lau edo bost ordu pasa daitezke gutxienez espeleosorosleak ezbeharraren lekura iristeko. "Aurretik kudeaketa taldea jarri behar izaten da martxan eta horiek erabakitzen dute zein material eramane, zenbat jende behar den laguntzeko edo zein mediku talde joan behar den". Simulaziorako beste behin Gesaltza aukeratu zuten, koba "zabal" eta "segurua". Halako ezbeharren benetako kasuak, baina, "zorionez oso gutxi" egoten dira hemen inguruan, Ugarteren esanetan.



IMANOL SORIANO

## Mosaikorako lehen atxikimenduak

Arrasateko Gure Esku Dagoko kideek mahaia jarri zuten barikuan Portalioan, azaroaren 8rako Donostian antolatutako mosaiko erraldoirako atxikimenduak batzeko. Parte hartuko duen herritarrek antolakuntzak emandako aterki eta zira bana eroango dute; horregatik, barikuan bost euroko txartela saldu zieten joango diren herritarrei.



Gesaltzako kobazuloan espeleosorosleak zaurituetako bat esku-ohet batean jarri eta azalpenak entzuten. | A.T.



IMANOL SORIANO

## Katxalinekoak oso eskertuta daude

Atzo, domeka, bularreko minbiziaren kontrako eguna izan zen eta Katxalin elkarteak informazioa banatzeko eta dirua batzeko mahaia jarri zituen Bergaran. "Oso eskertuta gaude", esan zuen Maite Valle elkartearen bailarako arduradunak: "Laguntza eskatu eta bai, bai, nola ez erantzuten zuten jendeak. Eta gazte eta gizonezkoak ere hurreratu dira".

Xabier Jorin | Debagoieneko Caritaseko arduraduna

## "Iaz 2.000 pertsona baino gehiago lagundu genituen Debagoienez"

- ▶ Caritasek arreta zerbitzu bat du beharra duen jendeari laguntzeko
- ▶ Egubakoitza Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen

IRATI GOITIA | ARRASATE

Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen egubakoitza. Horretan dihardu Caritasek urte askoan.

**Gaur egun zein da Debagoieneko egoera?**

Egoera ez da ona, ez bailaran, ez Euskadin ezta Estatuan ere. Krisi ekonomikotik ateratzen gabiltzala diote hainbatek, baina guk ez dugu hori nabaritzen. Hona jendeak etortzen jarraitzen du eta urtetik urtera jende gehiagok jotzen du guregan. Langabezia datuak ere ez dira oso onak. Debagoienez ez dugu egoera txarrena bizi, baina %12koa da langabezia tasa eta hori nabaritzen da.

**Caritasek urtero egiten du txosten bat. Zeintzuk dira iazko datuak?**

2.000 pertsona baino gehiagori eskaini genion laguntza Debagoieneko Caritasen. Jende asko da. Eta aurrean, dauzkagun datuen arabera, gehiago izango dira. Esan behar da, dirutan Caritasek



Xabier Jorin. | I.G.

iaz izugarritzko ahalegina egin zuela eta aurrean ere horretan gabiltzala. Iaz 200.000 eurotik gora banatu ziren zuzeneko laguntzen bitartez bailaran.

**Zein da laguntza eske etortzen direnen profila?**

Esaten da etorkinen kopuruak gora egin duela, baina azken urteotako datuek ez dute hori erakusten, orkatzen ari da. Noski, etorkinek behar handia dutela, baina bertako jendeak ere behar du laguntza -langabetu gehiago dago, diru-iturri oso txikia duten adineko pertsonak ditugu, langabezian denbora luzez doazenak...-. Guk datorrenari arreta egiten diogu. Ditu arazo edo kezkek entzuten ditugu. Hein batean,

**"Etorkinek bai, baina bertako jendeak ere behar du gure laguntza"**

**"Sinesten dugu formakuntza oinarritu behar dela gure egitekoa"**

boluntarioek euren denbora eskaintzen dute. Arrasateko lokalean, adibidez, astean birritan pare bat orduz irekitzen dugu atea. Arrasatez gain, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere baditugu harrera hori egiten duten boluntario taldeak. Helburua bide-lagunak izatea da.

**Zer motako laguntza behar izaten dute zuengana etortzen direnek?**

Gehienetan laguntza ekonomikoa izaten da eskaintzen duguna. Etxebizitzaren arazoa, esaterako, larria da. Alokairuak garesti daude eta horiei aurre egiteko ematen diegu dirua, edo argindarra, gasa, ura, beka eta matrikulak ordaintzeko. Arropa ere banatzen dugu.

**Formakuntzarako hainbat aukera ere ematen dituzue.**

Bai, Oñatiko Bidebarri eta Elkar-zabal edo Bergarako eguneko zentroa dira horren adibide. Sinesten dugu gure laguntza formakuntzan oinarritu behar dela. Hala, gugana datozenak etorkizunean autonomoak izan daitezen eta euren kabuz irten daitezen bizi duten egoeratik. Etxe partikularretan lanean aritzen direnei sukaldaritza edo zaintza ikastaroak ere eskaintzen dizkiegu. Hain zuzen, arlo horretan bitartekari lanak egitea da gure beste lan garrantzitsuetako bat.

**Eta jendearen elkartasuna areagotu al da krisi garaian?**

Zorionez, bai. Eskerrak eman behar dizkiogu gizarte osoari. Izan ere, egoera txar honetan antzematen da eskuzabaltasuna areagotu egin da.

### Kilometroetako 60.000 euroen txartel saritua Aretxabaletan saldu da

Kilometroak 2014 jaiaren hari-ra Orioko ikastolak egindako Gure Zozketa ekimenaren baitako txartel saritua Aretxabaletan, irailaren 27an, saldu zela jakinarazi dute antolatzaileek. Zerbaki saritua 30.293 da. Irabazleak azaroaren 6ra arteko epea du saria jasotzeko.

### Duintasun elkarteak antolatuta, bihar elkarretaratzea

Espainiako Gobernuak pentsioen arloan daraman politika salatu nahi dute Duintasun elkarteek. Hala, elkarretaratzea egingo dute bihar, martitzena, Oñatiko Foruen plazan. Hitzordua da 12:30ean.

### Realeko fundazioak eskainita, formazio saioak monitoreentzat

Gaur eta hurrengo bi astelehenetan, Leintz Eskola Kiroleko 21 monitorek formazio saio teoriko-praktikoak jasoko dituzte Realeko fundazioaren eskutik. Helburua da monitoreak prestatzea. Aretxabaletako Ibarra kiroldegian izango dira 18:30etatik 21:00etara.

## Auzitegiak San Josepe harrobiko langilearen aldeko ebazpena egin du

I.G. | ARRASATE

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi du Arrasateko San Josepe harrobian lan egin zuen langile baten -F.F.C. inisialduna- prestazioaren gain-ordainketaren %50 bere gain hartu behar duela harrobiak, lanean izandako segurtasun neurri faltagatik. Sententziak dio enpresak hainbat arau hauste egin zituela lan arriskuen prebentzioari dagokionean, eta horrek eragina izan duela langilearen osasunean.

Behargina dagoeneko erretiratu dago. 1974. urtetik 2005era bitarte egin zuen lan harrobian.

Orduan ebatzi baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nazionalak langileak ezgaitasun iraunkorra zuela lan-gaixotasunetik eratorria. Langileak, besteak beste, kamioi gidari edo hondeatzaile erabilitzaile bezala egin zuen lan.

CCOO sindikatuak dio langileari silikosi arrunt bat diagnostikatu ziotela lehenik eta 2004an bigarren mailako silikosisia. Eta ezgaitasuna lortzeko hainbat saikeraren ostean, 2005ean lortu zuen. Enpresak berau errebisatzeko espedientea zabandu nahi duela kritikatu du sindikatuak, dirua aurreztu nahi duela esanez.

## Natur elementuekin, artelana

Garaion Naturarte Elkarteek eta Arrasateko Lanbide Hastapeneko iturgintzako eta elektrizitateko ikasleek Auzolanarte egitasmoa burutu zuten egubakoitzean. Horrela, artelan efimero bat egin zuten natur elementuak erabilita. Besteak beste, mundu bat irudikatu zuten lurtean.



**Aretxabaletako Industrialdea F-0-1**  
**Araba ibiltzidea**  
**20550 Aretxabaleta**  
**Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941**  
**E-mail: info@eguzkigraf.com**

**30 urte**  
**baino gehiago**  
**zure**  
**zerbitzura**



**EGUZKIGRAF**  
**inprimategia**

# Kutxak Kutxabanken dituen akzioak banatzea proposatu du Aldundiak

Kutxa banku fundazio ez bihurtzeko baldintzetako bat akzioen %5a baino gutxiago izatea da; akzioak banatzea proposatu dute horretarako

MAIALEN TORRES/A.E. | OÑATI

Datorren egubakoitzean Kutxak banku fundazio bihurtzeko erabakia hartuko du batzar orokorrean, eta EH Bildu ez dator bat bide horrekin, ziur baitago aurrezki kutxak kontrol publiko eta soziala galduko duela. Hori azaltzeko, eguaztenean, hitzaldi informatiboa egin zuten Oñatin; EH Bilduk antolatuta Ino Galparsoro eta Jone Etxeberria batzarkideek egoera herritarrei azaldu eta Foru Aldundiaren proposamena aurkeztu zuten.

Egungo egoera aztertzeaz gain, urteetan atzera egin eta arazoaren sustraiak azaldu zituzten Etxeberria eta Galparsorok Oñatin. Etxeberria Kutxako batzarkideak argi esan zuen "momentu garrantzitsua" dela bizi duguna, "Kutxa banku fundazio bihurtuko balitz, kontrol publiko eta soziala galdu" egingo bailuke.



Ino Galparsoro eta Jone Etxeberriak Oñatin eskainitako hitzaldia. | MAIALEN TORRES

## Banku fundazioen legea

Iazko abenduan Espainiako Kongresuak aurrezki kutxak eta banku fundazioak arautzen dituen legea onartu ostean hartu du Gipuzkoako Kutxak BBK-ren eta Caja Vitalen bidetara jarraitzeko erabakia. EH Bilduk salatu duenez, aldaketa horrek "orain arteko funtzionamendu demokratikoaren amaiera" suposatuko luke. Izan ere, 1990ean sortu zenetik, hauteskunde bidez hautatu izan dira Kutxaren norabidea gidatuko zuten pertsonak, baina banku fundazio bihurtuta, 15 pertsonaz osatutako patronatuak izango lituzke eskumen guztiak. "15 pertsona horiek ez dira inoren ordezkari izango, eta momenturen batean gauzak oker egingo bali-

tuzte ere, erakunde publikoek ez lukete eskumenik izango pertsona horiek aldatzeko", azaldu zuen Etxeberriak.

## Aldundiaren proposamena

Hori gerta ez dadin, Foru Aldundiak bere proposamena aurkeztu du: Kutxa fundazio arrunt bihurtzea. Gaur egun, Kutxak Kutxabanken akzioen %32a du, eta ohiko fundazio izateko, %5etik beherakoa izan behar du akzio kopuruak. Hori horrela, Kutxak Kutxabanken dituen akzioak lurraldeko erakundearen artean banatzea proposatzen dute. Beste modu batera esanda, Kutxak Kutxabanken dituen akzioak lurraldeko Udalen eta Gipuzkoako

foru aldundiaren artean banatzea proposatu dute, eta ondorioz Kutxabanken akzionak aipatutako erakundeak bihurtzea. Datutan, Aldundiak eta Donostiako Udalak, Kutxaren fundatzaile izanik, %4,99na jasoko lukete; %17a Gipuzkoako Udalen artean banatuko litzateke; eta, Kutxak berak beste %4,99 mantenduko luke. Gainera, argi utzi nahi izan zuten "askok kontrakoa esan arren", "legez egingarria" dela euren proposamena.

Modu horretan, egungo funtzionamenduari jarraitu ahal izango litzateke, herritarren, bezeroen eta langileen parte hartzea mantenduz. Foru Aldundiaren esanetan baldintza bakarra

borondate politikoa izatea da, eta interes bakarra, herritarren interesak defendatzea.

## Prozesua gelditzea, zaila

Dena den, banku fundazio bihurtzea eragozteko zaila dela aitortu zuen Etxeberriak, administrazio kontseiluan ez baitute bozka nahikorik euren proposamena aurrera eramateko. Gainera, esan zuen, dagoeneko berandu dela prozesua gelditzeko, baina jendarteak zertatzen ari den jakiteak garrantzia handia duela: "Jendea iruzuraz diogu EAJ, PP, PSE-EE eta CCOO esaten ari zirena gezurra zela, eta lapurreta baten aurrean gaudela, eta hori ez da gutxi".

## Gipuzkoako zerga bilketa metatuak gora egin du

A.E. | ARRASATE

Gipuzkoako Aldundiak emandako datuen arabera, 2014ko lehenengo bederatzi hilabeteetan %5,2 egin du gora zerga bilketa metatuak Gipuzkoan. FEZak, Aberastasun Zergak eta BEZak gora egin dute; Sozietate Zergak, aldiz, nabarmen egin du behera, batez ere, Kutxa-Repinvesen sententziaren exekuzioagatik.

## Datu zehatzak

PFEZak gora egin du (%4,4) 37,5 milioi gehiago jasoz. Horretarako, lagungarria izan da lan etekinen atxikipenen hazkundera (%1,3) eta aitortuen kuota diferentzial garbia beste %8,5 igo izana. Aberastasunaren eta fortuna handien zergak (AFHZ) berriz, iaz baino 16,7 milioi gehiago jaso ditu (%35,8 gehiago).

BEZaren bilketa garbia %14,1 hazi da. Orotara, 79,5 milioi euro gehiago bildu dira BEZarekin, sarrerak handitu direlako, itzulketak gutxitu eta besteak beste Rover kasuaren itzulketak amaitu direlako. Sozietateen zergak aldiz 55,2 milioi gutxiago bildu ditu, aurreko urtean baino %24,8 gutxiago. Garrantzi handia du itzulketak 33,4 milioi handitu izanak. Sozietate Zergaren itzulketak eta berandutze interesen itzulketak nabarmen handitu dira irailan. Honen azalpena Kutxabanki egindako 28,8 milioitako itzulketan egon daiteke Aldundiaren esanetan, Kutxak Repinvesetik jasotako dibidendoen zerga-ordainketari buruzko 962/2014 Auzitegi Gorenaren sententziaren exekuzioagatik. Aldundiaren esanetan, iraila bitarteko "diru bilketa datuak onak dira" Gipuzkoan.

# Urteko bigarren hiruhilekoan ere EAEko ekonomiak hobera egin du

Eusko Jaurlaritzaren datuak baikorrak dira; ekonomia egonkortzen dabil

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Beste hiruhileko batez (2014ko bigarren), EAEko ekonomiak goranzko joera mantendu du. Hazkunde errotimoa bizkortu da, eta %0,9an kokatu da. Datua Euroguneak izan duen %0,7aren eta Europar Batasunak eskuratu duen %1,2aren artean dago. Hiruhileko arteko tasetan, EAEko ekonomia %0,4 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago, gehikuntza egonkorren itxura eskainiz.

## Industria eta manufaktura

EAEko ekonomiaren susperraldia bi sektore nagusien hazkundera orekatuari esker lortu da. Izan ere, industriak %0,7 areagotu zuen bere balio erantsia aurreko urteko mailaren aldean. Manufakturen jarduerak, aldiz, %0,9ko bizitasuna erakutsi zuen. Industriaren ekoizpenak aurretik iragarri zuen balio erantsiaren hobekuntza hori, aurtengo bigarren hiruhilekoan %1,2 hazi zela-

ko urte arteko tasa. Banaketa produktu motaren arabera egiten bada, toki nabarmenean dago bitarteko ondasunen ekoizpena. Beste muturrean, oraindik nabaria da Fagor kooperatibaren itxiera, kontsumo iraunkorreko ondasunen tasak oso zenbaki negatibotatik (%-15,7 uztailan) jarraitzen duelako. Industriaren susperraldi leuna baina etengabea sektoreko enpresen iritzietan ere agerian geratu da, Industria Ministerioak osatzen duen industria

giroaren indizean ikus daitekeenez. Adierazle horrek hoberantz egin du etengabe urte hasieratik eta irailan -9,3ko balioa jaso zuen, azken hiru urteko daturik onenetakoa. Bestalde, eskari zorroa oraindik nahiko apala da, baina gero eta baikorrak dira berari buruzko iritzia. Saldu gabe dauden amaitutako produktuen *stock*-a oso txikia da eta sektorearen etorkizunaz eman dituzten erantzunek dagoeneko zeinu positibo gehiago jaso dituzte negatiboak baino. Azkenik, ekoizteko ahalmenaren erabilera maila nahiko altua da eta, horren ondorioz, laster ekipamendurako ondasunetan inbertsio berriak egiteko beharra eduki dezakete.

## Enpleguaren sorrera

Enpleguaren sorrera ia osorik zerbitzuetan gauzatu zen, nahiz

eta lehen sektoreak 100 lanpostu inguru gauzatu zituen. Zerbitzuek %0,9ko urte arteko gorakada izan zuen; hala, dagoeneko hiru hiruhilekotan izan dute emaitza positiboa. Beste muturrean, industria eta eraikuntza daude: berriro langileak galdu zituzten, nahiz eta aurreko hiruhilekoetan baino gutxiago.

## Prezioen bilakaera

BPGk balio positiboak berreskuratzen zituen bigarren hiruhilekoan, nahiz eta hazkundera oso txikia izan (%0,2). Goranzko joera arin horren oinarrian, kontsumo pribatuaren deflazioa dago. KPIari dagokionez, bigarren hiruhilekoan lehenengoaren antzeko tasak (%0,5 eta %0,4, hurrenez hurren) jaso bazituen ere, ondorengo hilabeteetan beherantz egin zuen nabarmen urte arteko tasak.

Jose Ramon Serrano | Ginekologoa

# "Bularreko minbizi kasuen %90 baino gehiago osatzen dira gaur"

- ▶ Tratamenduak asko hobetu badira ere, gorantz doan ginekologiako minbizi bakarra da
- ▶ Emakumezkoena dela uste arren minbizi horrek eragindako pertsonen %1 da gizonezkoa

MIREN ARREGI | DEBAGOIENA

Bularreko minbiziaren mundu mailako eguna izan zen atzo, domeka, eta aitzakia horrekin jo dugu Debagoieneko Obstetrizia eta Ginekologia unitateko zerbitziburua Jose Ramon Serranorengana. Bularreko minbiziaren jatorriaz, arrisku faktoreez, gaitoxasunaren jokamoldeaz, tratamenduez eta ikerketez egin dugu berba harekin.

**Hasteko, zer da bularreko minbizia? Nola sortzen da?**

Bularrean sortzen da, esnearen konduktuetan eta gainontzeko minbizi guztiak bezala zelulen alterazio bat da. Zelulak hazten hasten dira, modu desordenatuan; orduan sortzen da minbizia.

**Zergatik sortzen da?**

Gaur egun ez dakigu zergatik sortzen den minbizi mota hori. Berdina gertatzen da beste askorekin ere. Zerk sortzen duen dakigun minbizi bakarra da umetoki-lepoko minbizia. Jatorri birala du, badakigu birus batek sortutakoa dela, baina bularrekoaren kasuan, ez dakigu ezer.

**Intzidentzia handia duen minbizi mota da. Zenbat eragiten du?**

Oso Minbizi ohikoa da, denok ezagutzen dugu bularreko minbizi duen norbait. Intzidentzia geroz eta handiagoa duen minbizi da, gainera, bularrekoa. Hamar emakumetik hiruk izango dute bularreko minbiziaren euren bizitzan, batez ere, 80 urte izatera heltzen badira. Hori oso zifra altua da eta ez hori bakarrik, izan ere, esponentzialki goraka doan emakumezkoen eragiten dien minbizi bakarra da, gainera. Obulutegiko minbizi bere horretan mantentzen da, geldi, umetoki-lepoko minbizi ere bai, beharrezko joerarekin, gainera; umetokiko minbizi ere egonkor dago. Kontrakoa gertatzen da bularrekoan. Uste da ingurumen faktoreek dutela eragina; hori, baina ez dakigu ziur.

**Emakumeekin lotzen dugu minbizi mota hori baina gizonezkoen ere eragiten die, ezta?**

Bularreko minbiziaren eragindako pertsonen %1 da gizonezkoa. Guk ere ugatz edo titi-guruina badugu eta beraz, gizonezkoetan ere sor daiteke.

**Arrisku faktoreak aipatu dituzu. Faktore horiek identifikatuta dituzue? Zerekin lotzen duzue?**

Faktore epidemiologiko askorekin lotzen saiatu dira; besteak beste umerik ez edukitzearekin, edos-



Jose Ramon Serrano, Debagoieneko Ospitaleko obstetrizia eta ginekologia unitateko zerbitziburua. | MIREN ARREGI

kitzearekin, tabakoarekin, elikadurarekin... Baina benetan garrantzia duen arrisku faktore bakarra eta estatistikoki frogatuta dagoena da faktore genetikoa. Amak bularreko minbizi izateak, bi edo hiru bider handitzen du norberak minbizi hori izateko arrisku erlatiboa. Ahizpa batek izan badu, berriz, bost bider handitzen da. Bularreko minbizien portzentaje txiki bat da, soilik, genetikoa dena. Gainontzekoen kasuan ez dago ezer ziurra.

**Irizpide horiek betetzen dituztenen kasuan (zuzeneko senitartekoa minbiziarekin), prebentzioa errazagoa da?**

Kasu horietan, alegia, minbizi ginekologikoak eragindako pertsonen zuzeneko senitartekoen kasuan, jakin daiteke analisi genetiko bidez gene hori duten ala ez, esaterako. Gai polemikoa da, dena den, izan ere, badago jakin gura duen jendea eta jakin gura ez duena ere, eta gene dute-

la jakinda ere... Benetan ez dakigu zer egin jende horrekin.

**Baina, kontrolatuago daude?**

Bularreko minbizi izan duten senitarteko zuzenak dituzten pertsonen kasuan, noski, kontrola handiagoa da, gainean gaude eta bereziki horrek eragina du diagnosi goiztiarrean. Prebentzio modu bakarra, gene hori dutenen kasuan da, mastektomia bat egitea. Bular barik, ez dago minbizirik.

**Nola tratatzen da gaur egun bularreko minbiziak?**

Aurrerapauso handiak egin ziren duela ia hogeit urte tratamenduari dagokionean. Lehen kirurgikoa zen tratamendua; mozketa handiak egiten ziren eta gaur egun, diagnosi goiztiarra duten kasuen %60an, tumorea eta ingurukoaren zati txiki bat bakarrik kentzen da. Noski, beste aspektu garrantzitsuak bularreko minbiziaren tratamenduan dira kimioterapia eta erradioterapia. Gaur egun

erabiltzen ditugun beste terapia batzuk oinarritzen dira hormonetan eta azkenik dago terapia genetikoa; hortik doa etorkizuna. Hala, bakarka, individualki tratatuko dugu minbizi bakoitza, segun eta bakoitzak duen onkogenaren arabera.

**Osatu ere, geroz eta gehiago osatzen da.**

Kasuen %90 baino gehiago osatzen dira. Alegia, bularreko minbizi gehiago osatzen dira, pneumoniak baino.

**Zein protokolo jarraitzen duzue halako kasu bat agertzen denean Debagoieneko Ospitalean?**

Lehentasuneko prozesuak deituriko protokoloa dugu eskuartean Debagoieneko Ospitalean. Ginekologia arloan, protokolo horren barruan egongo lirarteke bularreko minbizi, umetoki-lepoko, endometriko eta obulutegiko. Alegia, ginekologiako minbiziak. Horrek esan gura du, nik bularreko minbizi kasu baten aurrean

nagoen susmo klinikoa badut, hamabost eguneko epean gaixotasunean tratatuko zaituen ospitalearen eskuetan izango zarela. Gure erreferentziako ospitalea Txagorritxu da.

**Ikerketaren garrantzia azpimarratzen dute behin eta berriz minbiziaren kontrako elkarrekin. Zein garrantzia du horrek?**

Erabatekoa. Baziren minbizi batzuk tratamendu ohikoei ihes egiten zietenak, ez genekien zergatik, baina erabiltzen genituen metodoek ez zuten ezertarako balio. Markagailu konplexu batzuen bitartez gaur egun badakigu zer nolako minbizi den eta zein izango den bere garapena. Hau da, minbiziari izena jartzeaz gain, zortzi abizenak ere ipintzen dizkiogu orain. Bakoitza oso modu berezian tratatu behar da, minbizi bakoitza delako desberdina. Ikerketei esker, laster, emakume bakoitzak izango du bere tratamendu espezifiko. Aurrerapen itzelak ari dira egiten. Mundu globalizatu baten bizi gara eta uste dut ikerlariak eta medikuak eta oso jantzita daudela. Bularreko minbiziaren kontra, gainera, apustu oso gogorra egin da, izan ere, minbizi oso ohikoa da, minbizi sozial bat da.

**"Lotu izan da tabakoarekin, elikadurarekin, edoskitzearekin..."**

**"Lehen mozketa handiak egiten ziren; orain soluzioa ez da hain gogorra"**

**"Ikerketei esker, bakoitzak izango du tratamendu espezifiko"**



## ZABALIK

OIHAN VITORIA  
goiena.net/komunitatea/



## Ohitu gaituzte

Ohitu gaituzte politikoki zuzenak diren idatziak taxutze-  
ra. Akatsik ñimiñoena ezabatu ahala, tentuz jardutera,  
zentsuz arrazoitzera. Edo itxurak egiteko abilitate aski  
izatera. Ohitu gaituzte berba gaiztorik ahotan ez izate-  
ra. Betebehar nekezak hartzera. Ohitura esatera, eta ez usadio.  
Zintzo jokatzera: soilik hozka egitera, orroa bekaturia bailitzan.

Bizitzaren bidaia norbaiten eskutik helduta egitera ohitu  
gaituzte. Partekatuz, norbere karkabetan arakatzeko aukerak  
alboratuz. Uzkur begiratuz haize boladen menpe bizitzeko hau-  
tua hartu duen horri. Ohitu gaituzte hotza egiten duenean  
ikaratzera. Goibel egotera. Hotzi-  
karak sentitzera. Irribarreak  
izoztera. Anorak, gorro eta  
eskularruetan abarora hartzera.

Euripean estaltzera, ater-  
pean ezkutatzera, eroso senti-  
tzera, lehor, tantetatik ihesi,  
arriskurik ez hartzera. Ohitu  
gaituzte urtea eguzki eskean  
ematera. Beroa egiten duenean  
polit eta lirain agertzera, itzal  
ilunei azalean eusteko betarik eman gabe.

Ohitu gaituzte nahi ez ditugun baldintzetan bizitzera, argi  
utziz gogotik ordaintzen dela bihurrikeria oro; legearen ertze-  
tik kulunkan aritzea ez dela ona. Uste izatera lurra kolpatzea  
ez, oinak lurlean izatea baino ez dela saritzen. Amesgaiztoa  
gorrotatu, ametsa ahantzi. Etxeko apalean hautsik ez pilatzera  
ohitu gaituzte.

Baita menpeko izatera ere. Men egitera. Ulergaitzak zaizki-  
gun mapetatik at mundua lauso irudikatuz. Geurea dena  
ukatuz, ezbaian jartzera, giltzapean edukitzera, ez erabiltzera,  
museotan gordetzea zilegi dela pentsatzera, eta daukan balioaz  
ez jabetzera. Bazter lagatzea.

Iparrorratzarekin bizitzera ohitu gaituzte, nondik gatozen  
eta nora goazen jakiteko. Erabakiak hartzera: baietz edo ezetz  
esatera. Belauniko jartzera ere. Ohartu gabe ohiturek, funtsean,  
debekuen gisara, kontrako efektua dutela maiz eragiten.

## USTEAK USTE

OIHANA ELORTZA | oelorza@goiena.com

## Salaketa jarriko dizut

Errositako oinetako berriak aparkalekuan ahaztu eta buel-  
tan bila joan zirenerako, falta. Norbaitek eraman zituen.  
Jantzi behar zituenak, 12 urteko gaztetxoak, lapurrari  
salaketa jarri gura zion, nork eraman zituen jakin barik.  
Beste egun baten, 14 urte inguruko gazte batzuk litxarrerriak  
jaten lurlean eserita zeudela, bultza egin zion batek beste bati.  
"Baietz salatu" esanaz mehatxatu zuen laguna bultzada jasan  
zuenak. Laguna izan edo ez eta gertaera bera baloratu barik,  
salaketa jartzea zen kasu bietan gazteen irtenbidea, egoeraren  
soluzioa. Horrela ikusten zuten. Salaketa jartzea mehatxu nor-  
mala zen euren dako. Normala da jarrera hori izatea?

## KALE INKESTA

## Zer uste duzu laguntza sozialei buruz?



BEÑAT  
ABIO  
BERGARA

"Nire ustez, gaur egun  
dagoen krisiarekin  
jendeak diru laguntzak  
behar ditu eta udaletxeak  
bete beharreko lana da".




IÑAKI  
LARRAITZ  
ZUMAIA

"Niri ondo iruditzen  
zait. Bizitzeko laguntza  
eman behar zaie, eta  
gainera, gizarte hau  
aberatsa da".



OLATZ  
IBABE  
BERGARA

"Segun ze behar daukan  
bakoitzak eman beharko  
dute gehiago edo  
gutxiago, bakoitzak  
premia beteta egoteko".



GORKA  
OREGI  
BERGARA

"Esaten dute gehiegi  
ematen dutela dirua eta  
agian hori kontrolatuta  
egon beharko  
litzateke".

## HANDIK ETA HEMENDIK

Bide  
zentsuzkoenari  
heldu dio Masek

Xabier Letona  
argia.eus/blogak/xabier-letona/

Iragarritako kontsulta ofiziala  
ez dela egongo eta plebiszitu  
hauteskundeak iragarri ditu  
Artur Masek, orain arte  
aurreikusitako eszenatoki  
posibleenari ateak irekiz.

Baina A9an beste kontsulta  
bat ere egingo da eta ehunka  
mila pertsonen parte hartuko  
dute, berau munduaren  
aurrean beste mobilizazio  
erraldoi bat bilakatuz.

Eta hauteskunde  
aurreratuertarako zubi ere bai.

Gaitza zen bestela izatea  
eta, ziren baldintzetan,  
iragarritako kontsulta egitea  
ez zen independentziarantzko  
biderik egokiena.

Independentzia ez da  
bihar-etzi gauzatuko  
Katalunian eta oraindik indar  
metaketa prozesu luzea  
beharko da.

Bere izaeratik ere gaitza  
zen egungo Generalitateak  
desobedientziaren bidetik  
abiatzea, baina urrats hori  
orain kontsultarekin ematea  
ere ez zen egokiena.

Espainiako Gobernuak  
autonomiaren aurkako neurri  
gogorren bat har zezakeen eta  
egin beharreko bidea  
arriskuan jarri.

So-egile eta analista  
askoren aldetik ari da  
azpimarratzen, unerren batean  
independentzia aldarrikatu  
behar bada, instituzio  
autonomikoak behar dira  
horretarako.

Beraz, desobedientzia  
instituzionala, hobe bakarra:  
independentzia  
aldarrikapenarena.

Alde horretatik,  
hauteskundeak aurreratzea  
logikoagoa da, behintzat  
hauek antolatzeke alderdien  
adostasuna lortzen bada.

Eta hori ez da samurra  
izango.

Masek gidatutako zerrenda  
bateratua behar da eta,  
gutxienez, bi eratak izan  
daiteke: bat, CiUk eta ERCK  
osatutako koalizioa; bi, Mas  
buru, kontsentsuzko pertsona  
garrantzitsuz osatutako  
zerrenda.

Hori erabakitzea eta  
osatzea beti da korapilatsua,  
baina are zailago plebiszitu  
izaera emango duen  
programaren edukia finkatzea.

ERCK adierazi du berea:  
gehiengo handi bat lortuz  
gero, independentzia

aldarrikatu eta prozesu  
konstituziogilea ireki.

Onartuko du hori Masek?  
Horren argi adierazita  
nekez, baina ikusi egin behar.

Irailaren 14tik honainokoa  
alderdien unea izan da eta ez  
dira akordioak borobiltzeko  
gai izan, baina ez da apurketa  
traumatikorik gertatu.

Kontsulta alternatiboa  
makulu gisa hartuta, badute  
ibilbide bateraturik  
hauteskunde data  
finkatzeraino.

Bitartean, orain berriz  
ANC eta Omniumen tartea  
irekitzen da, haien  
mobilizazioa berriz ere  
giltzarri izango baita, berriz  
ere bi zentsutan: batetik, A9ko  
kontsultan parte hartzea  
ahalik eta handiena izan  
dadin; bestetik, alderdien  
gainean egon eta norabidea  
zein den argi markatzeko.

Zoologiaren  
historia

Bixente Serrano Izko  
berria.eus/blogak/bixente/

Oihaneko legea Historiaren  
lege?

Utikan, horrela bada,  
historialariak: zoologoak hobe!

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio  
Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

Lehendakaria Altzar Izagire  
Zuzendaria Iban Arantzabal  
Zuzendaria Eneko Azkarate  
Erredaktore burua Urbane Madera  
Sailkatu arduradunak Kabi Urtzelai  
(Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia  
Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna

Monika Belastegi  
Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo  
Argazkilaria Imanol Soriano  
Publizitatea Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano, Zortza Martin,  
Imanol Elortza  
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate  
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia  
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00  
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 09  
publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 20.100 ale  
Difusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiko  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko  
Jaurlaritza  
diruz lagundutako  
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Goiena Klubako urriko zozketak!

Etxeko txikiendako urrian irabaz ditzakezuen sari aproposak. Hartu parte!



- Irrien lagunen 20 maletin.
- Irrien lagunen 4 motxila eta kamiseta.
- Irrien lagunen aldizkariko urriko aleak.

Parte hartzeko sariaren izena: Irrien Lagunak

**IRRIEN LAGUNAK KLUBA**



**Sarrerak**  
Arrikruz kobak bisitatzeko 6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Arrikruz

**ARRIKRUTZ**  
oñatiko kobak



**Otarra**  
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Otarra

[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

## PARTE HARTZEKO:

**SMS:** KLUBA [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

**Telefonoz:** 943 25 05 05

**E-postaz:** kluba@goiena.com

**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.  
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.  
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# HERRIAK

ELGETA

## Bote luzean eta laxoan jokatu izan dute Elgetan

- ▶ Jasota dago Asentzión bote luzean jokatzeko pilota-soroa zegoela
- ▶ Laxoako eremua herrian bertan zegoen, Txost elkartekoek diotenez

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hormaren kontra jokatzeko pilotan, baina badira beste pilota modalitate batzuk, zaharragoak, eta galtzeko bidean daudenak. Oartzungo Txost elkartean horiek berreskuratzeko lanean dihardute, eta Elgetan izan berri dira hitzaldia eta eskuzko pasaka erakustaldia egiten. "Euskal pilota ez da ezker pareta soilik. Badago pilotan jokatzeko beste modu bat nagusi izan dena Euskal Herrian orain gutxira arte", azaldu du Elgetan Txost elkarteko Jose Mari Mitxelenak. "Euskal Herrian aurrez aurre jokatu da pilotan XIX. mendearen bukaerara arte".

Pilota modalitate horiek bizirik daudela zioen Mitxelenak, batez ere Ipar Euskal Herrian, Nafarroan eta Gipuzkoako zenbait herritan. "500 lizentziatik gora daude. Beste gauza bat da guk ez ezagutzea. Tenisak, esaterako, 150 urte ditu, eta pasakak 900 urte".

### Joko zuzena bizirik

Ordiziakoa izan omen zen hormaren kontra pilotan egiteko Euskal Herrian eraiki zen lehenengo frontoia. Aurretik, aurrez



Txost elkarteko kideek, barikuan, Elgetako udal pilotalekuan egindako eskuzko pasaka erakustaldia. | L.Z.

aurre egiten zen Euskal Herrian, eta gurean ez bezala Europako zenbait tokitan oso indartsu jarraitzen du zuzeneko pilota jokoak. Valentzian, esaterako, Ilargues izena hartzen du modalitate honek eta mundu mailako txapelketak

jokatzeko dira. Talde indartsuak dituzten Valentzian, Britainiar Uharteetan, Herbehereetan, Belgikan, edo Italian... Euskal Herrian ere hasita daude kirol modalitate hori bultzatzen. Txost elkartekoen esanetan, asmoa da hurren-

go urteko txapelketara ordezkaritza bat bidaltzea.

Bote luzea da pilota joko zuzenetan modalitate zaharrena, artzainek eta baso-mutiek pilota-soroetan jokatzeko zutena, orain 800-1.000 urte. Bost lagunek osatzen zuten taldea, eta bi eremutan banatzen zuten kantxa. Botarria erabiltzen zuten sakea egiteko, eta partida 13 jokora egiten zen. Euskal Herrian, gaur egun, ez da txapelketarik jokatzeko, eta erakustaldi gutxi batzuk besterik ez dira egiten.

Pasaka XIII. mendean jokatzeko zuten Nafarroako erregeek, eta XVII. mendean demokratizatu zen herriz herri udaletxeak erakitzen hasi zirenean. Udaletxe askok arkupea dute, eta idatzizko dokumentaziori esker zein arkupe horietan agertu diren zenbait arrastori esker —soka edo sarea eusteko gantxoak...— frogatu da, besteak beste, pasakan egiteko eremua zela. Pasaka da bote luzea eremu txikira, herri-gunera eta aterpera ekarria. "Pasaka esaten zaio bi taldeen artean dagoen sarea edo soka pasaka jokatzeko delako. Eskularruzko modalitatea oso zabalduta dago Ipar Euskal Herrian eta Baztanen. Jaialdi asko jokatzeko

ANTTON MENDIZABAL  
TXOST ELKARTEA

### "Modalitate horiek direnik ere ez daki askok"

Oartzungo Txost elkartean hamar urte daramate pilota modalitate zaharrak bultzatu nahian.



L.Z.

### Noiztik jokatzeko da pilotan Euskal Herrian?

Auskalo. Dakiguna da, batez ere, erromatarrek ekarri eta zabaldu zutela pilota jokoaren gurean. Lehenengo dokumentu idatzia 583. urtekoa da. Bisigodoek eta Baskoniek pilota partida jokatu zuten Gasteizen. Eta ez zuten horma baten kontra jokatu, baizik eta aurrez aurre eta bote txikiko pilotarekin.

### Ze helbururekin diharduzue herriz herri?

Gure ondarea berreskuratu nahi dugu. Modalitate horiek direnik ere ez daki askok, eta gustatuko litzaziguke berriz ere jokatzeko. Esan daiteke gerra ondotik Oartzungo guztiz galduta zegoen errebotea berreskuratu dugula. Orain, eskuzko pasakarekin ari gara. Iruditzen zaigu etorkizun handiko pilota joko dela, eta edozeinek jokatzeko modukoa. Oartzungo animatu da jendea, neskek zein mutiak. Orain, Gipuzkoan zabaldu nahirik ari gara.

### Arrastoak egon badaude?

Zalantzarik gabe. Nafarroako Arantza herrian 1980ko hamarkadara arte jokatu zuten pasakan. Hori, atzo da! Bertako nagusiekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta jokoaren gorabeherak eta arauak zeintzuk diren azaldu digute.

## Zenbat pilota-soro ote zegoen Elgetan orain 800 urte?

"Ia segurua da Elgetan ere jokatu zela bote luzean", dio Txost elkarteko Jose Mari Mitxelenak, eta Enrique Abril pilota-zaleak utzitako dokumentazioan aipamen bat aurkitu dutela dio. 1944ko dokumentu batean Abrirek kontatzen du nola garai batean Asentzión zegoen pilota-soro baten berri ematen dion Elgetako artzain talde batek. Herrian beste bi pilota-soro egon zitezkeela ere jasotzen du Abrirek: bata Olaegin, Uriarteko Amaren ermitaren inguruan, eta bestea Larragibelen, baina zalantzan jartzen du.

Laxoa modalitatearekin lotuta ere bada arrastorik Elgetan. Jose Mari Mitxelenak jakinarazi duenez beste dokumentu batean Enrique Abrirek jasotzen du nola idi-demak jokatzeko plaza egiterakoan laxoa jokatzeko eremuaren zati bat hartzen den. "Argi dago hemen bazegoela pilota mugimendua, pilota kultura", ziurtatzen du Mitxelenak. "Bote luzea jokatzeko zen Asentzión, eta laxoa herrian. Seguruena pasakan ere egingo zen!". Zentzu horretan, elgetarren laguntza eskatu zuen inork informazio gehiago edukiz gero Txost elkartearekin harremanetan jartzeko. "Zenbat pilota-soro egon ziren Elgetan? Bat seguru, eta beste bi akaso", dio. "Gure helburua hitzaldi eta erakustaldiokin bihotza ukitu, sorpresa bat edo beste eman eta herritarrei enbidea botatzea da herrian egon daitezkeen bestelako arrastoak bilatzeko. Horrela lokalizatu dugu berriki beste pilota-soro bat Artikutzan".



Idi-dema eremua. | GIPUZKOAKO KULTURA

dira", azaldu dute Txost elkartekoek.

Laxoa da hirugarren joko zuzena. Lau taldekidek jokatzeko dute; bik eskularru motzarekin eta bik eskularru luzearekin. Modalitate honek bizirik dirau, batez ere, Baztanen.

Azkenik, errebotea aipatu zuten Txost elkartekoek. "Laxoaren eboluzioa da, xestoarekin. Kantxa handitu eta joko aldatu egiten da, baina joko zuzena da. Gaur egungo joko zuzenetan garrantzitsuena eta ikusgarriena", azaldu zuten. Indartu dute, batez ere, Zubietan, Oartzungo eta Billabonan.

Eskuzko pasaka ikusteko aukera egon zen barikuan Elgetan.

ARETXABALETA

# Eroandako guztia gastatu zitzaizen gastronomia jaialdiko saltzaileei

Galiziako, Extremadurako, Euskal Herriko eta Errioxako jakiak izan ziren

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARETXABALETA  
Aretxabaletan eta inguruetan bizi diren galego, andaluz, euskaldun edota Extremadurako jendea batu zen besteak beste, atzo, domeka, Aretxabaletako Herriko Plazan egin zen XVIII. Gastronomia eta Folklore Jaian.

## Jateko eta edateko ugari

Hamalau bat postu jarri zituzten –beste urte batzuetan egon ez den txotxongiloen postu bat ere izan da aurren– eta hainbat jaki eta edari dastatzeko aukera izan zen: Errioxatik ekarritako ardoa, ogia edota hestekiak; Arrasateko Corazon de Encina elkartearen Extremadurako txitxi-burruntzi, ahuntz eta ardi gazta, urdaiazpiko iberikoa, ardoa edota elkarteko emakumeek egindako erroskillak; Galiziako olagarro eta enpanadak; eta Aratz elkartearen eskutik, Euskal Herriko buzkantza, txorizoa eta Idiazabalgo gazta eta Arrasateko txakolina ere dastatu ahal izan ziren, besteak beste. Corazon de Encina eta Aratz taldekoak pozik zeuden Aretxabaletako jaira eramandako produktu gehientsuenak amaitu egiten zaizkielako.

Galiziako eta Gaztela eta Leongo dantzak ikusi eta jotak entzuten ere izan ziren herritar ugari.

20. patxaran lehiaketa ere egin zuten eta Aretxabaletako J.J. Irure izan zen irabazlea.



Hestekiak saltzen zituen postuetako batean, herritarra txorizoa erosteko asmotan. | A.T.



Gaztela eta Leongo San Fernando dantza taldea. | A.T.



Galiziako postuan, olagarroarekin. | JOSETXO ARANTZABAL

**JOKIN ANTIXIA**  
ARETXABALETA



"Aratz elkartearen ekintza inportantea izaten da jai hau; produktu onak ekarri ditugu eta Atzegiko kanpaina ezagutzera emateko ere egokia da".

**SANTIAGO DAVILA**  
ARRASATE



"Corazon de Encinako daukagun postuan txitxi-burruntzi ugari saldu dira beste urte batzuetan bezala. Politak da jaiaren herrialde ugariak jendea elkartzea".

**ESPERANZA HORRILLOS**  
ARRASATE



"Extremadurako Picaroso ardoa eta urdaiazpiko iberikoa dastatu ditut eta dena oso goxoa zegoen. Oso ondo iruditzen zait halako jaiak ospatzea. Gustura nabil".

**MARI JOSE SANCHEZ**  
ARETXABALETA



"Euskal Herriko buzkantza dastatu dut eta oso ona zegoen. Beste produktu batzuk ere jango ditugu. Aretxabaletan bizi gara eta urtero etortzen gara jai honetara".

ARRASATE

## Txalaparta elkartearena, moxal-gisatu onena

Bederatzi elkartek hartu zuten parte lehiaketan; prestatutakoarekin 400 bat mokadu banatu ziren

**M.B.** | ARRASATE

Txalaparta elkartearen Juan Luis Arkauzek eta Jesus Mari Alonsok irabazi zuten zapatuan, elkartearen arteko moxal-okelaren gisatu

lehiaketa. Arkauzen esanetan, "aurretik halakorik prestatzeke" zeuden, eta ez zuten "saria irabazterik espero", baina epaimahaiak halaxe erabakita, eurek

eroan zuten plaka oroigarria eta gainerako zortzi parte-hartzaileek bezala –Danobat, Ziorla, Udalpe, Santamaina, Alkartu, Meatz Erreka, Santa Marina eta SUDC–, Jakoneko produktu sorta. Sariak Inazio Azkarragaurizar alkateak eta Josu Pereda Ingurumen zinegotziak banatu zituzten. Lehiaketak, gainera, Seber Altubeko baserriaren azokarekin bat egin zuten eta Debagoieneko XVIII. Jardunaldi Gastronomikoen egitarauaren baitako ekitaldia ere bazen.

Saria banatu ondoren, AEK-ko irakasleak lehiaketako moxal-gisatua 1,5 euroren truke banatzeaz arduratu ziren. 400 bat mokadu banatu zituzten eta irabaziak euskaltegiarentzat izan ziren.

### Salerostetarako erraztasunak

Arrasaten moxal-okelaren hazkundera sustatu eta herritarren artean okela horren kontsumoa indartzeko lanean ari da Udala. Ahalegin horretan zenbait ekintza egin dituzte dagoeneko, baina gehiago ere egingo dituzte. Pello

Garai Udaleko Ingurumen teknikariaren esanetan, herritarrak hasi dira galdetzen non eros daitekeen moxal-okela eta datorren astean batzarra egingo dute "ekoizleek eta harategietako, hiltegiko eta Udaleko ordezkariak salerosketa errazteko bideak topatzeko".

Bestalde, Mankomunitateko ordezkariak aurreratutakoaren arabera, azaroko asteburu baten –zehaztuko dute– jardunaldi gastronomikoetan parte hartzen duten jatetxeek moxal-okela duen menua eskainiko dute.



Irabazle, parte-hartzaile eta Udal ordezkariak sari-banaketan. | M.B.



AEK-ko irakasleak moxal-gisatu mokadua banatzen. | M.B.

## BERGARA

# Ohiko kontsumo eredua apurtuz, trukearen elkargunea Oxirondon

Bigarren eskuko eta norberak egindako gauzak izan dira trukatzeko eta saltzeko

MAIALEN TORRES | BERGARA

Azoka Bergararren ekimenaren baitan, merkatu txikia egin zuten domeka goizez Oxirondon. Hainbat herritarrek etxean zituzten eta dagoeneko erabiltzen ez dituzten gauzei bizitza berri bat emateko aprobetxatu zuten aukera, baita gainontzekoek eskaintzeko

zutena begiratzeko ere. Bigarren eskuko gauzez gain, norberak etxean egindako gaiak ere izan ziren azokan, eta ziur batek baino gehiagok ezin izan ziola argazkian ikusten diren magdalenak jateko tentazioari eutsi. Dena den, jantziak izan ziren azokako protagonista, eta besteak beste,

haurrentzako arropa saldu zuten euro batean, poltsak bostean eta txamarrak hamarrean. Horrez gain, mota guztietako liburuak eta etxerako apaingarriak ere izan ziren. Ekimen honekin, Oxirondo biziberritu eta kontsumo eredu berriak sustatu nahi izan dituzte bergararrek.



Hainbat bergarar gerturatu dira merkatu txikia ikustera, baita salgaiak trukatu eta erostera ere. | JOSETXO ARANTZABAL

## ARRASATE

# Batez ere liburuak trukatu dituzte elkar truke azokan

M.B. | ARRASATE

Egubakoitzean elkar truke azoka egin zuten Arrasateko Azoka Plazan. Musika eta literatura izan ziren trukeko protagonista, eta hori horrela, azokan parte hartu zuten herritarrek, liburu, CD eta biniloak eraman zituzten aldatzeko, besteak beste. Hala ere, "bereziki liburuak" trukatu zirela azaldu du Onintze Guridi Bagarako kideak.

Elkar truke azoka normalean zapatuan egiten duten arren, azkenekoa egubakoitzean egin dute, esan bezala: "Zapatuan erreka garbitzera joateko deialdia zegoenez, egubakoitzera aurreratzea erabaki genuen",

azaldu du Guridik. Beste batzuetan baino jende gutxiago hurbildu dela ere esan du; "igual eguna aldatzeagatik, eta eguraldi oso ona ere egin zuenez, bada, jendeak halakoetan beste plan batzuk egiten ditu", azaldu du.

## Hurrengo azaroaren 15ean

Hurrengo elkar truke azoka azaroaren 15ean, zapatua, egingo dute, ohi bezala, Azoka Plazan, 10:00etatik 13:00etara.

Guridik aurreratu duenez, egun horretan Txatxilpurdik abenduan egiten duen truke azokarako jostailu batzarekin bat egingo dute.



Umeak egubakoitzeko azokan ipuinak ikusten. | IMANOL SORIANO



## Emaiozu neguko hotzari ongi etorri beroa

- Diru laguntzen kudeaketa (EVE):
  - Biomasa (egurra, pelleta, ezpalak...)
  - Prever plana
  - Galdara gela berriak
- Berokuntza instalazioen efizientzia hobetzea
- Egin beharreko lanak finantzatzeko aukera zabala
- Galdara indibidualen (partikularrak) mantentze lanak (azterketa, berrikuspena)
- Galdara gela kolektiboen mantentze lanak

Deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe.

... eta informa zaitez bainuontzia dutxa bihurtzeko daukagun eskaintza bereziaz!

# Amaia-Berri S.L.

Otalora kalea, 18. Aretxabaleta  
Tel/Faxa.: 943 77 06 49  
amaiaberri@amaiaberri.com  
www.amaiaberri.com

Instagi.





Derrigorrezkoak diren txartelak ateratzeko makina, jarri berritan. | JOKIN BEREZIARTUA

**Ferixalekuan ez da tarifarik ordaindu behar, baina txartela derrigorrez hartu behar da**

bertan aparkatu hiru ordu igaro arte. Era berean, ez da tarifarik ordaindu beharko ibilgailua bertan -0.1 azpigunea deritzo- aparkatzeagatik. Hori bai, doakoa izan arren txartela hartu egin beharko da derrigorrez. Hau da, makina banatzailearen txartela irakurtzeko moduan erakutsi beharko da. Astelehenetik zapatura artekoa izango TAO sistema: 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Domeketan, jai egunetan eta abuztuan ez da TAOrik egongo.

#### 50 eta 200 euroko isunak

TAO sistema ez da berria Arrasaten, unibertsitate inguruan martxan dago dagoeneko. Uribarri-Loramendi gunean ez bezala, Ferixalekuan aparkatzea doakoa da eta ez dira egoiliar txartelak banatuko: "Ez zaio atxiki ezein etxerik, ez merkataritza lokalik edo ekipamenduzko lokalik".

Bestalde, arau-hauste arintzat hartuko dira denbora gainditzea, txartelik ez lortzea edo irakurtzeko moduan ez jartzea, eta hiru orduko aldia igaro barik berriro aparkatzea. Horiei 50 euroko isuna aplikatuko zaie. Eta arau-hauste larritzat hartuko da txartel manipulatu, faltsutu edo deuseztatua erabiltzea; azken horiendako 200 eurokoa izango da isuna.

Isuna makinan ordaindu ahal da arau haustea gertatu eta 48 orduko epean; hori bai, autoa berehala kendu beharko da.

## Dena ondo bidean, bihar helduko da TAO Ferixalekuko gunera

Gehienez 90 minutuz aparkatu ahalko da, egoiliar txartelik ez da banatuko eta doakoa izango da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ferixalekuan jarriko dute TAO, Uarkape frontoiaren eta Amaia antzokiaren arteko gunean. Mugikortasun Planaren barruan kokatzen den erabakia da eta dena ondo bidean bihar bertan jarriko da martxan. Ferixalekura mugatu dute oraingo, froga moduan: "Helburua da baldintzak erraztea, kontsumitzaileak joan ahal dai-

tezen erosten Udal azokara zein erdialdera", diote Udaletik. Hala ere, asmoa da gerora erdigune osora zabaltzea.

#### Astelehenetik zapatura

Gehienez ere 90 minutuko egonaldi bat egin ahalko da. Aparkatzeko denbora igarotakoan erabiltzaileak ibilgailua kendu egin beharko du eta ezingo du

## Urrian hasi eta bi hiletan amaituko dira Azoka Plazan igogailua jartzeko lanak

Obretan direnean barruko eskaileretatik eta kanpoko arrapatatik sartu behar da

J.B. | ARRASATE

Azoka Plaza irisgarriago egiteko igogailua jarriko du Udalak Mondragon kalean. Udal azokan sarbidea erreformatu eta igogailua jartzeko proiektua 2014ko uztailaren 21ean onartu zuen eta dagokion lizitazio espedientea jarraitu ondoren, Construcciones Moyua S.A. enpresak burutuko ditu obra horiek.

Obren aurrekontua da 159.626 eurokoa (BEZ barne). Udalak jakinarazi duenez, hilabete honetan bertan hasiko dira lanak eta bi hilabete iraungo dute. Beraz, urtea amaitu aurretik igogailua egongo da Azoka Plazara modu irisgarriago baten sartzeko.

#### 20 lagunendako gaitasuna

Gaur egun kanpoaldeko eskailek dauden lekuan jarriko da igogailua, eta horretarako eskailerak apurtu egingo dira eta



Igogailua egungo eskaileretan jarriko dute; irudian, ezkerrean. | J.B.

berriak egin. Igogailuak 20 lagunendako gaitasuna izango du. Obrak irauten duten bitartean, eskailera horiek itxita egongo dira eta azokara heltzeko sarbideak izango dira barruko eskailerak eta kanpoko arrapala.

#### Forma hartzearen lehen fasea

Obra horiekin Azoka biziberritzeko ekimena forma hartzen hasiko da. GUREztatu parte-hartze prozesuan hartutako erabakiak lau fasetan gauzatzea aurreikusen du proiektu gidatzaileak.

## "Iruzurgile" bat autoa kolpatu diotelakoan 800 euro eskatzen

J.B. | ARRASATE

Udalak jaso duen salaketa baten harira, "iruzurgilea" autoa kolpatu diola esanez gerturatzeko zaio subjektuari, telefonoz haren aseguru-etxearen itxurazko ordezkari batekin jartzen du eta hark esku-dirutan 800 euro

emateko eskatzen dio hari, gero aseguru-etxeen artean konponduko direla agindu eta dirua itzuliko diotelakoan. Bada, diru hori ez dio inork itzuliko. Hilaren 15ean eman zen "iruzurra"; halakoetan udaltzainengana jotzeko eskatu du Udalak.

### NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ



Onddo bidean, bekatuz

Azkenaldian hainbat sareri so egin diet irrikaz... Badira mizelioak bezala lur azpian errotuta daudenak, ustelkeria sareak esaterako, noizean behin azaleratu eta sumintzen gaituztenak, horra hor Caja Madrideo B txartelen fruitua.

Beste sare batzuetan, Facebook edo Whatsapean esaterako, egunotan ugari dira ondodoz betetako maletategien argazkiak, ezberdintasunak aldera batera utzita, a zelako lukurreriak!.

Guztiok bageneki non batu, ez genuke onddo bakar bat utziko mendian, itsasoko arrai- nekin egin dugun bezala.

Bekaizkeriarik ez zait falta, denbora libre gehiago izango banu... ni ere joango nintzate-

ke bila, ea jalekeria hau asetzen dudan.

Hor dugu hira ere, askorentzat Exkalibur txakurra akabatu dutelako, Madrilen egin diren lardaskeria guztiek sortua. 30 urtez alde batera utzita egon den birus baten aurkako txertoa topatzeko komeriak orain? Gosearen aurkako txertoa gizakia baino zaharragoa da (janaria) eta ez da Afrikara heltzen.

Eskerrak Arrasaten behintzat albiste atseginagoak ditugun, bizikleta bide sare berria esaterako.

Asko pozten nau mugikortasun jasangarriaren aldeko ekimen honen edukiak eta formak. Utz dezagun behingoz alferkeria eta aska gaitezen kotxeen armiarma saretik.

Sarerik interesgarriena berriz, nazio bezala gure etorkizunaren jabe garelako eta aldarrikapen hau gizartean ehuntzeko garaia delako.

Eskozian, Katalunian eta nola ez, Euskal Herrian, Gure Esku Dago. Saretu zaitetz!

## 'Enduro Ethiopian' ikus-entzunezkoa gaur eta Mondran Bike martxa zapatuan, Besaideren eskutik

Besaideren Mendi Astearren barruan, *Enduro Ethiopian* dokumentala ikusi ahalko da gaur Kulturateko areto nagusian (19:00). Era berean, zapatuan Mondran Bike martxa egingo da. Izena egunean bertan eman ahalko da, Musakolako kiroldegia atarian, 08:00etatik 09:00etara. Proba 09:00etan hasiko da. Federatuek bost euro ordaindu beharko dute; federatu ez direnek, berriz, hamar euro.

### OHARRAK

#### 1962AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 8an elkartuko dira. Bazkaria Uarkapen egingo dute, 14:30ean. Izena emateko 55 euroko ordaindu behar da urriaren 24a baino lehen honako kontu zenbakian: 3035 0001 51 0010123638.

#### 1956AN JAIOTAKOAK

Aurten Getariako Gaintza txakolindegira joango dira, azaroaren 8an. Izena emateko honako kontu korrante zenbakian 60 euroko ordainketa egin behar da: 3035 0202 75 2021044131 (Laboral Kutxa). Kontzeptu moduan izen-abizenak jarri behar direla gogoratu dute antolatzaileek.

#### 1959AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 22an Kajoi tabernan elkartuko dira, 11:30ean. Bazkaria Uarkapen egingo dute, 14:30ean. 60 euroko ordainketa egin behar da, azaroaren 13a baino lehen.

#### 1964AN JAIOTAKOAK

Aurten 50 urte betetzen dutelako ospakizun berezia egingo dute azaroaren 8an. Izena emateko 65 euroko ordainketa egin behar da honako kontuan: 2095 5055 50 9113880736 (Kutxabank). Harremanetarako posta elektronikoa da: [arrasate1964kintada@gmail.com](mailto:arrasate1964kintada@gmail.com).



Autoramas taldea, promoziorako argazki baten. | KOOLTUR EKINTZA

## Brasilgo rock talde aktiboenetakoa gonbidatu du Kooltur-ek asteen

1998an sortutako Autoramas taldeak joko du eguenean gaztetxean (22:00); sarrera, bost euro

J.B. | ARRASATE

Joan den eguenean Libe taldeak eskaini behar zuen kontzertua bertan behera geratu zen azken orduan taldekide bat gaixotu egin zelako. Ezohiko etenaldi horren ostean, Kooltur Ekintza taldearen Kooltur Ostegunak ekimenaren errubera berriro jarriko du martxan, Brasilgo Autoramas taldearen kontzertuarekin.

**Ibilbide luzea eta arrakastatsua** Autoramas Brasilen 1998an sortutako hirukotea da eta ordutik "izugarritzko ibilbidea" egin dute: Hego Amerikako herrialde erraldoi horretako musika talde independente aktiboenetakoa da", dio

antolakuntzako kide Iker Barandiaranek. Hasieratik euren musika B52, Dick Dale eta Devo moduko taldeekin konparatu izan dute, eta ildo horretan jarraitzen dute gaur egun ere. Gainera, 2000. urtean Rock in Rio jaialdi entzutetsuan parte hartu zuten eta ordutik ez dira geldirik egon: Europatik bost bat bira egin dituzte, eta Japonian eta beste herrialde askotan ere egondakoak dira.

Dozena erdi disko grabatu dituzte eta Brasilgo MTVren lehiaketan bost sari eskuratu dituzte. Goi mailako talde bat beste behin gaztetxeko agertokian; eguenean, hilak 23, 22:00etan puntuan hasita. Sarrera bost euro izango da.

## Makatzena futbol taldearen 40. urteurrena ospatzeko afaria egingo dute urriaren 24an

J.B. | ARRASATE

Arrasateko futbolaren historian zeresan handia eman duen Makatzena futbol taldea 1974an sortu zen, izen berbera duen auzoan. 1984ean desagertu zenera arte, ibilbide oparoa izan zuen. Aurten 40 urte bete dira taldea sortu zenetik eta urteurrena ospatu gura dute egubakoitzean, hilak 24, afari berezi batekin: "Anekdotak gogoratu eta esker onez

nire burua agurtzeko eguna izango da", adierazi du ekitaldiaren antolatzaile Roman Lopezek.

Taldeko jokalariek, entrenatzaileak eta zuzendariak daude gonbidatuta Aldape jatetxean egingo den afarira (21:00). Afariaren ostean kantuan egingo dute eta musean egiteko aukera ere egongo da. 1999an, taldearen 25. urteurrenean, 55 lagun elkartu ziren.



1974ko Makatzena futbol taldearen hasierako hamaikakoa. | ROMAN LOPEZ

Jose Tena | Zaldibarko Futbito Txapelketako antolakuntzako kidea

## "Antolakuntzan jende berria behar dugu, beteranoak irteten joan gaituzten"

Parte-hartzeak behera egin duen arren, 53. edizioa antolatzea erabaki dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Zaldibarko Futbito Txapelketa ondo ezagutzen du Jose Tena arrasatearra (Gasteiz, 1974). 1990ean hasi zen jokatzeko, duela 24 urte, eta antolakuntzako kide da 2002a ezker. Txapelketako parte-hartzeak behera egin duen arren, aurten ere antolatzaera animatu dira; hori bai, antolakuntza laguntza behar dutela azpimarratu du.

**Hasteko, aurtengo txapelketak izango al du nobedaderik?**

Izena ematen duten taldeen araberakoa izango da. Hala ere, aldaketa garrantzitsurik ez dugu aurreikusten.

**Urrun geratzen dira txapelketara 80 talde aurkezten zireneko garaia.**

**Parte-hartzeak izan duen gain-beherari aurre egiteko pentsatu duzue zerbait berezia egitea?**

Gaur egun dena dago asmatuta... Pentsatu izan dugu epaile federatuak ekartzea eta talde bakoitzak lau jokalarik zein atezainarekin osatzea. Baina jokalarik bat gutxiagoarekin jokatzeko proposamenak ez du erantzun onik izan oraingoz. Gainera, epaile federatuarekin ezin da kontaktatu, bestelako txapelketak amai-



Jose Tena. | JOKIN BEREZIARTUA

### Izen-ematea, urriaren 27an

Azaroaren 1ean hasiko da txapelketa. Izena eman behar da urriaren 27an Kultureteko areto nagusian, 17:30etik 20:00etara. Talde bakoitzak 275 euro ordaindu beharko du; fidantza da 75 eurokoa. Argibide gehiagorako honako helbidera idatzi: [zaldibarkofutbitotxapelketa@gmail.com](mailto:zaldibarkofutbitotxapelketa@gmail.com).

tzen direnean bakarrik uzten dietelako epaitzen.

**Antolakuntzako kideak laguntza beharrean zaudetela diozue. Zer gertatzen da, bada?**

Antolakuntzan hamar bat lagun gaude eta hilean behin hiru orduko bilerak egiten ditugu. Beste hiru edo lau lagun beharko gaituzke dena ondo eramateko.

**Zeintzuk dira zuen egitekoak?**

Hedabideei informazioa bidali, sailkapenak egin, asteroko kartelak egin, webgunea eguneratu, kartelak itsatsi... Astelehenean bost edo sei lagun elkartzen gara asteroko kontuez berba egiteko: egutegia, zigorak... Gero, denon artean adosten ditugu erabakiak.

**Jende berria eta haize freskoa behar al duzue antolakuntzan?**

Antolakuntzan gaudenok urte batzuk daramatzagu lan horretan eta nik uste dut beharrezkoa dela jende berria sartzea. Asmoa da antolatzaile berriak pixkana sar daitezela, beteranoak garenok irteten joan gaituzten...

Eta noski, futbolariei gaituztuz gaituzten zaien heritarrei Zaldibarko txapelketan parte hartza gonbidatu gura diet!

## NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | [blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/](http://blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/) | [twitter.com/arrasatepress](https://twitter.com/arrasatepress)



## "Bertsolaritzaren arrakasta soziala lortzen da txapelketarekin"

Jon Sarasua atxabaltarra ez zan klasifikatu 1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako: "Txapelketa honetan ilusio gutxiagorekin ikusi dut nire burua". Hala be, askok uste euen finalien egotie merezi euela: "Hori eritzi bat da, baina epaimahaiari egindako kritika gaizki formulatua dago. Ez zuen ni finalera joan behar nintzela bakarrik esaten, beste batek kanpoan gelditu behar lukeela ere bai, eta hori ezin da hala esan".

Izen be, polemikie egon zan urte hartan jurauekin: "Beraien lana erlatiboa da, baina guk aukeratu ditugu eta txapelketaren hasieratik amaierara gure konfiantza osoa dute".

Lopategi, Lizaso eta Egaña zien Sarasuaren favorituak irebazteko, baiñe horrek ez euen esan gure onenak zienik: "Adibidez, finala bukatu eta Santamasetan Arrasaten txapeldunak baino saio hobea egin dezake zortzigarren gelditu denak (...)

Ezin daiteke esan zein den onena. Bertsolaritzaren inguruan mugitzen den edozeinek asumitua dauka hori. Txapelketa bertsolaritzaren arrakasta soziala lortzeko egiten da".

**Mondraue, Azoka plaza barik!**

Hiru zien azokie zabalik eukitiko biherrezko kondizioak: produktuek merkieu egotie, produktuen kalidadie hobie izetie eta danetik egotie. Eta lkei enpresak egindako ikerketa batek esaten euenez, horreik ez zien beteten: batetik, instalazioak oso txarto euzelako; eta bestetik, Maxi Eroski zabaldu barririk aukera zabalau ezofreziduten euelako.

Hortan, gobernu batzordien erabaki euen 1990 bukaeran ixtie azokie, baiñe Udalak aukerie emun gure eutzen basarritarrei, noixien behin euren produktuek saltzeko; baiñe ez ekixien nun.

# Ume eta nagusiendako ipuin emanaldiek jarraitu egingo dute

Umeenak egubakoitzetan izango dira; nagusienak, martitzenetan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ikasturte berrian ere ipuin emanaldiez gozatzeko aukera izango dute ume eta nagusiek. Kultura Zerbitzuak eta Udal Liburutegiak elkarlanean ipuin emanaldi sorta antolatu dute urte bukaera bitartean: hiru emanaldi umeendako egubakoitzetan eta beste hiru nagusiendako martitzenetan.

Helduendako emanaldiak hauek izango dira: urriaren 28an, Cecilia Paganini argentinarrak *En la boca del lobo* izeneko emanaldia egingo du, 19:30ean; azaroaren 25ean, *Cuentos del Sahara* izeneko saioa egingo dute gazte-leraz eta arabiarrez Idoia Sanchez tolosarrak eta Maryan Jdira Mehamdi marokozarrak, 19:30ean; eta abenduaren 16an, Dorleta Kortazar eskoriatzarrak *Berba kateatuak* izeneko emanaldia egingo du, 19:30ean. Helduendako emanaldiak osoko bilkuren aretoan izango dira.

Umeendako emanaldiak, Errotalden, umeen liburutegian izango dira eta egun bakoitzean bi saio egongo dira: lehena 18:00etan eta bigarrena 18:30ean. Urriaren 31n, Belen Azkarate antzuolarrak *Hodei baten bidaia* delako emanaldia egingo du; azaroaren 28an, Irungo Maider Galartzak *Printzesak kontu kontari* izeneko saioa egingo du; eta abenduaren 19an, Virginia Imaz antzuolarrak *Bigarren printzesa* izeneko ipuina kontatuko die umeei.



Belen Azkarate antzuolarra, aurtan, Udal Liburutegian umei ipuina kontatzen. | IMANOL SORIANO

## Kultura batzordeak erabakita

Urte bukaera bitartean egingo den ipuin emanaldi sorta berri hori Kultura batzordetik irten dako ekimena da, Leire Iruin Kultura zinegotziak azaldukoaren arabera: "Kultura batzordeko funtzionatzeko modua aldatu egin

da, hilean behin gai jakin baten bueltan egiten da batzorra, monografikoak izaten dira eta bertan parte hartzen dute gaiarekin lotura zuzena duten pertsonak eta baita gaiarekin interesa dutenak ere. Ipuinen gainekoa uda aurretik egin genuen, eta han erabaki

zen ipuin emanaldiekin jarraitzea".

Horrekin batera, urte hasieran herri literaturaren gaineko astea antolatzea ere adostu zuten batzorde hartan, Iruinek gehitu duenez, eta horri forma ematen ari dira orain.

## Elikagaien manipulazailer karneta, Bizikazirekin

KOMUNITATEA GOIENA | BIZIKASI | BERGARA

Elikagaien manipulazailer karneta ateratzeko ikastaroa antolatzen ari gara langile eta langabetuentzat. Hobetuzen bidez %100ean diruz lagundua, eta oraindik izena emateko aukera dago. Informazio gehiagorako deitu 943 76 93 94 zenbakira edo idatzi [info@bizikasi.com](mailto:info@bizikasi.com) helbidera.

Ikastaroa urriaren 27an eta azaroaren 3an izango da, 16:00etatik 19:30eran, Miguel Altuna institutuan.

## Curriculumak nola baliokidetu azalduko dute Bidez bidekoek

Bidez bide elkartearen ekimenez eta *Berdindu zaituz*, *Curriculum ikusezina* proiektuaren barruan informazio mahaia jarriko dute hilaren 23an, San Martin plazan, 09:30etik 13:30era.

Kanpaina ibiltari horren helburua da atzerriko ikasketak Espainiako tituluarekin baliokidetu eta homologatzeari buruzko aholkularitza eta informazioa ematea; batez ere, emakume etorkinentzat. Baina, era berean, interesatu guztiei ere dei egiten diete urriaren 23an San Martin plazan jarriko duten informazio-mahaira hurbil daitezzen.

## Gazte eta helduendako ikastaroa antolatu dute dantza eskolan

Euskal dantzak oinarri dituzten koreografiak irakatsiko dituzte egubakoitz arratsaldeetan

M.B. | BERGARA

Bergarako Musika eta Dantza Eskolak laster abiatuko du lehengo ikasturtea. Azaroaren 5ean hasiko dira eskolak, dozena bat inguru ikasleko bi talderekin: 6 eta 8 urte arteko neska-mutikoena, bata; eta 9 eta 10 urte artekoena, bestea. Hala eta guztiz ere, interesa duenak izena emateko aukera du oraindik.

### Gazteek eta helduek ere bai

Umeendako ez ezik, nagusiendako eskolak ere emango dituzte eskola berrian. Hain zuzen, egubakoitzetan gazte eta helduendako eskolak egongo dira, 18:00etatik 19:30era. Bertan, euskal dantzak oinarri dituzten koreografiak ikasteko aukera egongo da.

Izena emateko epea zabalik dago, eta, horretarako, edo infor-

mazio gehiago jasotzeko, Bergarako Musika eta Dantza Eskolak Espolotan duen egoitzara jo daiteke, 943-76 57 80 zenbakira deitu edo [idezkaritza@bme.e.telefonica.net](mailto:idezkaritza@bme.e.telefonica.net) helbidera idatzi.

Dantza eskolak Zabalotegin, Udal Euskaltegia egondako lekuan emango dira, eta irakaslea Zumarragako Eneko Galdos dantzaria izango da; eskolaren koordinazio edo jarraipen lanak, bestalde, Edu Muruamendiarrak dantzari eta koreografo bergararrak egingo ditu. Muruamendiarrak duela hiru aste eskola berriaren aurkezpenean aurreratu zuen moduan, euskal dantza tradizionalen oinarrituko dira eskolako ikastaroak, baina berrikuntza ugariarekin.

Helburua da herrian duela urte batzuk zegoen dantzarako zaletasuna berriz piztea.



## Notarioaren aurrean sinatu dute permuta

Osoko bilkuren aretoan sinatu zituzten barikuan Udalaren eta UNED-Bergara Fundazioaren arteko permutaren eskriturak notarioaren aurrean. Sinatzaileak UNED-Bergara Fundazioaren buru den Martin Garitano diputatu nagusia; Iñaki Esparza, UNED-Bergarako zuzendaria; eta Jaione Isazelaia alkatea izan ziren. Ekitaldi berean Diputatu Nagusiak adostutako 1,7 milioi euroko laguntza entregatu zion alkateari. Aranzadi ikastolari 75 urterako egindako lagapena ere berretsi zuten bertan.



# Askarruntz auzoko mugikortasuna hobetzeko lanak hasita daude

Errepidea norabide bakarreko bihurtzeaz gain, oinezkoendako espaloia eta babesguneak egingo dituzte

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Hasi dituzte dagoeneko Askarruntz auzoan mugikortasuna hobetzeko lanak. Irail erdialdera hasi zituen Goitu enpresak eta epe motzean amaituta egotea espero dute.

Diputazioarekin elkarlanean diseinatu ditu Udalak Askarruntz auzorako mugikortasun hobekuntzak: trafiko aldaketa batzuk egingo dituzte autoen abiadura moteldu eta arriskua jaisteko. Hauxe da proposamena: Angiozarrerako bidegurutzetik gora, gaur egun bi noranzko dituen errepidea, norabide bakarreko errepide bezala jarriko da. Hortik igo egingo dira autoak: jaitsi, berriz, bide beltza bezala ezagutzen den errepidetik egingo dira, Union Cerrajerako autoen gordailua zenaren ondotik.



Errepidea norabide bakarreko bihurtuko dute. Bide beltzetik egin beharko da behera. | IRATI GOITIA

## Trafikoa baretu ere bai

Horrekin batera, trafikoa baretu ere egingo dute eta oinezkoari lehentasuna eman. Horretarako hainbat aldaketa egingo dituzte: orain arte bi noranzko izan dituen

errepidea estutu egingo dute; oinezkoendako espaloia eta babesguneak egingo dituzte; eserlekuak ere jarriko dituzte; abiadura muga jaitsi egingo dute; eta asfaltatze

lanak egin. Horrekin guztiarekin, trafikoa baretuko dutela espero dute.

Askarruntzeko auzotarrek urteetan eskatu izan dute auzo-

ko arriskua gutxitzeko mugikortasun hobekuntzak egitea. Udalak batzarrera deitu zituen uztailan auzotarrak eta egingo ziren lanen berri eman zieten

## Hitzaldia aisialdia familian egitearen garrantziaz

Hilaren 22an izango da, 18:00etan, kultura etxean, Udaleko Prebentzio Zerbitzuak antolatuta

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatu du. *Familian denbora librearen eta jolas egitearen garrantzia* izeneko berbaldia antolatu dute eta Etxadiko kideek, hau da, Orientazio Psikologikorako Zerbitzua eskaintzen duten profesionalak egingo dute. Kultura etxean izango da, urriaren 22an, 18:00etan, gaztelaraz eta Prebentziorako Zerbitzutik aurreratu dutenez, joa-

teko interesa dutenek izena ematea eskertuko dute, gela egokia aukeratzeko. Horretarako, 943 77 91 26 zenbakira dei daiteke.

### Orientazio zerbitzua abian

Orientazio Psikologikorako Zerbitzuari dagokionez, 0 eta 19 urte arteko seme-alabak dituzten herriko familiei zuzenduta dagoela ekarri dute gogora Udaletik. Bertan, seme-alaben hazkunde eta hezkuntzaren inguruko informa-

zioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen da.

Dohaineko zerbitzu pertsonalizatu eta konfidentziala da, Udaleko Prebentziorako Zerbitzuak eskaintzen du, Etxadi taldearen bitartez eta Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia fakultatearen laguntzarekin.

Zerbitzu horretara jo daiteke seme-alaben hazkunde eta heziketari buruzko edozein galdera egiteko, eta horretarako hiru bide daude: Batetik, telefonoz deitu daiteke 944 05 15 49 zenbakira, egunetan, 11:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 17:00etara. Bestetik, posta elektronikoz ere egin daiteke kontsulta: Udaleko webgunean *-bergara.net-* Etxadi taldearen webgunerako esteka dago; behin Etxadi taldearen webgunean, Familientzako

formularioa aukera hautatzen da eta bertan eskatzen diren esparruak bete eta kontsulta egin; azkenik, familiek jakinarazpena jasoko dute Etxadiko aldetik, kontsulta jaso dutela eta erantzuna bidaliko dutela esanez.

Galderak posta arruntez egiteko aukera ere badago *-Maximo Agirre kalea, 18 (Bis), 5. solairua, 10. departamendua, 48011 Bilbo.*

### Iaz 104 kontsulta jaso ziren

2013an, herritarrek egindako 104 kontsulta jaso zituzten Etxadiko aholkulariek *-denak emakumezkoek luzatutakoak-*. Kontsulta guztiak 82 familiak egindakoak izan ziren eta horietatik familia berriak, lehen aldiz zerbitzua erabili zutenak, 43 izan ziren. Guztien artean bost kasu, beste zerbitzu batzuetara bideratu ziren.

## LHko 5. eta 6. mailakoentzat lehiaketa deitu du liburutegiak

M.B. | BERGARA

Irakurketa eta liburutegia gaia erabiliz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzako argazki lehiaketa antolatu du Udala Liburutegiak barikuan ospatuko den Liburutegien Egurenaren harira. Argazkiak, gutxienez, hiru megakoak izan behar dira, jpg formatuan eta ez da aurpegiak agertuko.

Argazkiak *liburutegia@bergara.net* helbidera bidali beharko dira hilaren 23ko, 14:00ak aurretik, izen-abizenak, ikastetxea eta maila zehaztuta. Sariak hilaren 24an banatuko dira: 100 eta 75 euroko bono bana Elkarren gastatzeko.

## OHARRAK

### TAILA ESKOLAKO IKASTURTEA HASTEAR

Taila eskolak azaroan hasiko du ikasturte berria eta interesa duten guztiek atea irekita dituzte. Argibide gehiagorako zein izena emateko taila eskolak Zabalotegi 11, behean duen egoitzara hurbil daiteke, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara.

### 1945EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30ean. Izena emateko 30 euro aurreratu behar dira jatetxean bertan, azaroaren 17a baino lehen.

### 1951N JAIOTAKOEN KINTO AFARIA ERREKIN

Azaroaren 8an egingo dute. Izena emateko 30 euro sartu behar dira Laboral Kutxan: 3035 0009 19 0091146500.

### 1935EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN

Azaroaren 16an egingo dute, 14:30ean. Izena emateko, 15 euro aurreratu behar dira Laboral Kutxan, azaroaren 11a baino lehen.

### 1976AN JAIOTAKOEN BAZKARIA TXARRANTXAN

Azaroaren 1ean egingo dute ospakizuna. 14:30ean da bazkaria, eta, aurretik, 12:00etan Pol-Pol tabernan batuko dira. Izen-ematea urriaren 27a baino lehen egin behar da, eta, horretarako, 45 euro ordaindu beharko dira Kutxabankeko 2095 5087 60 9114273321 zenbakian.

### 67KO KINTOEN FESTA AZAROAREN 1EAN

Ospakizunera joateko Elkar fotokopia-dendan 20 euro ordaindu behar dira, urriaren 29a baino lehen. Infernukua tabernan egin dute hitzordua, 19:30ean.

## San Joxepekoek Lizarrara irteera egingo dute azaroaren 6an

Gaur, urriak 20, zabalduko dute izena emateko epea, San Joxepe egoitzaren bulegoan, eta urriaren 31 izango da horretarako azken eguna. Azaroaren 6an, eguna, 08:30ean abiatuko da Lizarrarako autobusa geltoki nagusitik. Bazkaria eta hamarretakoa Iratxe jatetxean egingo dituztela aurreratu dute erretiratuen elkarteko antolatzaileek.

## 'Amaren eskuak' filma etzi, euskal zinearen zikloaren barruan

Euskal zinearen gaineko zikloa egiten ari dira Zabalotegin, eguaztenetako zine-klubean eta horren baitan, *Amaren eskuak*, Mireia Gabilondo zuzendari bergararraren filma ikusteko aukera egongo da, 20:00etan. Zikloari amaiera Patxo Telleria eta Aitor Mazoren *Bypass*-ek emango dio hilaren 29an.

## Azaroaren 1ean 'paintball'-era irteera gaztelekukoekin

Izenematea zabalik dago urriaren 29a baino lehen, gaztelekuan edo Jardunen bulegoan eta prezioa 12 euro dira. Irteera egunean 09:00etan abiatuko dira autobus geltoki nagusitik eta goizean *paintball*-ean ibili eta bazkaldu eta gero, Zarautzen emango dute arratsaldea. 20:00etan egingo dira bueltan herrian.

## Bihar ere banatuko dituzte tuperrak udaletxeko arkupeetan

Bihar, hilak 21, hirugarren tuper banaketa egingo du Udala. 17:00etatik 20:00etara banatuko dituzte, udaletxeko arkupeetan. Oraindik ere zenbait etxebizitza falta dira ontzia hartzeko eta Udalak erabaki du hirugarren banaketa bat egitea. 3.000 tuper dituzte banatzeko, etxeko hondakinak gutxitzeko helburuarekin.

# Kontorsionista bat dator egubakoitzean Oñatira, Liburutegien Eguna ospatzeko

Ikasturte honetan zazpina saio egingo dituzte euskarazko eta gaztelerazko Tertulixan literatura saioetan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Datorren egubakoitzean, urriak 24, da Liburutegien Nazioarteko Eguna eta eguna modu berezi baten ospatuko dute Oñatin. "Ikuskizun bat antolatu dugu eta liburutegi barruan egin barik, kalean egingo da, eguraldiak laguntzen badu, behintzat. Shakti bihurrikaria, kontorsionista, dator eta asmoa da herriko hiruzpalau tokitan egitea saioa", aurreratu du udal liburutegiko arduraduna den Arantzazu Ibarrondok.

## Mahaitxo baten gainean

Ibarrondok azaldu duen moduan, liburuekin bat datorren ikuskizuna du Shakti bihurrikariak. "Mahaitxo baten gainean egiten duen saioa da. Zortzi minutu inguru irauten ditu eta asmoa da Santa Marina plazan, Foruen plazan eta herriko beste guneren baten ere egitea", dio.



Harkaitz Cano, joan den urteko apirilean egindako Tertulixan saioan. | O.E.

## Irakurketa kluba

Bestalde, aste honetan hasiko dira Tertulixan literatura saioak ere. Bihar izango da euskaraz egingo duten lehena, Peru Magdalena koordinatzailearekin.

Gaztelerazko saioen moderatzaile Ruben Arias izango da. Hizkuntza bietan zazpina saio egingo dituzte eta gaztelerazko bi komikiaren ingurukoak izango dira, Antonio Altarribarekin.

Tertulixan literatura saioez gain, Ostegun Kontalariak ekimena eta guraso eta umeendako irakurketa kluba ere antolatu dituzte udal liburutegian. Oraindik badago tokia.

## 7.400 euro gazteendako, euren kultur sormen eta hedapenerako

O.E. | OÑATI

Irabazi asmorik gabeko Oñatiko gazte, gazte talde eta gazte elkar-teendako diru laguntza emateko deialdia zabaldu du udalak. Kultur sormenerako eta hedapenerako bideratuko da diru laguntza eta urriaren 24a aurretik egin behar da eskaera gaztelekuan.

### Oñatin erroldatuta

Diru laguntzaren eskaera egiteko gaztelekuan dagoen gazte informazio bulegoan dauden eskaera fitxak bete behar dira. Horrekin batera, dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte: Taldearen edo norbanakoaren orain

arteko jarduerak eta helburuak laburtzen dituen txostena, taldearen, edo norbanakoaren, arduradunen nortasun agiriaren fotokopia eta aurkezten duten egitarau bakoitzeko eskaera fitxa bana. Ekintzaren fitxan, urteko gastu sarreraren aurrekontua, aurreikusten diren epeak eta datak eta helburuak ere zehaztu behar dituzte. Deialdira aurkezteko nahikoa izango da talde eskatzailearen erdiak eta banakako eskatzaileak Oñatin erroldatuta egotea eta 12 eta 30 urte bitartekoak izatea. Guztira 7.400 euro banatuko ditu udalak bigarren deialdi honetan.



UNIVERSIDAD DE COIMBRA  
23.09.2014

PAKE LEKU

## 'Elegante' ibili dira Portugalen

Portugalera egin dute bidaia Pake Lekutik irailean. Bi autobusetan joan dira eta "elegante" ibili direla diote. Algarven izan ziren, besteak beste. Egonaldiaz gain, bidaia ere ondo egin dutela dio bidaiarietako batek: "Joatean eta etortzean gau bateko geldialdiak egin genituen, eta bidaia eroso izan zen". Talde argazkia era atera zuten.

## Udal euskaltegiari izena ematen dio Bedita Larrakoetxeari buruzko liburua aurkeztuko dute

Oñatiko udal euskaltegiari izena ematen dio Bedita Larrakoetxea zenari buruzko liburua aurkeztuko dute datorren egunean. Paulo Anduaga agustinoa da egilea eta Jerardo Elortza editorea. Biak izango dira liburuaren aurkezpenean eta Bedita nor izan zen eta zer egin zituen azalduko dute. Aurkezpene euskaltegian izango da, egunean, 18:30ean.

## Kale Zaharreko hondakinen informazio bulegoa itxita egongo da gaur eta bihar, konponketengatik

Konponketa lan txiki batzuk direla eta, gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, kale Zaharreko hondakinen informazio bulegoa itxita egongo da. Hala ere, zerbitzua Olakua auzoko dorretxean emango da. Hileko hirugarren astelehena izanik, dorretxe beheko solairuan egongo da bulego ibiltaria; martitzen goizean ere han egongo da bulegoa.

## Emakume zaintzaileendako tailerraren aurkezpene egingo dute, Andraitzekin, egunean

Nitaz arduratu, zutaz arduratu izeneko tailerra antolatu dute emakume zaintzaileendako. Emakumeon Jabekuntza eskolak egingo du aurkezpene eta Kontxi Lopez Soria, gerontologiako esku-hartze psikosozialeko teknikariak, tailerraren nondik norakoak azalduko ditu. Egunean izango da aurkezpene, urriak 23, 11:00etan, Bidebarrietako erabilera anitzeko gelan.

## 'Euskara, añubea eta eguzkibegixa' ikuskizun multimediaren beste emanaldi bat egingo dute

Urriaren 31n egingo dute euskarak bizitako jazarpena kontatzen duen ikuskizuna. Emanaldi bakarra ziren egitekoak, baina sarreak ia agortu dira eta piztu duen interesa ikusita, beste bat egitea pentsatu dute. Emanaldiak 19:00etan eta 22:00etan izango dira. Sarrerak, Txokolateixan daude salgai, bost eurotan.

## Ikasturte berriko plangintzaren aurkezpene egingo du Sortuk eguazteneko herri batzarrean

Sortuk herri batzarra egingo du etzi, eguaztena. Bi puntu ditu gai zerrendak: 2014-2015 ikasturteko plangintzaren aurkezpene eta fronte zabalaren (EH Bildu) planteamendua eta erabaki hartzea. Herri batzarra urriaren 22an izango da, eguaztena, 19:00etan, Bidebarrietako erabilera anitzeko gelan.

## Argia kenduko dute erdiko kaleetan etzi gauean

O.E. | OÑATI

Ramon Irizar transformazio zentroa berriro egin behar dute eta lan horiek egiteko, argia kenduko dute erdiguneko hainbat kaleetan etzi gauean. Hala, urriaren 22tik 23ra bitarteko gauean, zazpi orduz egongo dira argi barik hainbat etxebizitza.

Gauerdian, 00:15ean kenduko dute, eta 07:00ak arte ez dute argirik izango kale hauean atari gehienetan: Apaolaza, Arantzazuko Ama, Atzeko kale, kale Barria, Aozaratz, Ramon Irizar, Ultzegi eta Zubibarri. Guztira 70 eraikinekin eragingo die eten horrek. Horrelakoetan egin ohienez, argirik gabe egongo diren atari eta eraikin horietan jakinarazpen oharrak jarriko dituzte.

## Ekonomia zirkularra zer den azalduko dute

O.E. | OÑATI

Ekonomia zirkularra eta moneta sozialari buruzko hitzaldiak antolatu ditu udaleko sozioekonomia batzordeak aste honetarako. Nazioarteko esperientziak aurkezteaz gain, tokiko garapenean moneta lokalek izan dezaketen baliagarritasunari buruz arituko dira. Aritz Kanpandegi irakasleak hitz egingo du lehen zatian, eta bigarrenetan, txantxiaren nondik norakoak azalduko ditu udal ordezkari batek.

Hitzaldiak kultura etxean izango dira egun eta ordu hauetan: urriaren 22an, 19:00etan; urriaren 27an, 19:00etan; urriaren 29an, 10:00etan eta 19:00etan, azken hori, gazteleraz. Txantxia mar txan jarri zenetik 18.800 euro daudela zirkulazioan ere adierazi du udalak.



Txantxiak. | TXOMIN MADINA

## ARETXABALETA

# Aratuste-martitzenerako dantza eta kantua asmatu gura dituzte

Lehiaketa deitu dute eta abenduaren 15a da azken eguna; saria, 600 euro

M.A. | ARETXABALETA

Koreografia baterako musika eta letra sortzeko lehiaketa deitu du Udalak, ikastetxeekin elkarlanean. Aratuste-martitzen goizean Herriko Plazan elkartzen diren 500 bat neska-mutikok kantu horrekin dantzan egitea da helburua.

## Kantua eta dantza

"Aratuste-martitzenerako ekitaldien balorazioa egiterakoan Lehen Hezkuntzako neska-mutikoendako zerbait falta zela konturatu ginen. Hala, flashmob edo antzeko zerbait egitea bururatu zitzaigun", jakinarazi zuen Zigor Quintanillak, Kultura zinegotziak, ikastetxetako ordezkariekin batera (Kurtzebarri eskola eta Arizmendi ikastola) eguenean egindako agerraldian. Eta gaineratu zuen: "Aretxabaleako izpiritua izan dezan kontu horrek abesti bat sortu eta dantza bat egitea pentsatu dugu".

## Abenduaren 15a azken eguna

Aretxabaleta eta Aratusteak oinarri hartuta kantu bat asmatu beharko dute lehiaketara aurkeztu gura dutenek. Mp3 formatuan grabatu eta CDan gordeta eraman beharko da gero abestia



Kultura saileko kideak ikastetxetako ordezkariekin batera aurkezpenean. | M.A.

(letra word dokumentuan). Eta gutun-azal itxi batean egilearen datuak: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia.

Koreografiarako dantza proposamena aurkeztea ez da derri-gorrezkoa, baina eginez gero baloratu egingo dute.

Proposamenak abenduaren 15erako eraman beharko dira Arkupe kultur etxera edo udal-etxera. Epaimahaia osatuko dute honako kideek: Lehen Hezkuntzako irakasleak eta Kultura batzordeko kideak. Horiek har-

tutako erabakiaren berri abenduaren 19an emango dute. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du.

Musikariak animatu gura izan ditu Quintanillak: "Badakigu Aretxabaletan musikaren inguruan jende asko dabilela eta guztiak animatu gura ditugu parte hartzera. Abesti polit bat, letra ederrarekin, sor dezatela; aretxabaletarren izpiritua goraiatzat duen zerbait", eta gaineratu: "Ea Aratusteetako abesti ofizial moduan geratzen den hori hurrengo urteetara begira".

# Hondakin bilketak emaitza onak kiroldegian

M.A. | ARETXABALETA

Ibarra kiroldegiko arduradunak pozik daude hondakin bilketa emaitza onak ematen dabilelako kiroldegian. "Hala ere, gero eta hobeto egitea da gure helburua", diote, eta horregatik hondakinak gaika jasotzeko ontzi ezberdinak daudela gogorarazi dute.

Emakumeen komun guztietan errefusa jasotzeko ontzia dago, higiene pertsonalarekin zerikusia duten hondakinak uzteko. Gainera, aldagela guztietan eskuak lehertzeko erabiltzen diren paperak jasotzeko ontziak daude. Pasilloetan ontzi arinak eta errefusa uzteko ontziak; eta sarreran, harmailtan eta solariumean edozein hondakin uzteko aukera dago, baita materia organikoa ere. Beira uzteko ontzirik, ostera, ez dago; etxera bueltan eraman behar da hori.

Era berean, zera jakinarazi dute: "Ezinezkoa da hondakina sortzen den leku bakoitzean ontzi bat izatea, baina metro bakar batzuk eginda berehala aurkituko duzue behar duzuen". Horregatik ez nahasteko eskatu dute.

## NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO



## Ebolaz

Hemen be, gripe urteik lagun asko eruen eueien, famelixa osuek be bai, eta, auzo askotan, 30 lagunetik gora.

Bururaketan jat, Sierra Leona aldi bizi dauena holako zerbait izengo dala. Medikuangana aillegau ez dienen hillotzak, iretargirako lazkotxe jantzi horrekin, etxietan bille eta bertatik ataraten ikustiek ondoeza ekarten dust.

Holako gaixotasunak billurre be emuten dau, eta, politikuek gai horren gainien berba egiten ikustiek, ikerie. Beti zuzentasunaren jabe, bestiek txarto egindakue garbi, eta norbera estropezu baten.

Ebolak jotako haxe, ez eizan Madrillera ekarri biher, han bertan kasu egin biher ei jakon; gatxa zabalketako arriskue gehitu baiño ez ei da egin. Ekarri zani, barrez, nik goguen dauketen eztabaida bakarra gastu horrean jabe nor egingo ete zan da.

Otsuei belarriek bertan ikusi jakonien, konturatu ga hau ez dala hegatzixen gripe dantsue, eta zorixoneko protokoluek arrazoittute dazela.

Pentsetan dot personok nor bere eskarmentuaz ikesten dogula gehixen, eta hola izeten jarraituko dauela. Baiña, gaur egun, batak bestien barri jakitteko daukogun erreztasune bestien eskarmentuaz balixo izeteko erabili biherko geukela uste dot. Eta gaixotasun honen inguru, iñun eukittenan, Afrika aldi bizi daukiela esango nauke.

## "Holako gaixotasunek billurre be emuten dau"

## ESKORIATZA

# Ekaitz Oñateren, Arantza Hernandezen eta Pedro Bengoaren argazkiak, onenak

Banatu dituzte Udako Argazki Lehiaketako sariak, 50 axtroki bakoitzarendako

M.A. | ESKORIATZA

Joan den eguenean banatu zituzten Udako Argazki Lehiaketako sariak, eta irabazleak izan dira: Ekaitz Oñate (15 urtera artekoa); Arantza Hernandez (16 eta 49 urte artekoa); eta Pedro Bengoa (50 urte-tik gorakoa).

Sarituak erabakitze hiru talderen botoak izan dituzte kontuan: Garapen batzordearena; Facebook eta e-mail bidez jasotakoena; eta Ibarraundi museora etorritakoena. Irabazleek 50 axtroki jaso dituzte saritzat, Eskoriatzan erabiltzeko.



Pedro Bengoaren argazkia: *Hondartza garbitzen egunsentian.* | PEDRO BENGOA



Ekaitz Oñateren argazkia. | EKAITZ OÑATE



Arantza Hernandezen argazkia: *Inguruarekin bat eginez.* | ARANTZA HERNANDEZ

## ARETXABALETA

## Autoari errebisioa debalde egiteko aukera Mapfrerekin

Mapfre aseguru etxearen eskuatik autoari eta motoari errebisioa debalde egiteko aukera egongo da biher eta etzi (10:00-14:00 eta 16:00-19:00), Markole auzoan (kiroldegia eta futbol zelaia artean). Ez dago bezero izan beharrik, gainera.

Konturik garrantzitsuenak begiratuko dizkiote autoari, besteak beste: argiak eta seinaleztapen-sistema; gurpilak eta pneumatikoak; sistema elektronikoak; motorra eta elektrizitatea; eta direkzioa, esekidurak eta balaztak.

Argibide gehiago gura duenak Aretxabaleako bulegora dei egin dezala: 943-77 11 76.

## ESKORIATZA

## Ehunkien edukiontzia eta olioarena orain Zaldibarren daude

Eskoriatzako erdigunean dauden edukiontzi zuria (arropak, ehunkiak eta oinetakoak jasotzeko) eta etxeko olio jasotzeko erabiltzen den berdea lekuz aldatu dituzte.

Hemendik aurrera Santa Ana auzoko Zaldibar aparkalekuaren aldamenean egongo dira biak, eta hara jo beharko dute herritarrek.

## Oñatira joango dira erretiratuak zapatuan, ibilaldia egitera

Gipuzkoako 73 erretiratu elkartetako kideak elkartuko dira Oñatin, zapatuan, eta bederatzi kilometrotako ibilalditxo egin han. Eskoriatzako Olazar elkartekoak ere joango dira; 08:00etan hartuko dute autobusa Akeita parean. Argibide gehiago gura duenak dei egin dezala erretiratuen elkartera: 943-71 48 97.



Saroa Bikandi Elgetako udal liburutegian. | ELGETAKO LIBURUTEGIA

**ELGETA**

## Saroa Bikandi kontalariak ipuin saioa egingo du haur jaioberriendako

Ordubete inguruko saioa izango da, euskaraz, 2012an eta 2013an jaiotako neska-mutikoendako, eta zabalik da izena emateko epea udal liburutegian

L.Z. | ELGETA

Garrantzitsua da neska-mutikoei ipuinak kontatzea eta urriaren 27an, astelehena, haur txikiendako saio berezia egingo du Saroa Bikandi ipuin kontalariak. "Umearen garapenean ipuinek erakusten dute bizitza nolakoa den", zioen aurreko batean Elgetako liburutegira egindako bisita batean. "Txiki-txikiak direnean ipuinekin, ahots jolasekin edo

errepikapenekin lengoaiaren deskubrimendua dago. Eta gero, ipuinak berak psikologikoki edo sinbologikoki egiten duen lana ere badago".

Urriaren 27ko saioa 18:30ean hasiko da, eta zabalik da izena emateko epea liburutegian.

**Liburutegiaren eguna**

Urriaren 24an ospatzen da Liburutegiaren Eguna. Horrekin lotuta,

Ipuinen Ordu berezia egingo dute liburutegian. Hiru urtetik gorako neska-mutikoei zuzendutako ekintza izango da, eta ipuinak entzuteaz gain umeek eskulan txiki bat ere izango dute egiteko.

Azaroaren 21erako, berriz, beldurrezko ipuinak iragarri dituzte liburutegitik. Bederatzi urtetik gorako umeendako saioa, 19:00etan izango da, eta helduendako saio berezia, 22:00etan.

## 'Ezetz igarri!' lehiaketa martxan 12-16 urteko gazteendako

L.Z. | ELGETA

Udal liburuzainak antolatu du lehiaketa 12-16 urte bitarteko Elgetako gazteendako eta liburu, idazle edo marrazkilari baten inguruko pistak jaso ostean zer edo nor den asmatzean datza.

Lehenengo deialdi honetan asmatu beharrekoak bi idazle

izango dira, eta liburutegiak, astero, pista bat emango du. Telegram talde bat sortuko da pisten berri emateko —ezinbestekoa da aurrez izena ematea—. Liburutegiko blogean eta paperezko euskarrian ere egongo dira pistak eskuragarri. Erantzunak Telegram pribatu bidez bidal

daitezke edo liburutegira gerturaturuta. Saria, e-reader bat, erantzun zuzenarendako izango da. Erantzun zuzen bat baino gehiago egonez gero zozketa egingo du udal liburuzainak.

**Lehen pista azaroaren 3an**

Pistak azaroaren 3an, 10ean, 17an eta 24an emango dituzte. Erantzunak bidaltzeko azken eguna azaroaren 30a izango da. Sari banaketa egingo dute abenduaren 5ean, barikua, 17:00etan.

**ANTZUOLA**

## Aiherrara joateko izen-ematea gaur bukatzen da

Udalak autobusa jarriko du debalde, Aiherrara joateko zapatuan, hilaren 25ean. Izena emateko azken eguna gaur urriak 20 da. Gazteak animatzea ere gura dute eta kontzertuak izango dira gauean: Goliath, Governors eta Ze esatek! taldeen eskutik, hain zuzen ere.



ANTZUOLAKO UDALA

**ARAMAIO**

## 2015eko egutegia eta argazkien bilduma osatzeko lehiaketa antolatu du Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Urtero moduan, argazki lehiaketa deitu du Udalak 2015eko egutegia eta argazkien bilduma osatzeko. Parte hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez eta erretratu guztiak Aramaion ateratakoak izan beharko dira, lehenago argitaratu gabeak. Nola aurkeztu behar diren jakiteko udaletxera deitu: 945 44 50 16.

Argazkiak udaletxean edo kultura etxean entregatu behar dira, urriaren 30a baino lehen.

Argazki onenaren egileak 200 euroko saria jasoko du eta horrez gain, urtaro bakoitzeko argazki onenaren egileari 100 euro emango diote. Gainera, egutegia osatzeko beste zazpi argazki ere aukeratu dira eta horiendako "sari sinbolikoa" egongo da.



2014ko lehiaketa irabazi zuen argazkia. | AIZPEA AJURIAGERRA

## Aurre-kanporaketak amaituta, bost aramaioar izango dira 2015eko Arabako Bertsolari Txapelketan

Aramaioako bertsolaritza osasuntsu dagoenaren adierazle, bost aramaioar izango dira 2015ean jokatuko den Arabako Bertsolari Txapelketan. 2011n txapeladuna eta 2013an finalista izan zen Manex Agirre zuzenean sailkatu da eta gainerako laurek aurre-kanporaketak gainditu behar izan dituzte: Paula Amilburu, Xabi Igoa, Iker Agirre eta Peru Abarrategi. Txapelketan 18 bertsolari arituko dira; urtarrilaren 17an aurkeztuko da eta finala martxoaren 21ean jokatuko da Gasteizko Printzipal antzokian.

## Oraingo astean bukatuko da San Milixan azokarako izenemate epea

Udaletxean igarri dute azokarekiko interesa, jendea badabilelako informazioa eskatzen

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gatzagar zein kanpotar artisauak badabilta aurtengo San Milixan azokarako informazio eske, eta izenak ematen. Mugimendua igarri dutela baieztatu dute Gatzagako Udaletxetik. Edozelan ere, gogora ekarri dute datorren urriaren 24ra arteko epea (egubakoitza) dutela interesdunek azokarako izena emateko. Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako, Iparraldeko, eta jakina, Leintz Gatzagako bertako artisauendako aukera da San Milixan azokak ematen duena.

Bertan parte hartzeko beharrezkoak diren dokumentu eta bestelakoen gaineko informazioa honako helbidean kon-

tsulta daiteke: <http://ttiki.com/85852>.

Aurtengo azoka azaroaren 16an izango da.

**Osoko bilkura, azaroan**

Bestalde, Udalak jakinarazi du udal idazkari berria dagoeneko hasi dela bere zereginarekin Gatzagan, joan den egunean hasi ere. Astean behin izango da bertan, eguenero, Gatzagak Elgetaraekin partekatuko du-eta, langilea.

Edozelan ere, eta haren jarduna kontuan hartuta, urteotan moduan, aurrerantzean ere osoko bilkurak egunetan egingo ditu udalbatzarrak, ezustekorik ezean, goizez. Hurrengo azaroaren 6an izango da.

# Bertakoa eta sasoiak

## Telebistako programazio berria

Berritasunekin dator Goiena telebista udazkenean

- ▶ Programazio berria prestatu dugu familia guztiarendako.
- ▶ Protagonistak eta gertaerak bertatik bertara aurkeztuko ditugu.
- ▶ Edukiak, gauzak kontatzeko modua eta itxura, berrituta.



# KIROLA

ATLETISMOA

## Donnay eta Fernandezek hegan egin dute gaueko Tafyd krosetan

Gizonezkoetan errekorra ondu zuen arrasatearrak; ez zuen aurkaririk izan. Errenteriako neska ere aise, bigarrenari hiru minutu sartuta. Orain arteko parte-hartze altuena izan du probak aurten: 91 korrikalari.



Ezkerrean Leire Fernandez (19:43) atleta errenteriarra Ferixalekuko helmugara heltzen, eta eskuinean Endika Donnay (16:31) helmugaratu berri. Bi atleta gazteek ez zuten aurkaririk izan. | IMANOL SORIANO

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Orain egon naiz berarekin eta esan dit bazekiela bigarrena azkarra izango zela esprintean eta nahiago zuela hasiera-hasieratik erritmo gogorra jartzea. Eta benetan, bere ondoan joan naiz bizikletan bidea zabaltzen, eta oso erritmo azkarra zeramala iruditu zait, itzela. Errekorra ondu duela uste dut". David Berezibarren hitzak dira, Arizmendiko irakasle eta gaueko Tafyd krosetako antolakuntzako kidearenak, lasterketa amaitu berritan. Gizonezkoetan azkarrena izan zen Endika Donnay-ren markarekin -16:31; orain arteko markarik onena- harrituta, seigarren edizioarekin pozik zegoen Berezibar.

Emakumezkoetan ere hegan egin zuen Leire Fernandez atleta errenteriarra (19:43). Bigarren

DATUA

# 91

KORRIKALARI AURTEN

Orain arteko parte-hartzerik altuena izan du aurtengo Tafyd krosak. 91 korrikalarik eman dute izena: 78 gizon eta 13 emakume.

sailkatu zen Kristina Ruizi hiru minutu baino gehiago atera zizkion (22:47).

**Donnay, hasieratik buruan**

Arrasate Atletiko Taldeko arduradunek -antolatzaileek izan zituzten esker on hitzen artean,

Arrasate Atletiko Taldekoak aipatu zituzten, besteak beste-irteera eman ostean, korrikalariak zitzu-bizian irten ziren Amaia antzoki pareko zebra-bitetik. Irteeratik urteroko ibilbideari hiru itzuli eman zizkioten, Arrasateko alde zaharrean barrena, ibilbideko 5,7 kilometroak egin eta Ferixalekuko patioan helmugaratu arte.

Lasterketari dagokionez, Endika Donnay hasieratik jarri zen lasterketa buruan, eta lehen itzulia egin orduko bakarrik zihonan atleta arrasatearra. Erritmo bizi bezain konstantea hartu zuen Donnayk. Serio, eta aldi berean gozatzen. Lehen itzulian Unai Hernandez, iazko irabazlea, gertu zuen oraindik baina bigarren itzulirako Urretxukoak ezin izan zion Arrasatekoaren erritmo

gogorrari eutsi, eta begi bistatik galdu zuen. Etxean eta ondo ezagutzen zituen kaleetatik zebilen Donnay eta amaieran aitortu zuenez, bazuen gogoia Tafyd kroseta irabazteko. Horregatik topera irten zen hasieratik: "Eta jarrai dezala ahal duenak", adierazi zion GOIENARI proba amaitu ostean.

Donnay eta Hernandezekin batera lasterketa buruan ibili ziren Martin Berrizbeitia aretxabaletarra eta Gaizka Romero arrasatearra. Lasterketa ederra egin zuten biek; oraingoan Romero geratu zen podiumetik kanpo.

**Fernandezek aurkaririk ez**

Emakumezkoetan Leire Fernandezek ez zuen aurkaririk izan. Atzealdeko postuetan irten zen, baina oso erraz egin zuen aurre-

ra. Amaieran, bigarren geratu zen emakumeari hiru minutu baino gehiago atera zizkion. Emakumeen parte-hartzeak gora egin du aurten, baina oraindik bide luzea dago egiteko. Izan ere, 91 korrikalaritatik 13 bakarrik izan ziren emakumezkoak.

Adin guztiendako proba da. Horren adierazle da betetera modalitatean ere banatu zirela sariak. Hala, gizonezkoetan Roberto Gartzia izan zen azkarrena (18:45) eta emakumezkoetan, ordea, Marije Velasco (24:47). Era berean, proban parte hartu zuen 74 urteko Maria Jose Gil korrikalari arrasatearrari sari berezia eman zioten. Eta ez hori bakarrik; antolatzaileek lehiakortasun kutsua kendu gura izan zioten probari, azken sailkatu Nerea Hernandezi sari bat emanda.



**TXOMIN MARAÑÓN**  
DURANGO

"Mendian aritzen naiz gehien. Orain hilabete hasi nintzen asfaltoan eta gustura; gaurko emaitzaz oso pozik nago. Bosgarren egin dut, lehen laurak oso bizkor joan dira-eta. Lehia badago, baina lagunarteko giroa da nagusi".



**MARIA JOSE GIL**  
ARRASATE

"Adinak ez du barkatzen... Beste batek animatu nau. Oso polita da proba, jendeak asko animatzen du. Antolakuntzan diharduten batzuk korrika egiten dute; horiek ere parte hartu beharko lukete... Niri ez zait inporta azkena heltzea".



**IKER SARABIA**  
ARRASATE

"Lasterketa hau lasai egin ohi dut baina aurten estutzea erabaki dut, eta pozik. Proba polita da: klean, poteo orduan, jendez gainezka... Donostiako maratonia prestatzen nabil; gaurko proba beroketa izan da maratolari begira".



**MARIJE VELASCO**  
ARRASATE

"Urtero hartu dut parte. Oso azkarra da eta poteo ordua izanik jende asko dago animatzen. Behobia ari naiz prestatzen eta gaurkoak balio izan dit. Emakumeak animatu gura ditut parte hartzera; autoestimua asko igotzen da".



**DAVID BEREZIBAR**  
ANTOLATZAILEA

"Eguraldiak lagundu egin du, inoiz baino korrikalari gehiago izan ditugu. Gorantz doa lasterketa, ezagutzera ematen. Klean eta gauez egiteak ukitu berezia ematen dio, horrek jendea motibatu egiten du. Oso pozik gaude".



Korrikalariak irteera unean, Amaia antzoki pareko zebra-bidean. | IMANOL SORIANO



Lasterkariak Ferixaleku parean. | LS.



Irabazle guztien talde argazkia. | JOKIN BEREZIARTUA



Lasterketa Monte taberna ondotik pasatzen. Jende asko ibili zen animatzen. | IMANOL SORIANO

### Proba herrikoa egin guran

Txalotzekoa lehen sailkatuen lana baina, zenbakiak zenbaki, antolakuntzak lasterketa herrikoa dela eta garrantzitsuena parte hartzea dela gogoratu zuen egubakoitzeko proban: "Badakit lasterketa azkarra dela eta korrikalari asko probatzera eta markaren bila joaten direla. Baina gure asmoa da herrikoa egitea, lasai-lasai parte hartu gura duen jendea ere erakartzea", argitu zuen Berezibarrek.

Horregatik pozik egon daitezke Arizmendi Ikastolakoak, sei-garren edizioan orain arteko parte-hartzerik altuena izan zuen-eta gaueko Tafyd krosak: 91 lasterkari. Iaz 80 korrikalarik eman zuten izena.

### Gauzez eta alde zaharrean

Gaueko Tafyd krosak bi bereizgarri nagusi ditu. Batetik, gauzez egiten dela, argi natural barik. Eta, bestetik, Arrasateko alde zaharrean egiten dela. Gainera, bete-betean poteo ordua denean. Era berean, egubakoitzean egin zuen hego haizea eta tenperatura altua -20 gradu baino gehiago markatzen zuen termometroak- ez da berria lasterketa honetan, eta horrek seguruenik ez zien mesede egingo korrikalariari. Hala ere, urtez urte lasterketa azkarragoa izateaz gain, gero eta jende gehiago elkartzeko da bide izkintetan animatzeko.

Errotu den lasterketa da eta Arrasaten zein inguruetan kirol honek dituen jarraitzaileak ikusita, harrizkoa litzateke parte-hartzeak behera egitea.

### ENDIKA DONNAY | GIZONEZKO AZKARRENA

## "Banekien forma fisiko onean heltzen nintzela, eta hasieratik estutu dut"

Saso ezin hobean dagoela erakutsiz, aise irabazi zuen atleta arrasatearrak gaueko Tafyd krosaren sei-garren edizioa. **Arrasate-Oñati irabazi ostean, orain Tafyd krosa. Sasoi-ko zaudenikez dago zalantzarik.**

Bai, sasoi-ko nagoe-lara dirudi. Gogo handia nuen lasterketa hau irabazteko eta heldu da eguna. Banekien forma fisiko onean heltzen nintzela eta hasieratik estutu dut, topera.

**Nola planteatu duzu lasterketa?** Banekien Unai [Hernandez] ni baino azkarragoa dela azken metroetan, distantzia motzeko



J.B.

probetan aritzen da-eta gehienbat. Horregatik erabaki dut hasieratik erritmo gogorra jartzea eta... jarrai dezala ahal duenak.

#### Polita da proba?

Ederra da kuadrilla-koak, gurasoak eta jende ezaguna zure herriko kaleetan animatzen ikustea. Giro handia dago. **Ze proba duzu orain begiz jota?** Epe motzean Soraluze-Bergara eta Behobia-Donostia egin gura ditut eta gero etorriko dira gehiago. Behobiarako, esaterako, ez daukat marka zehatz bat buruan. Urtero moduan, aurreko marka hobetzera joango naiz.

### LEIRE FERNANDEZ | EMAKUMEZKO AZKARRENA

## "Oso dibertigarria izan da, gauzez korritzea beste gauza bat da niretako"

Emakumeen artean ez zuen aurkaririk izan Leire Fernandez errenteriarak. Bigarrenari hiru minutu baino gehiago atera zizkion; pozik zegoen egindako lanarekin. **Errenteriarak izanda, zer dela-eta hartu duzu parte Tafyd krosean?**

Arrasaten kontu batzuk egin behar nituen eta aprobeztatu dut lasterketan parte hartzeko.

#### Pozik egindako lanarekin?

Bai, oso gustura. Giro ederra egon da eta haur zein gaztetxo asko ikusi ditut bide bazterretan animoak ematen. Animoak ematen aritu diren gaztetxo horietatik erdiek



J.B.

bakarrik parte hartuko balute izugarria izango litzateke. **Gustatu zaizu lasterketa?**

Oso dibertigarria izan da. Gauzez korritzea beste gauza bat da niretako.

**Emakumeak baziren, baina oraindik gizonezkoak dira**

#### gehiengo garbia. Ze iritzi duzu?

Emakume gehiago animatu beharoko lirateke, eta batez ere ume eta jende gazte gehiago. Gomendatuko nieke korrika egitea, ederra da.

#### Ze proba duzu begiz jota orain?

Txakur krosean ari naiz orain eta hilabete barru Europako txapelketa daukat. Ea nola doan...

### TAFYD KROSEKO SAILKAPENA

#### GIZONEZKOAK

1. Endika Donnay 16:31
2. Unai Hernandez 17:06
3. Martin Berrizbeitia 17:11
4. Gaizka Romero 17:46
5. Txomin Maraño 18:11
6. Andoni Correas 18:21
7. Haritz Cortazar 18:24
8. Iñigo Labayen 18:40
9. Iker Sarabia 18:41
10. Sergio Agredas 18:43

#### EMAKUMEZKOAK

1. Leire Fernandez 19:43
2. Kristina Ruiz 22:47
3. Marije Velasco 24:47
4. Arantzazu Del Fresno 25:03
5. Amaia Markiegi 25:25
6. Onintza Langarain 25:45
7. Mari Carmen Paredes 26:17
8. Ane Ormaetxea 28:36
9. Sara Yisely Laverdy 29:04
10. Yolanda Pz. de Arenaza 29:19



Mahoneroa baloiak euren taldean jarrai zezan lanean. | JOSETXO ARANTZABAL

# Bergarak irabazi du Eztalan jokatuako derbi orekatua

Hirugarren minutuan sartu zuen lehen gola Bergarak eta Antzuolakoek ezin izan zioten horri aurre egin

## EMAITZA

ANTZUOLA  
**0-3**  
BERGARA

**AMAIA TXINTXURRETA** | ANTZUOLA  
Partidua hasi eta hirugarren minutuan etorri zen Bergarakoen lehen gola Eztalan; Alberdik sartu zuen hegaleko falta batean, buruz. Horrek mahoneroei indarra eman zien, baina lehenengo zatia 0-1ekoarekin amaitu zen. Antzuolarrek ere golak sartzeko hainbat aukera izan zituzten, adibidez hogeigarren minutuan

Danelek aukera paregabea izan zuen, baina ez zuen lortu. 30. minutuan bergararrek ere izan zuten beste aukera bat. Orekatuak eta borrokatuak izan ziren lehen 45 minutuak.

Atsedendiaren ostean ondo hasi ziren antzuolarrak –lehen hamar minutuetan indartsu ibili ziren– aurkariaren areatik gertu eta aurrean presentzia izan zuten. Hala ere, 63. minutuan Bergarakoek bigarren gola sartzeko lortu zuten; Eñaut bakarrik gelditu zen Antzuolako atezainaren aurrean eta ondo gurutzatuta sartu zuen gola. Hortik aurrera, Antzuolarendako gogorrakoa izan zen Bergararen aurkako partidua.

Derbietan gertatzen den bezala, zelaian falta asko izan ziren, zentro hegaleko asko egon ziren eta bi pase jarraian ematea zaila izan zen. Bergararrek alboko sake luzeak eta hegaleko faltak ondo atera eta horiek aprobetxatzen saiatu ziren. Antzuolakoek, berriz, baloi geldoetan huts egin zuten eta mahoneroek momentu horiek aprobetxatu zituzten.

Hirugarren gola 78. minutuan izan zen; Markelek falta batetik gol ikusgarria sartu zuen. 84. minutuan, ostera, penalti bat izan zen Antzuolaren alde; Jontxuk bota zuen, atezainak ondo gelditu zuen eta alderatzean Tximik kanpora bota zuen.



**JON MURUA**  
ANTZUOLAKO ENTRENATZAILEA

"Esperantza handiak geneuzkan partidua honetarako baina penaz galdu dugu. Partidua nahiko orekatua izan da eta ez genuen merezi 0-3 bukatzea. Lanean jarraituko dugu".



**AITOR ARRATE**  
BERGARAKO ENTRENATZAILEA


"Entrenamenduan landuta geneukan falta batetik sartu dugu lehen gola. Aste guztia derbirako entrenatzen egon gara eta ondo irten zaigu partidua. Efikazia handia izan dugu".

## FITXA TEKNIKOA

**Antzuola:** Mardaras, Jon Paredes, Jontxu, Arruti, Altxeta, Jokin, Aranbarri (Longares, 67.min.), Zabala (Imanol, 45.min.), Oinatz, Aitor (Isma, 60.min.), Danel.

**Bergara:** Lupo, Iker (Julen, 87.min.), Retegi, Xabijo, Xabi, Beitia, Eñaut (Josu, 77.min.), Asis, Iñigo (Markel, 56.min.), Eloy (Elo, 80.min.), Alberdi (Balza 65.min.).

84. minutuan Bergarako Beitia bi txartel hori jarraian atera zizkion epaileak eta kanpora tu egin zuen.



IMANOL SORIANO

## Aloña Mendiren aurkezpena

Guztira hamaika futbol talde aurkeztu ditu Aloña Mendiko futbol sailak denboraldi berrirako Azkoagain futbol zelaian; mutilen zortzi talde eta nesken hiru talde, hain zuzen. Mutiletan talde hauek jokatu dute aurten: ohorezko erregional mailak, gazteen bi taldek, kadeteen beste bik, infantilen bik eta alebiren talde batek. Nesketan, berriz, hiru talde aurkeztu dituzte: gazte, kadete eta infantil mailako talde bana.

**Bideoa ikusteko:**  
eskaneatu QR kode  
hau poltsikokoarekin.



## Aloña Mendik 2-2 berdindu du Tolosaren aurkako partidua

Domekan etxetik kanpo jokatu zuen Oñatiko taldeak eta taldeko Asier Ugarteren bi goli esker, markagailua berdintzea lortu zuten. Lehenengo gola penaltiz sartu zuen eta bigarrena luzapenean. Hala, sailkapenean hamabigarren doaz Aloña Mendikoak sei punturekin. Hurrengo asteburuan Antzuolaren kontrako derbia izango dute.

## Ostadar taldearen aurka 2-2 berdindu du Aretxabaletako UDAK

Zapatuan Aretxabaletak etxetik kanpo jokatu zuen Ostadar taldearen aurka. 2-2ko berdinketa egitea lortu zuten aretxabaletarrek eta sailkapenean lehenengo postuan doaz hamasei punturekin. Asteburuko denboraldian jokatu duten seigarren jardunaldia izan zen eta datorren asteburuan Tolosa taldea izango dute aurkari.

## Lagun Onak taldearen aurka Mondrak 1-1eko berdinketa lortu du

Zapatuan etxetik kanpo jokatu zuen erregional preferente mailako Mondra futbol taldeak eta Lagun Onak taldea aurkari izan zuen partiduan 1-1eko berdinketa lortu zuen. Hori horrela, sailkapenean hamabigarren postuan daude arrasatearrak bost punturekin. Hurrengo asteburuan Lazkaoen kontra jokatu dute partidua etxean.

## Bergarako neskek 5-0 galdu dute Ilintxa taldearen aurka

Emakumezkoen erregional mailan, zapatuan jokatu zuen Bergarak Ilintxaren aurkako partidua etxetik kanpo. Gol festa izan zen, baina bergararrek ez zuten lortu golik sartzeko. Markagailua 5-0 zegoela bukatu zen partidua. Bergararrek azkenak jarraitzen dute sailkapenean punturik gabe. Hurrengo partidua Mondraren aurkako izango da.

## Arizmendiko neskek 1-0 irabazi dute Eibar taldearen aurka

Eibar taldea izan zuen aurkari zapatuan emakumezkoen erregional mailako Arizmendiko taldeak eta gol bakarra sartuta, garaipena eskuratzea lortu zuten Arizmendikoek. Sailkapen orokorrean bigarren doaz etxeok eta jokatu dituzten lau jardunaldietan bederatzita puntu lortu dituzte. Hurrengo partidua Mutriuren aurkako izango da.



# MUkoek Valladolid garaituz estreinatu dute EBA liga

Joko azkarrez topatu zituzten aurkarien defentsako zirrikituak arrasatearrek

**EMAITZA**  
VALLADOLID  
**47-53**  
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**MAIALEN TORRES** | ARRASATE  
Zapatuan bide onetik ekin zion Mondragon Unibertsitateko taldeak EBA mailari. Izan ere, lan asko eginda, baina garaitu egin zuten iazko liga irabazle den Valladolid. MUko entrenatzaile Josu Larreategik aitortu duenez, aurrez bazekiten aurkariak fisikoki "gehiago" izango zirela, eta "errespetuz" irten ziren jokalaria kantxara. Horrela, defentsan ondo ibili arren, erasoan arazoak izan zituzten lehen laurdenean jaurtiketak egin eta kanastak sartze-

ko, baina denborak aurrera egin ahala, konfiantza berreskuratu zuten MUkoek. Laurdena bukatzeko bi minuturen faltan markagailuak 21 eta 13 markatzen bazuen ere, 21 eta 23 iritsi ziren atsedenaldira, kontraerasoei eta hiruko bati esker.

"Orduan ohartu ginen irabazteko gai ginela, gauzak ondo egin ez gero", dio Larreategik eta partiduan zehar egindako defentsa lana azpimarratu nahi izan du. Abantailarekin iritsi ziren arrasatearrek partiduan amaierara, eta entrenatzailearen ustez, azken minutuak ondo kudeatzen jakin zuten MUkoek, ez zutelako utzi urduritasunak eta Valladolideko taldearen presioak lortutako tarte gutxitu zezaten.

Jokalaria talde modura aritu izanagatik "pozik" agertu da Larreategi, eta gaineratu du jokorako zituzten helburuak bete zituztela. Izan ere, EBA mailako

jokalaria, "altuagoak eta indartsuagoak" izanik, "zailago egiten dute kanastarako zirrikituak bilatzea", eta arrasatearrek lortu zuten, baloia azkar mugituz.

Urte askoren ostean, beraz, itzuli dira MUkoak Espainiako saskibalo amateurraren ligara. Taldekide gehienek maila horretan esperientziarik ez izan arren, Larreategik prest ikusten ditu jokalaria eta uste du urtean zehar "txukun" arituko direla.

## Zaleen babesa

30etik gora zale joan ziren, MUkoek antolatutako autobusean Valladolidera. Larreategik esan du "asko eskertu" zutela jasotako babesa, Valladolideko kantxan "etxean bezala" sentitu zirelako arrasatearrek. Izan ere, etxekoek eurek baino zale gehiago erakrri zituzten, eta entrenatzaileak aitortu du, hori "oso zaila" dela eta zaleek "meritu asko" dutela.



Mondragon Unibertsitateko mutiak, erasoan. | MONDRABERRI

**JOSU LARREATEGI** | MU TALDEKO ENTRENATZAILEA

## "Baditugu tresnak maila ona emateko"

### Zein helburu duzue denboraldirako?

EBA mailan ez dago aurkari txarrik, baina guk ere baditugu gure tresnak eta aurrera egiteko aukerak ditugula uste dut, oso lehiakorrek garelako eta jokalaria ilusioz beteta dudelako. Dena den, gure helburua kategorian jarraitzea izango da, eta denboraldian partiduz partiduz lana egitea..



IMANOL SORIANO

### Nolako izango da zuen jokoa?

Azken urteetan bezala, joko bizia eta kontraeraso azkarra izango dira gure jokoen ardatz, baina kanpotik ere indarra badugula uste dut, nahiz eta oraindik estatistikek hori ez duten erakusten. Dena den, aurkariak ezagutzea da gako, eta horren arabera gure jokoa zein izango den erabakitzea..

## Partidu gorabeheratsuaren ostean, garaipena poltsikoratu zuen Oñatik

Portugaletekoen ahulguneak euren alde erabiltzen asmatu zuten etxeko jokalariek

**M.T.** | OÑATI  
Erritmo gutxiko partidua izan zen zapatuan Oñatin jokotutakoa. Gorka Judez etxeko entrenatzaileak berak aitortu zuenez, falteko jokoa "asko" moztu zuten, eta horrek partidua "astun" bilakatu zuen.

Lau zatiak "nahiko erraz" irabazi bazituzten ere, Judezen ustez huts gehiago izan ziren egindako tantoak baino eta taldeak ez zuen bere jokorik onena erakusterik izan.

Portugaletekoen aldean, atzean "lan ona" egin zuen Oñatiko taldeak. Dena den, euren alderik indartsuena errebotea izan zen, horri esker kanasta asko sartu eta markagailuko aldea handitzea lortu baitzuten.

Hirugarren laurdenean jo zuen hondoa etxeko jokoa entrenatzailearen esanetan. Izan ere, baloi asko galdu zituzten eta abiadura aldetik nahiko motel ikusi zuen taldea Judezek.

Edonola ere, emaitza ospatzeko modukoa izan zen, eta oñatiarrek "hobetzeko asko" badute ere, pixkanaka euren jokoa definitzen ari direla uste du Judezek, jokalaria ohartzen ari baitira nola jolastu behar duten. Gaineratu zuen astean zehar egindako lanaren eteki-

naren fruituak jaso zituztela zapatuan, joan den jardunaldiarekin alderatuta, "hobekuntza nabaria" izan baitzen.

### Ahulguneak aprobetxatuz

Talde beterranoa da Portugalete, eta Judezek azaldu duenez, "onak dira 5x5eko jokoa eta

**EMAITZA**  
NATRA OÑATI  
**71-51**  
PORTUGALETE

ez dute ez baloirik galtzen ezta arriskutzen ere". Dena den, partidua aurrera egin ahala, nekatu egin ziren kanpokoak, eta euren jokoa "nabarmen behera egin" zuenean, etxekoek "martxa bat gehiago igo" eta aurkariaren ahulgunea abantaila bihurtzen jakin zutela esan du Judezek. Horrela, "eroso" aritu ziren oñatiarrek eta norgehiagoka "gustura" amaitu zuten.



Oñatiarrek, erasoan. | IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

## Alde handiz irabazi, baina kostata

Eskoriatzako neskek indartsu ekin zioten jokoi lehen eta bigarren laurdenean, Bilintxekoei beren jokoa egiteko tarterik utzi gabe. Erakutsitako defentsa sendoari eta abiadurari esker 21 eta 6 amaitu zuten bigarren laurdena, eta hirugarrenean partiduari ihes egiten uzteko zorian egon baziren ere, berpiztu, eta 40 eta 23 amaitu zuten lehia.



IMANOL SORIANO


## Talde jokoz irabazi du Soraluzek

Jokoa sartzea kosta arren, lehen atsedenaldiraren ostean potentziala baduela erakutsi zuen zapatuan Soraluzek, baita taldean jokatzen dakiela ere. Partidu gogorra izan arren, defentsa abila eta barruko joko ona erakutsi zituen taldeak, eta Alde Zaharrikoekin ezin izan zuten etxeko maila fisikoa gaititu. 60-51 amaitu zuten partidua.

## ESKUBALOIA

# Ford Mugarrikoendako partidu zaila izan arren, erraz irabaztea lortu dute

Etxekoak urduri zeuden partidurako eta fase on eta txarrak izan dituzte, baina erasoan nahiko fin ibilita, Loiukoak menderatzeko gai izan dira



**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE  
Arrasatearrendako oso partidu zaila izan zen zapatuan Iturripen jokatu zutena; Urdaneta taldeko aurkariak azkeneko postuan zindoazen sailkapenean eta etxe-koendako oso garrantzitsua zen partiduko bi puntuak lortzea. Presio handiarekin irten ziren jokatzera eta urduritasuna nabari izan zen jokoan. Baina azkenean bi puntuak eskuratzea lortu zuten.

### Fase on eta txarrak

Lehenengo zatian markagailuan nahiko aurretik bukatu zuten



Ford Mugarriko Kepa Isasmendi gola egiteko ahaleginean. | IMANOL SORIANO

Ford Mugarrikoek (15-9). Partidu guztia, baina -bai lehenengo eta baita bigarren zatia ere- faseka jokatu zuten; hamar minututako hiruzpalau fase on izan zituzten, eta oso txarrak izan ziren beste bi fase ere izan zituzten. "Lasaitu egin gara, erritmoa jaitsi dugu eta horrek aurkariei beste era

bateko jokoa egiteko aukera eman die. Fase horretan nik uste dut jokoa nahiko ona izan dela, baina ez dugu lortu partidua apurtzea bukaerara arte. Horregatik, ez nago oso gustura, baina aurrera jarraitu beharko dugu", azaldu zuen Pablo Gartzia Ford Mugarriko entrenatzaileak partidu

ostean. Bigarren zatian markagailuan justuago ibili ziren etxe-koak; fase batean aurkariak lauzpabost goletara gerturatzea lortu zuten, baina etxe-koek taldekideen aldaketa batzuk egin ostean, taldea berregituratu eta azkeneko inpultsoa hartuta, Loiukoek erraz irabaztea lortu zuten.

Aurkariak arinak eta mugikortasun handikoak ziren. Arrasatearrak, berriz, indar gehiagoko jokalariekin jokatzera daude ohituta eta horrelako taldeak etxe-koek nahiko gaizki etortzen zaizkie, izan ere, defentsan ez dute lan on askorik egiteko aukerarik izaten. Loiukoek sistema oso luzeekin jokatu zuten partidua eta hor lortzen zuten aldea. Hala ere, azken minutuetan tentsio une batzuk egon arren eta harmailak ere bero-bero jarri arren, lortu zuten burua hotz mantentzea eta garaipena lortzea. Oraingo, denboraldiko bosgarren partidurekin, hiru garaipen lortu dituzte.

## ARETO FUTBOLA

## Berdinketa gazi-goza Eskoriatzako taldearentzat, Presion Breaken aurka

**MAIALEN TORRES** | ESKORIATZA  
Partidu osoan zehar markagailuan azpitik joan baziren ere, azken unean berdinketa lortu zuen zapatuan talde eskoriatzarrak. Ander Romero etxeko jokalariek aitortu duenez, "akats tontoek" ez zuten barkatu lehen zatian, eta Presion Breaken erritmo bizi eta "joko ona" gehituta, 1 eta 4ko emaitzarekin iritsi ziren atsedendira.

Bigarren erdira, ordea, indarrak berreskuratuta irten ziren eskoriatzarrak, eta gogoz presionatu zituzten Presion Breakekoak. Abiadura irabazi zuten eta lerroak aurreratu zituzten, jokoan tentsioa areagotuz. Azken minutuan, atezaina ere jokalaria zela, gol

erabakigarriak sartu zituzten eta horrela lortu zuten zazpinako berdinketa.

### Jokoaren gakoa, morala

Partiduan izandako gorabeherak taldearen moralak eragin zituela aitortu du Romerok. Taldearen "berpizteaz" hitz egitean, gainera, ez ditu zaleak ahaztu, eta esan du jokalariek asko eskertzen dutela harmailetan izan zen giroa eta zaleen ekarpena.

Partiduaren emaitzari begiratuta, eta hasierako markagailua kontuan hartuz, pozik dago Eskoriatzako taldea, baina, bada-kite, hotzean pentsatuta, irabazi zitekeen norgehiagoka izan zela zapatuan jokatutakoa.



Tentsioz betetako partiduan, lehia estua izan zuten bi taldeek. | IMANOL SORIANO

## TXIRRINDULARITZA

## Gorlako igoeraren 40 urteak erakusketa baten batu dituzte

**M.B.** | BERGARA  
Gaur, urriak 20, hasi eta azaroaren 20ra bitartean 1975-2014 Gorlako igoerako 40 edizio izeneko erakusketa egongo da ikusgai Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Gorlako txirrindulari igoerak 40 urte betetzen ditu aurten eta urteurrena ospatzeko antolatuta du erakusketa Bergarako Lokatza ziklismo taldeak. Bertan, 40 urteotan barrenako ibilbidea egiteko aukera egongo da albiste, kronika, artikulua eta askotariko argazkien bitartez.

Martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era egongo da zabalik erakusketa; zapatutan, 12:00etatik 18:00etara; eta

domeka eta jai egunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

### Herri bazkaria, pilotalekuan

Gaur irekiko duten erakusketarekin batera, herri bazkaria ere antolatu dute urtemuga herritarrekin batera partekatzeko asmoz.

Azaroaren 1ean izango da, Udal pilotalekuan 14:30ean eta 40 urteotako Gorlako igoerako irabazleak gonbidatuta daude bazkarira. 16:30ean, gainera, omenaldia ere egongo da eta baita mahai-ingurua ere.

Bazkarirako txartelak urriaren 26ra arte erosteko aukera egongo da Kortazar, Depor, Arrano eta Sirimiri tabernetan 25 euroren truke.



Alberto Contador (2001), errekorra egin zuen urtean. | GOIENA

## ESKUBALOIA

## Aloña Mendiko neskek lau goleko aldearekin galdu dute Donostian

Bera Berakoek etxean hartu zuten atzo Oñatiko taldea, baina ez zieten bi puntuak ihes egiten utzi nahi izan, eta alde gutxiarekin baina mendean hartu zituzten Aloña Mendikoak. Laugarren jardunaldiko porrotaren ostean, oñatiarrak seigarren postuan daude orain, eta datorren jardunaldian ere kanpoan jolas-tuko dute, Zarautzen.

## ESKUBALOIA

## Bergarako mutilek 28 eta 17 galdu dute Urdulizen aurka

Bergararrek ezin izan zuten Urdulizko taldea etxean garaitu zapatuan. Liga hasi besterik ez da egin, baina ezin esan bergararrek bolada ona dararamatenik, lautik partidu bakarra irabazi dutelako. Datorren domekan izango dute hori aldatzeko aukera, baina ez da erraza izango, sailkapenean lider den Irungo taldearen aurka lehiatuko dira eta.

## MENDIKO BIZIKLETA

## Zapatuan mendiko bizikletak izango dira protagonista Arrasaten

Besaide mendizale elkarte-koek prest dute *Mondran Bike* mendiko bizikleta martxa zapatutako. 09:00etan hasiko da Musakolako kiroldegitik, eta bi ibilbideak, 22km-koa zein 34koa, dagoeneko zehaztuta daude Besaideren webgunean. Gainera *wikiloc*-en GPSrako formatuan deskargatu daitezke. Izen-ematea egunean bertan izango da, 08:00etan hasita.

## ATLETISMOA

## Hilaren 31n amaituko da Antxintxika Krosean izena emateko epea

Aurten ere, Soralezetik Bergarako 10km-ko ibilbidea egin nahi dutenek, izena eman beharko dute txipa lortzeko. Hilaren 31ra arte egongo da zabalik izen-ematea *Kirolprobak.com* webgunean eta 500 partaidetara mugatuko da. Azaroaren 2an egingo da X. Antxintxika Krose, eta goizeko 11:00etan abiatuko dira korrikalariak.

## HITZALDIA

## Futbolari gazteak eta familia hizpide hilaren 30ean, Bergaran

Aldundiaren eta Eibar eta Real Sociedad taldeen eskutik, kirolari gazteen formazioan familiaren babesak duen garrantziaz arituko dira Fran Garagartza, Eibar taldeko idazkari teknikoa eta Luki Iriarte, Realeko formazio arduraduna. Alebin eta infantil mailako gazteen gurasoentzat izango da, Irizar Jauregian, hilaren 30ean, 19:00etan.

**Peru Azkarate** | Txakur-kros lasterkaria

# "Aginduetarako berba laburrak eta tonu irmoa erabali behar dira, txakurrak ondo uler ditzan"

- ▶ 'Argi' txakurrarekin lehiatzen da bergararra
- ▶ Gorlako txapelketan lehiatuko da azaroaren 15ean

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Duela bi urte txakurra erosi eta txakur-kros probatan parte hartzen hasi zen. *Argi* lagun duela Gipuzkoa mailako proba gehienetan parte hartu zuen iaz. Azaroaren 15ean eta 16an Bergaran egongo da, Euskadiko Mushing txapelketan parte hartzen. Peru Azkarate bergararra da.

**Noiz hasi zinen txakurrarekin?**

Orain dela bi urte eta erdi erosi nuen txakurra Iurretako baserri baten. Nire lehenengo txakurra izan da eta propio aukeratu nuen Doberman arraza, berarekin korrika egiteko asmoz.

Txikitatik saskibaloian jokatu izan dut baina ikasketek eta lanak ez zidaten denbora larregi uzten entrenamenduetara joateko. Ostein pare bat Behobia-Donostia egin nituen txakur-krosarekin hasi aurretik. Txakurrarekin korrikan ibiltzeak asko erakartzen ninduen.

**Zergatik aukera zenuen modalitate hau?**

Geroz eta azkarrago korrika egitea erronka bihurtzen da eta txakurrarekin bada askoz gehiago disfrutatzen da. Eta mendiarekin lotuta badago, askoz hobe! Gipuzkoa mailan, txakur-krosean, korrikalari dezente ibiltzen da eta giro ona sortzen da gure artean. Lasterketatan lagun berberak elkartzen gara. Proben aurretik, entrenatzeko ere elkartzen gara.

**Ze txakur daukazu?**

Izaera mantsoa duen bi urteko Dobermana: *Argi*. Korrika egiten edo bizikletari tiraka ibiltzea gustatzen zaio. Lasterketatan arraza ezberdineko txakurrak elkartzen dira eta ikusgarria izaten da, batzuk oso bereziak direlako: Alaskanoak, Malamuteak, Brakoak, Huskyak....

**Zenbat probatan parte hartu duzu?** Aurreko urtean Gipuzkoako txakur-kros gehienetan eta Errioxako baten egon nintzen.

Lasterketatan parte hartzeko txakurrak, txertatuta egon behar du eta, gutxienez, urtebete izan behar du. *Argi*-k urtea bete bezain pronto hasi nintzen lasterketekin. Gipuzkoako lasterketak dira inportanteak: Bergara, Orio, Uliá (Donostia), Tolosa, Zumaia eta Hondarribia.

Korrikalari gehien egoten da proba horietan eta oso ondo prestatzen dituzte probak. Besteak beste, aipagarriak dira Leire Fernandez irundarra Europako txapeldun dena eta Juan Mari Lujan-

bio pasaitarra Espainiako txapeldun dena.

**Nolako probak egiten dituzue?**

10km inguruko lasterketak izaten dira, motzak baina desnibel handikoak. Fisikoki ondo prestatuta egon behar da aldapan gora eta behera eroso ibiltzeko. Ordu erdi eta 40 minutu arteko probak izaten dira normalean.

Lasterketa batzuk herriko kaleetan hasi arren -Tolosan, Zumaian eta Orion esaterako- mendi bideetan barrena izaten dira tramu luzeenak. Bide malurtsuak izaten dira, eta neguko kirola denez, putzu eta lokatz pilo artean ibiltzean erorikoak egoten dira.

Aldapan gora txakurrak asko laguntzen du baina aldapan behera, txakurra tiraka joaten da eta kosta egiten da eustea. Orkatilak bihurtzeko arrisku handia egoten da eta kontuz ibili behar da. **Zuek egiten duzuen modalitatean txakurraren eta pertsonaren arteko konplizitatea ezinbestekoa da?**

**"Izaera mantsoa duen bi urteko Dobermanarekin parte hartuko dut: 'Argi' du izena"**

**"Fisikoki ondo prestatuta egon behar da aldapan gora eta behera eroso ibiltzeko"**

**"Txapelketak bukatzerakoan, txakurra zoriondu eta eskertu behar da"**

**"Txakur-krosak geroz eta zale gehiago ditu; zabaltzen ari den kirola da"**

Txakurra arnes batekin lotzen da. Hasieratik erakutsi behar zaio korrika pertsonaren aurretik egin behar duela. Tiraka joan behar dela.

Normalean ez da arazorik egoten, baina txakur batzuk beste batzuk baino indar gutxiago daukate eta kosta egiten zaie lasterketa osoan tiraka joatea.

Bestalde, txakurra animatzen joatea oso ona da, batez ere aldapa gora denean edo erritmoa azkartu nahi denean. Era berean, oso ohikoa izaten da txakur bat beste batekin lehiari ibiltzea, azkarrago zein den ikusteko. Aldapa behera aldiz, polikiago joateko eskatzen diot.

Bukaeran, txakurra zoriondu eta egindako lanarengatik eskerak ematea garrantzitsua da.

**Zein da garrantzitsuagoa txakurra ala zuek?**

Biak orekatu behar dira. Dena den, txakurra gehiegi behartzea ez da komeni. Bero handia egiten duenean, txakurrarekin kontuz ibili behar da, korrika egin barik, bero-kolperik sufritu ez dezan. **Zein agindu eta nola ematen dizkiozu txakurrari?**

Aginduetarako hitz laburrak eta tonu irmoa erabili behar dira txakurrak erraz ulertzeko.

Pertsona bakoitzak bere aginduak erabiltzen ditu, badira txakurraren arrazaren jatorriaren arabera hizkuntza baten edo beste esaten dituenik ere: frantsesez, alemanez.... Korrika egitean txakurra animatzeko "segi!" edo "oso ondo" esaten diot nik, eta aldapan behera "poliki", besterik ez.

**Bergarako Pol-Pol taldeko kide zaitugu. Zenbat lagun diharduzue?**

Bai, aurtan sortu dugu Pol-Pol medizale elkartearen barruan Mushing taldea. Bergarako Fernando Cobos eta bere emazte Maribi dira presidentea eta diruzaina hurrenez hurren.

Maribiren Subijai umeendako arropa denda izaten da ohiko elkargune hainbat kontu edo material banatzeko. Elgoibar eta Iruñako korrikalariak ere fitxatu ditugu eta nahiko maila altua lortu dugu taldean.

Pozik gaude taldea sortu izanagatik eta orain arte egindako lanarekin.

**Zergatik erabaki zenuten taldea sortzea?**

Txakur-krosa gero eta gehiago zabaltzen ari den kirola dela uste dugu. Ezaugarri ezberdinak bate-



Peru Azkarate eta 'Argi' txakurra. | PERU AZKARATE

ratzen dituen kirola da: mendi-zaletasuna, korrika egitea eta txakurrekiko zaletasuna.

Azaroan Gorlako mushing txapelketa jokatu da, iaz bezala, baina aurtan bultzada berria

eman dura izan diogu eta Euskadiko txapelketa absolutua izango da. Azaroaren 15ean eta 16an jokatu da Gorlako kantina inguruan hasiko den ibilbidean, lau modalitateetan.

## Euskadiko Mushing txapelketa

Gorlako Mushing txapelketa, Euskadiko Txapelketa absolutua izango da. Lau modalitateetan banatu da: lau txakurrek tiratutako gurdiak, bizikletak, patinak eta txakur krosa.

Azaroaren 15ean, zapatuan, arratsaldean lau proba jokatu dituzte: federatuendako txakur-krosa, bi txakurrek tiratutako patinak, txakur batek tiratutako bizikleta eta lau txakurrek gidatutako gurdiak. Guztiek, ibilbide laburra egingo dute: bost kilometrokoa.

Domekan beste lau proba egongo dira: patinetakoa, bizikletakoa eta gurdiena errepikatu egingo dituzte. Ibilbide laburra egingo dute berriro. Aldaketa bakarra, txakur-kroseko proban egongo da: 7,8 kilometroko ibilbidea egingo dute federatuek eta amateurrek batera. Federatuak bost minutu lehenago irtengo dira. Azken proba horretan 90 bat korrikalari hartuko dute parte, tartean, Fernando Cobos eta Peru Azkarate bergararrak; bizikletan 12 batek eta gurdiekin sei batek.

Ibilbide biak Gorlako kantinaren inguruetan egokituko dituzte eta sari banaketa ekitaldia ere han egingo dute.

# Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



<p><b>Markiegi</b></p> <p><b>MARKIEGI JANTZI DENDA</b> Olarke kalea 2   Arrasate Produktu guztietan %10eko deskontua.</p>	<p><b>MIREN GARAI</b></p> <p><b>MIREN GARAI</b> Zarugalde kalea 23, 2 ezk. Arrasate Tel.: 943 799 690 Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskuetako tratamendua doan.</p>	<p><b>LONBIDE</b> OINETAKOAK</p> <p><b>LONBIDE Oinetakoak</b> Bidekurutzeta kalea 5, Bergara Produktu guztietan %10eko deskontua.</p>	<p><b>ML</b></p> <p><b>ML Ile-apaindegia</b> Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea, Arrasate / Tel.: 943 797 965 "Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua. Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.</p>	<p><b>Nebraska</b> TABERNA</p> <p><b>NEBRASKA taberna</b> Zarugalde 35 - Arrasate Tel.: 943 79 09 39 Mahou garagardo botila, euro bat bazkideentzat Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxo doan Interneteko menuetan %5eko deskontua</p>
<p><b>SARA MERENDERUE</b></p> <p><b>SARA MERENDERUEA Jatetxea</b> Meatzerreka auzoa 19, Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate Tel.: 943 77 15 86 Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko). Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).</p>	<p><b>TABERNA-BERRI</b> JATETXEA</p> <p><b>TABERNA-BERRI Jatetxea*</b> Durana kalea 26, Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67 Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide- txartela erakutsiz gero; Astelehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.</p>	<p><b>ZABALA</b> Jatetxea</p> <p><b>ZABALA Jatetxea*</b> Labegaraieta 14, Bergara Tel.: 943 76 42 57 Zabala jatetxeko otorduetan bazkide- txartela erakutsiz gero; Astelehenetik larunbatara, eguneko menuan, bazkarian kafea doan</p>	<p><b>ARGIA</b></p> <p><b>ARGIA Aldizkaria</b> www.argia.com %25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).</p>	<p><b>NAREN</b></p> <p><b>Fisioterapia eta osteopatia zentroa</b> Belorrieta 5 behea   Aretxabaleta %15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).</p>
<p><b>Esko Sport</b></p> <p><b>ESKO SPORT Kirol denda</b> Intxaurtueta 5   Eskoriatza Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.</p>	<p><b>JAUJA KIROLAK</b></p> <p><b>JAUJA KIROLAK</b> Irizar pasealekua 1 behea, Bergara Produktu guztietan %5eko deskontua.</p>	<p><b>LILURA</b> EDERTZE INSTITUTUA RPS: 299/13</p> <p><b>LILURA EDERTZE INSTITUTUA</b> Estetika zentroa Bidekurutzeta 7   Bergara %15a laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari). %20eko deskontua elikagai intolerantzia proban. %10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak. %10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan. Bazkidearentzat eta lagunarentzat</p>	<p><b>MAGDALENA</b> GASOLINDEGIA</p> <p><b>MAGDALENA Gasolindegia</b> Santxolopetegi auzoa   Oñati %2ko deskontua gasolindegian erregeia erosit.</p>	<p><b>OÑATI GARAJEA</b></p> <p><b>OÑATI GARAJEA</b> Autoen garaje. Konponketak Goribar Auzoa 9   Oñati Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.</p>
<p><b>eureka!</b> zientzia museoa</p> <p><b>EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia</b> Mikeletegi 43-45   Donostia Sarrera bat erosituta eta kupoiak Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.</p>	<p><b>lastai</b></p> <p><b>LASTAI</b> Koltxoak eta umeentzako artikuluak Arkatza 1, 49 Pab   Gasteiz %5eko deskontu gehigarria helduentzako atseden arloan. %5eko deskontua haur kotxe eta automobilerako segurtasun - aukietan. %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobilerako segurtasun-aukietarako denboraldiko ehun-gaietan. %10eko deskontua denboraldiko hau-arropan. (Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).</p>	<p><b>Portaloí</b> Optika RPS: 262/13</p> <p><b>PORTALOI optika</b> Erdiko kalea 10, Arrasate %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).</p>	<p><b>kuttuna</b> ESTETIKA ZENTROA RPS: 285/13</p> <p><b>KUTTUNA Estetika</b> Aranburuzabala 19, behea   Eskoriatza %5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).</p>	<p><b>ALZU</b></p> <p><b>ALZU, S.L Ehiza eta arrantza</b> Arantzazuko Ama, 2   Oñati Arropetan %10eko beherapena.</p>
<p><b>caravanas</b> Oñate</p> <p><b>CARAVANAS OÑATE</b> Galdaragintza. Bizikletak Oladui Zuhaitza, 25   Oñati 50€-ko erosketara egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).</p>	<p><b>AVIA</b> ESTACION SERVICIO ARRASATE</p> <p><b>ESTACION SERVICIO ARRASATE</b> Gasolindegia San Andres 7   Arrasate %2ko gasolindegian erregeia erosit. %2ko dendako produktuetan.</p>	<p><b>gahir</b> fisioterapia osteopatia RPS: 320/13</p> <p><b>GAHIR Fisioterapia / Osteopatia</b> Aranburuzabala 6 behea   Eskoriatza %50eko deskontua lehenengo kontsultan.</p>	<p><b>NINIKÁ</b> LORADENDA</p> <p><b>NINIKÁ Loradenda</b> Ramon Maria Lili, 8   Bergara %10eko deskontua artikulu guztietan.</p>	<p><b>GAES</b> Centros Auditivos Entzumen zentruak</p> <p><b>GAES Entzumen zentroa</b> Otalora 18   Arrasate Zurradero 10   Bergara %10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)</p>

\* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

## GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goian jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 15 €. | 943 25 05 05  
kluba@goiena.com | goienakluba.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# KULTURA

## Txapa Irratiaren maratoia: belarrien eta begien gozagarri

- ▶ 30 urtetako ibilbidea ospatu eta irudikatzeko, 30 ordutako irratsaioa
- ▶ Txapa Irratia entzungai: FM 97.20an eta *txapairratia.org* atarian



Txapa Irratiko maratoian parte hartu zuten kide batzuei ateratako talde argazkia. | JOSETXO ARANTZABAL



Humorez hasi zuten maratoia. | I. S.



Esataria teknikari lanetan. | I. S.



Lekeitioko Deabru Beltzak antzerki taldea Txapako maratoian izan zen. | I. S.



Irratia autofinantzatzeko kamisetak eta edariak saldu zituzten. | I. S.



Zapato eguerdian egin zuten *Hau mundu bitxia* irratsaioa. | IMANOL SORIANO



Sua Sanchez neskatilak haurrentzako saioan ederto abestu zuen. | J. A.

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA  
Kaletik, entzuleen begien aurrean irratsaioak eginez ospatu dute herriko irrati librearen 30. urterena asteburuan; Seminarioko karpa bihurtu dute Txapa Irratiko estudio nagusi. Zapato gaueko irratsaioak, berriz, gaztetxetik egin zituzten, bizilagunei zaratak saihesteko asmoz. Horrez gainera, atzo, domeka eguerdian, udal pilotalekuarekin zuzeneko konexioa egin zuten Udal Musika Bandaren kontzertua uhinen bitartez ere eskainiz horrela.

### 30 ordu, isildu barik

Askotariko herritarrak batu ditu etenik gabeko 30 ordutako irrati maratoiak; hesiaren alde batetan, askotariko estilo eta gaiak jorrazten dituzten saioetako esatariak eta teknikariak ziren, eta baita askotariko gonbidatuak ere: musikariak, gaztetxeko bertso eskolako bertsolariak eta ipuin kontalariak, horien artean. Hesiaren beste aldean, normalean ezkutuan izaten diren askotariko adin eta zaletasunak dituzten entzuleak; belarriak gainera, begiak ere gozatzeko aukera izan dutenak orangoan.

Denboraldi berriko irratsaioen aurkezpena, askotariko gaiei buruzko saioak, Txapa Irratiaren historiaren gainbegiratuak, zuzeneko musika emanaldiak, bertso saioa, Deabru Beltzak antzerki taldearen ikuskizuna, Errekaren Astearen baitan antolatutako erreka garbiketa ekimenaren zuzeneko kontakizuna.... horiek, besteak beste, asteburuan, FMko 97.20an erakutsi dituztenak.

### Ospakizun gehiago

Asteburuko maratoia ez da baina 30 urteko ibilbidea ospatzeko antolatu duten ekintza bakarra; bi kontzertu ere egongo dira. Azaroaren 1ean eskarmentu handia duen herriko Fly Shit tal-

### Berritasunak aurtan, parrilan

lazkoaren bidetik dator aurtengo parrila, hitzekin eta musikarekin betez 24 orduak. Kartzela zaharrean ekoiztiko 22 saio eskainiko dituzte. Horien artean hiru berri daude: *Jasangarritasunaren bidean* (ingurumenari buruzkoa), askotariko kultura arloak jorratuko dituen *Cabaret Voltaire* eta *Gvero* eguenetako saioa.

Arrosa Irrati sareko hainbat saio ere izango dira FM 97.20an: *Kalegorrian* (Info 7), *Suelta la olla* (Hala Bedi eta Eguzkirena) eta *Zebra*bidea (Arrosa).

> deak eta Fernando Sapok gidatzen duen taldearen, Estricalla taldearen, kontzertua egingo dute gaztetxean; eta azaroaren 30ean, berriz, Aitor Escobarren flamenko emanaldia.

Azaroaren 15a ere gorriz markatuta dute Txapa Irratiko egutegian, urteurren eguna ospatuko dute-eta. Bazkari herrikoia eta Arrasateko The Potes taldearen emanaldia, besteak beste, prestatutakoak.

#### Artekaletik gaztetxera

Herriko lau gaztek sortu zuten 1984an Txapa Irratia. Garai hartako EMK elkarteak utzitako lokalean hasi ziren uhineratzen, sortu berria zen Gasteizko Hala Bedi irrati teknikari batek egindako emisorea erabilita. Herriko kolektibo asko gerturatu zitzaizen irrati goseaz; 40 irratsaio egitea lortu zuten orduan. Barne antolaketan hobetze aldera, emisioa eten zuten irratiaren aldeko sentsibilizazio kanpainarekin jarraitu bazuten ere.

1989an erreleboa hartu zuten beste gazte batzuk; Udalarekin adostuta, Zabalotegiko sotoan kokatu zuten irrati estudioa. Gaztetxeko asanbladako kideek hartu zuten segidan lekukoa eta Kartzela Zaharra gaztetxea bilakatu zutenen, bertara eraman zuten irrati. Garai modernoa hasi zen orduan: ordenagailuekin eta Arrosa Irratia sarearekin elkarlanean, 24 ordutako emisioa egitea lortu zuten Bergarako irratiak.

#### KEPA LETURIA ANTOLATZAILEA

"Irratia herrira baino, herria irratiara ekarri gura izan dugu maratoiaz"

Lo gutxi eginda eta nekatuta bazeuden ere pozik ziren Txapa Irratiko maratoian parte zuten esatari eta teknikariak.

#### Lan handia izan da, baina gustura emaitzaz?

Bai, oso pozik. Aurreikusten genuen moduan, arazo tekniko batzuk izan dira, baina gaingitu ditugu eta, beraz, gustura gaude egindako lanaz. Gerturatu da Seminaria jendea, beraz, helburua beteta.

#### Zeintzuk dira aurrera begira dituzuen erronkak? Nola ikusten duzue etorkizuna?

Lehenik eta behin urteurrenko ospakizunak borbiltzea, irrati ohiko mar-txa alboratu barik, noski. Etorkizun oparoa duela esango genuke, poliki-poliki bada ere, jende berria hurbildu zaigu-eta aurten ere.



LANDER JUARISTI ETA  
UXUE ZABALETA  
IPUIN KONTALARIAK

"Haurrentzako liburu gomendioekin, kantuekin eta ipuinekin ordubeteko irratsaioa osatu dugu. Laguntzailea ere izan dugu: Sua Sanchez neskailak abestutako *Nikaragua Nikaraguita* kantua erekin hunkitu egin gara. Oso eroso eta gustura sentitu gara kaleko estudioan".



IRENE LARRAÑAGA ETA  
IDOIA LARRAÑAGA  
ESATARIAK

"Hileko azkeneko domekan egiten dugu *Bergara Sutan* saioa eta Gaztetxeko asanbladako ekitaldien berri ematea du helburu. Urteetako ibilbidea du; guretako bigarrena da aurtengoa".



UGUTX BASAURI  
ESATARIA

"Nola aldatzen diren *gauzak* ordubeteko saioa egiten dugu lau lagunengan eguztenetan (22:00). Gai baten gaineko monografikoak egiten ditugu astero. Irratsaioak egiteak engantxatu egiten du".



SAIOA BARDEZI  
ENTZULEA

"Umearekin etorri naiz ipuinak entzutea. Badut Txapa Irratia entzuteko ohitura eta umeari ere jartzen diot, musika entzuteko aitzakiaz gehienbat. Interesgarria iruditzen zait Txapa Irratia, horregatik, bada, bultzatu beharrekoa".

# Hamaikagarrenez abestuko du Goikobaluk, 'Carmina Burana' obra ezaguna

Emanaldirako sarrerak, 18eurotan daude salgai

A. A. | ARRASATE

1991. urtean abestu zuen Arrasateko Goikobalu abesbatzak lehenengoz, Carl Orff alemaniarrak konposatutako *Carmina Burana* obra. Beste bederatzi alditan kantatu zuten gero, herrian birritan, Euskal Herriko beste herri batzuetan eta baita Madrilen ere. Azaroaren 15ean Amaia antzokian egingo duten kontzertuan, hamaikagarrenez hartuko dituzte obra beraren partiturak eskuetan. Arrazoa edo aitzakia, abesbatzaren 25. urteurrena ospatzea.

18 eurotan daude dagoeneko sarrerak salgai. Amaia antzokiko leihatilan eskura daitezke edo on-line bestela: [arrasate-mondragon.org](http://arrasate-mondragon.org) eta [ticket.kutxabank.es](http://ticket.kutxabank.es) helbidetan.

**Kanpotik ere badatoz abestera**  
Garai ezberdinetakoa Goikobaluko abesbatzako kideak dira tau-

laren gainera igoko diren gehienak, baina badira herriko Txorbela otzotekoak ere eta baita egun bertan behera dagoen Tolosako Orfeoikoak ere. "Urteurrena gurekin ospatu gura zutela esan ziguten. Sekulako ilusioarekin ari gara guztia prestatzen. Gura nuke, kontzertua egin eta gero ere, ilusio horrek irautea", dio Juan Antonio Barriocanalek, Goikobaluko presidentek.

#### Goi mailako bakarlariak

Ainhoa Garmendia (sopranoa), Pablo Ruiz (baritonoa) eta David Azurza (Kontratenorea) abeslariak osatutako dute azaroaren 15eko Amaia antzokiko kontzertuko abeslarien zerrenda.

Abeslariak gainera Arrasate musikaleko perkusio orkestra eta piano-jotzaileak ere izango dira (Rakel Murgiondo eta Arturo Goikoetxea).

#### ESANAK

"Ilusioarekin ari gara emanaldia entseatzen"

JUAN ANTONIO BARRIOCANAL  
GOIKOBALUKO PRESIDENTEA

#### DATUA

100  
ABESLARI

Goikobalukoez gainera, kanpotik etorritakoak ere bai.

## Zezenzaleei eskainitako pasodobleak, harrera ona

Igor Larrañagak gidatu zuen banda, 'Bergarako zezenzaleak'-en estreinaldi kontzertuan

MAIALEN TORRES | BERGARA

Udal pilotalekua bete egin zen atzo, domeka, Bergarako Zezenzale Elkartearentzat Igor Larrañagak bereziki konposatutako pasodoblearen aurkezpen kontzertuan. Bergarako bandak hileroko egiten duen kontzertuan egin zuten estreinaldia, eta Larrañagak berak

zuzendu zuen. Bi urte inguru eman ditu bergararrak obra konposatzen, eta "ordu askotako" lanaren emaitza jendaurrera aurkeztuta "pozik" agertu zen.

Pasodoblean klarinetari eman nahi izan dio garrantzia Larrañagak, maiteen duen instrumentua delako, eta atzokoan, bakarlari

lanetan jarri zuen Jokin Mendiatz laguna. Zezenzaleen Elkartearen kide Iñigo Almortza ere laguna du, eta hari eman zion atzoko pasodoblearen partitura, ekintza sinboliko gisa. Txalo artean hartu zuten herritarrek *Bergarako zezenzaleak* obra, eta izandako arrakasta ikusita, etorkizunean oihartzuna izatea espero du Larrañagak. Izan ere, zezenzaleek euren ekintza guztietan jarriko dute doinu berria.

Bi urteko lanaren ondoren, konposaketari dagokionean atse-den hartzea erabaki du Larrañagak, baina ez dizkio ateak itxi nahi etorkizunean beste piezaren bat sortzeko aukerari.



Pasodoblearen partiturak Zezenzale Elkarteari eman dizkio Larrañagak, eta orogarrria jaso du trukean. | JOSETXO ARANTZABAL

# Bertakoek borobildu dute organo zikloa

Aitor Olea organo jotzaileak eta Bergarako Orfeoia maisuki itxi dute organo erromantikoaren XV. zikloa

M.B. | BERGARA

Organo Erromantikoaren Nazioarteko XV. zikloak amaiera borobila izan zuen zapatuan. Aitor Olea organo jotzaileak eta Bergarako Orfeoia itxi zuten hiru kontzertuko zikloa, bi zati oso bereizi izan zituen kontzertuarekin.

Begarako Orfeoia ireki zuen emanaldia Xabier Maria Munibe, Peñafloredako kondearen hiru obra *-Irtzen ezazu, Kurutz bidea eta Ave Maria- a capella* abestuta, aldareko mailetan eta Aitor Biainen zuzendaritzapean. 250

urte betetzen dira aurten Xabier Maria Munibek bultzatuta, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarrekin sortu zela eta baita ere, Munibek berak *El borracho burlado*, euskaraz abestutako lehen opera Bergarako osoko bilkuren aretoan estreinatu zuela, eta bi urtemuga horiei keinu egin nahi izan zien Bergarako Orfeoia zikloaren itxiera-kontzertuan.

**Bigarren partea, konplexuagoa** Kontzertuaren bigarren atala Aitor Olea organo jotzaileak ire-

ki zuen Mozartek konposatutako azken obrarekin, *Fantasie für eine Orgelwalze f-minor KV608* obrarekin. Segidan, elkarrekin aritu ziren Olea eta Bergarako Orfeoia, Mozarten *Requiem D-moll KV626* lanaren zenbait pasarteekin. Urteak dira Olea organo jotzaileak eta Bergarako Orfeoia elkar ezagutzen dutela, eta hori nabaria da bai aukeratu zuten egitarauan; baita interpretatzerakoan ere. Emanaldia orfeoia itxi zuen, Haendelen *Messiah*-ren pasarte sonatuenekin.



Begarako Orfeoiko kideak eta Aitor Olea organo jotzailea Santa Marina parrokiako koruan. | IMANOL SORIANO

## Amets-kabi erakusketak artisten eta bisitarien arte-goseak asetu ditu

A. ARANBURUZABALA | ARANTZAZU

Zapore gozoaz itxi zuten atzo, domeka, Gandiaga Topagunean izan den Amets-kabi erakusketa. Chillida, Basterretxea eta Oteizaren oinordekoak izan diren Iñigo Arregi, Ricardo Ugarte, Jose Ramon Anda, Jose Zugasti, Iñaki Ruiz de Eguino, Iñaki Olazabal, Koldobika Jauregi eta Guillermo Olmo eskultoreen hiruna

lan erakutsi dituzte hilabetez Gandiaga Topaguneko sarreran eta La Horga aretoan, Arantzazu Gaur Fundazioak eta Arantzazuko Adiskideak elkarlanean.

1.325 bisitari izan ditu bildumak. "Kopurua deigarria den arren, erakusketak sortu dituen sentimenduei ematen diegu garrantzia. Bildumako piezen kalitateaz gainera, katalogoaren

edizioa eta erakusketak erakutsi duen artisten arteko batasuna nabarmendu dute bisitariak. Piezek batak bestearekin, elkarrekin berbetan zeudela ziruditela esan digute bisitari askok", azaldu du Juan Biain, Arantzazu Gaur Fundazioko kudeaketa arduradunak eta zera gaineratu du: "Txalagarria da Xabier Saenz de Gorbea, komisarioaren lana".

**Hazi berarekin, lore gehiago**

Erakusketa beste herri batzuetara eramateko eskaera egin diete hainbat bisitari, eta euren eskuetan ez dagoen arren, sortutako hazitik lora gehiago ateratzeko ahalegina egingo dutela diote antolatzaileek.

Artistak ere oso pozik daude eta elkarlanean jarraitzeko proposamena egin diete. "Sarritan etorri dira bisitan eta hainbat lan saltzeko tratua ere egin dituztela esan digute", dio Biainek.



Erakusketara atzo, hurbildu ziren bisitari batzuk lanei begira. | JUAN BIAIN

## 'Granujas a todo ritmo' ikuskizunak irekiko du egunean Bergarako txotxongilo mostra

Txotxongilo erraldoiekin egindako kaleko musika ikuskizuna da; 19:00etan hasiko da

M.B. | BERGARA

Egunean abiatuko da Bergaran Taun Taun txotxongilo taldeak antolatutako Nazioarteko Txotxongilo Mostra.

Kantabrietik etorriko den MG Produccionesen *Granujas a todo ritmo* emanaldiarekin irekiko dute. Txotxongilo erraldoiekin egindako kaleko musika ikuskizun ibiltaria da eta 19:00etan hasiko da. Pintxo-pote egunarekin egingo du bat, gainera, eta hori ere kontuan izan dute antolatzaileek mostra irekitzeko kaleko ikuskizun hori aukeratzeko orduan.

*Granujas a todo ritmo* bergararrak zein bisitariak *rhythm'n'blues* doinuekin dantzan jartzeko prest kalera aterako den musikari alproja taldea da. Jack eta Elwood txotxongilo erraldoiekin batera, saxoa, tronboia, tronpeta, tuba, danborra eta dunbala izango dituzte lagun.

Blues Brothers taldearen eta blues estandarren abestiek osatzen dute errepertorioa.

Egunean hasi eta hilaren 26ra arte bederatzik ikuskizuneko aukera egongo da Bergaran. Egitarau osoa [www.goiena.eus](http://www.goiena.eus) atarian.



Granujas a todo ritmo. | TAUN TAUN

**KURSAAL  
ESZENA**

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



[www.kursaal.org](http://www.kursaal.org)

**CHRISSIE HYNDE**  
("The Pretenders" taldeko abeslaria)

Kursaal Auditorioa



**Asteazkena 22 / 20:00**

Urria 2014

45 €

**SARREREN SALMENTA**

[www.sarrerak.kursaal.org](http://www.sarrerak.kursaal.org)


[www.entradas.diariovasco.com](http://www.entradas.diariovasco.com)

**Kursaal Leihatila**


Astelehenetik ostiralera: 11:30-13:30. Eta ostegun, ostiral eta larunbatean baita ere 17:00tik 20:00tara.

**ORDU  
GAZTEA  
<30  
<30MIN  
3€**

**Babeselek:**



**Laguntzaileak:**



Belen Azkarate | Antzerki irakaslea

## "Gure benetako izaera ezagutu eta azaltzen laguntzen digu antzerkiak"

Esperimentatuz, norbera ezagutuz eta elkarri entzunez, antzerkiarekin ondo pasatzeko testuingurua sortu nahi du Belen Azkarate irakasleak Elgetan

MAIALEN TORRES | ELGETA

Ipuin kontaketa munduan eman zituen Belen Azkaratek lehen pausoak, clown antzerkira salto egin baino lehen. Ahozko-tasuna eta antzerkia betidanik gustatu izan zaion arren, Virginia Imazen bultzadari esker kendu zituen jendaurrean aritzeko beldurrak eta lotsak. Oraingoan ere, haren gidaritzapean arituko da Espaloiak eskainiko dituen antzerki tailerretan, irakasle lanetan.

Azaroaren 7an hasita ekainera arte, ostiralero bi saio egingo dituzte. Zortzi eta hamaika urte bitarteko umeekin bata (17:00-18:30), eta hamaika eta hamahiru artekoekin bestea (18:30-20:00).

**Gustura aritzen al dira haurrak antzerkian?**

Umeentzat ez da batere eremu arrotza, mundu sinbolikoan bizitzera ohituta baitaude. Bertan, edozer gauza sinetsi, egin edo izan daitezke, mugarik gabe. Mari-gorringo bat izan nahi badute, arazorik gabe asmatuko dute horren inguruko istorioren bat. Eurentzat jolas bat da, eta hala-ze izatea nahi dut, ondo pasatzeko, elkarrengandik ikasteko eta lotsarik gabe aritzeko testuingurua sortzea baita helburua.

**Nolakoak izango dira saioak?**

Edonorentzako lekua egingo da saioetan, helburua ez baita aktore bikainak sortzea, ondo pasatzea baizik. Horregatik, ume bako-



Belen Azkarate, Antzuolan. | JULEN IRIORDO

tzaren erritmoaren eta gaitasunen arabera egokituko ditugu saioak. Esperimentatuz, norbera ezagutuz eta elkarri entzunez zerbait eraikiko dugu denon artean kurtsu amaierarako, baina oraindik zehaztu gabe dago, ikasleen nahien arabera erabakiko baitugu zer egin. Eskolatik kanpoko zerbait denez, giro informalean eroso aritzeko aukera izango dugu.

**Zer landuko duzue?**

Antzerkia era ludikoan landuko dugu, baina bidean harremanak, euren gorputzaren ezagupena eta autoestimua ere garatuko dira. Dena den, ia edozein gai lantzeko erabili daitekeen tresna da.

**Zer da zuk tailerretan umeengandik jasotzen duzuna?**

Egia da horrelako ekimenetan eman baina gehiago jasotzen dugula guztiok. Izan ere, oso elkarrekin aberasgarria sortzen du antzerkiak. Oraindik ez ditut Elgetako tailerreko partaideak ezagutzen, baina argi daukat, orokorrean, asko dugula ikaste-umeengandik. Gutxien espero dugunean harrizten gaituzte.

**Zein leku izan behar luke antzerkiak hezkuntzan?**

Beste edozein ikasgai bezain garrantzitsua dela uste dut. Izan ere, norbere burua ezagutuz, gizartearen aurrean garen moduan agertzeko ditugun beldur eta lotsak ezabatzen laguntzen digu. Gainera, eguneroko bizitzarako balia bideak eskaintzen dizkigu.

## Maskulinitatearen lanketa, aitatasuna indartzeko

Gizon izatea zer den hausnartu eta birplanteatuko dute zapatuan Iñaki Kasaresen gidaritzapean

MAIALEN TORRES | ARETXABALETA

Zapatuan maskulinitatea lantzeko tailerra egingo dute Aretxabaletan, Iñaki Kasares santurtziarraren eskutik. Abiapuntu gisa, egungo testuinguruan gizon izatea zer den izango dute hausnarketa gai, eta bizipenak elkarbanatuko dituzte. Hortik aurrera, datozen saioetarako eztabaida gaiak partaideen interesen arabera hautatuko dituzte.

Bost tailer egingo dituzte gutzira urtean zehar, guztiak ere zapatu goizetan, 10:00etatik, 13:00etara. Izen ematea Arkupe Kultura-etxean egin behar da,

eta bihar da horretarako azken eguna. Kasaresek azaldu duenez, tailerrak gizona koontzat soilik izango dira oraingoan, "denok dugu sexismoa oso barneratuta, gehiago edo gutxiago, baina tailerra gizonen aldaketara dago bideratuta" esan du.

**Aitatasuna birplanteatuz**

Kasaresen ustez, izaera "gizarte-ko genero rolen arabera" eraikitzen da egun, eta horrek "erabat" baldintzatzen du emozioekiko harremana bizitzeko modua. Berdin eragiten dio aitatasunari ere, "zaintza lanak emakumei eslei-

tu" izan baitzaizkie. Kasaresen ustez, ordea, hori "kolokan jartzeko garai egokia" da, gizonari ulertaraziz "zaintza lana, gogorra izan arren, aberasgarria eta gozatzeko modukoa" ere badela, eta, noski, "guraso guztien ardura".

Aitatasuna bizitzeko, baina, eredu perfektu bakar bat ez dagoela defendatzen du Kasaresek, "errealitate desberdin asko" daudelako. Dena den, haren esanetan bada derrigorrez mantendu beharreko ardatz bat: maitasuna. Izan ere, umeek, besteak beste, arreta, denbora, errespetua eta tratua ezinbestekoa dutela uste du santurtziarrak.

Ikastaroaren bidez, orain arteko aitatasun eredu "zurrunetik" alden du eta eredu "ireki eta malguago bat" sustatu nahi du Kasaresek. Gizonak mundu emozionalera gerturatuz, harreman sendoagoak sortu eta gizarte justuago bat eraikitzeko bideari ekin nahi dio tailerren bidez.

## Zergak izango dituzte aztergai bailarako sei ikastetxetan

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

Iazko ikasturtean Gipuzkoako Ikastola, Kristau Eskola zein Eskola Publikoko bina ikastetxetan fiskalitatea lantzeko unitate didaktikoa landu zuten proba pilotu gisa. Ikastetxeok esperientziaren balorazio "oso ona" egin zuten, eta datozen ikasturteetan proiektuarekin aurrera egiteko nahia azaldu zuten. Horien artean izan zen Txantxiku ikastola, eta unitate didaktikoaren diseinuan ere hartu zuten parte.

Nagore Altubek Andoni Zendoiarekin batera egin zuen lan proiektuaren diseinuan eta horrela gogoratzen ditu hastapenak: "Mondragon Unibertsitatetik HUHEZIKO arduradunak Txantxiku ikastolara etorri zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eskaintza honetan gure kooperazioa eskatuz. Proposamena hasieratik interesgarria iruditu zitzaigun eta aurrera egin genuen proiektuarekin".

Bailarako sei ikastetxetan landuko dute gaia, eta Gipuzkoa osoan, guztira 19 ikastetxek hartuko dute parte proiektuan. Zergen eta zerbitzu publikoen inguruan ikasleen kontzientziazio maila areagotzeko helburuz abiatu dute ekimena, Gipuzkoako Diputazioko Ogasun departamenduaren laguntzaz.

Besteak beste, zergak zer diren eta nola kalkulatu diren ezagutuko dute ikasleek. Era berean, zergen ordainketa eratorritako zerbitzuak zeintzuk diren ere ikasiko dute, baita iruzur fiskala zer den eta zein eragin dituen ere. Altubek azken alor hau ezagutzea "ezinbestekoa" dela azpimarratu du.

**Hezkuntza, iruzurraren aurka**  
Zerga heziketako arduradun den Isidro Esnaolak argi du zerga iruzurraren aurkako borrokan, ikuskaritza bezain garrantzitsua dela hezkuntza. Azaldu duenez, ildo horretatik abiatu zen proiektua "zergak zergatik ordaintzen diren eta ongizate estatua nondik datozen azaltzea" baitzen helburua.

Eskoletan zegoen "hutsu-neari" erantzuteko sortu zuten unitate didaktikoa, "gaiari buruzko hausnarketa bultzatu nahi genuen ikasleengan" dio Esnaolak. Izan ere, sentsibilizazioarekin, etorkizuneko gizarte iruzurraren arazoa sustarrietatik moztea espero dute.

Esnaolak aitortu du, oraingoz unitate didaktikoa baino ez den arren, gaia curriculumean txertatzea gustatuko litzaiekeela, baina erabaki hori hezkuntza komunitatearen esku utzi behar dela.

### ERREZETA

#### Gaur afaltzeko: pizza, etxean egindako orearekin

M.T. | ARRASATE

Ezer baino lehen, oreka egiteko, 400gr irin, 200ml ur, bi koilarakada olio eta gatz apur bat izan behar dira prest mahai gainean. Ontzi batean, irina bota, eta sumendi baten antzera, zuloa egin behar zaio erdian. Ondoren, zulo horretara gatz ura eta olio bota, eta eskuekin oratu behar da, nahasketa oreka uniforme eta ez itsaskor bihurtu arte.

Orearekin lanean hasi baino lehen, bere horretan utzi behar da minutu batzuek. Behin denbora hori igarota, mahai gaina irinez hautsez-tatu eta oreka arrabolaz zabaldu behar da, oreka findu arte.

Norberaren gustuko osagaiak gehituta, labeko erretiluan jarri aurretik, labeko papera jartzea ezinbestekoa da. Azkenik, labea aurrez 180 gradutara berotu, 15 minutuz bertan sartu eta jateko prest izango da pizza.

### IRTEERA

#### Irunberriko arroilan barrena, sai zuri eta arreen hegapean

M.T. | ARRASATE

Irati ibaiak urteetan zehar higatutako kareharrian barrena, eta tren zahararen ibilbideari jarraituz ezagutu daiteke Irunberriko arroila.

130 metroko labarrak sai zuri eta arreen bizileku dira eta lotsarik gabe ibiltzen dira hegatan, bisitarien zelatan.

Ibilbidea erraza da, lagunartean zein haurrekin egiteko modukoa, eta gainera, bi aukera eskaintzen ditu. Motzenak, 2,5km-koak, Irati ibaiaren ertzetik egiten du joan-etorria, Iratiko tren zahararen bi tunel zeharkatuz. Luzea (5,5km-koa), berriz, zirkuitu antzeko bat osatuz, arroilaren goialdetik hasi eta bueltan ibilbide motzarekin elkartzen da.

Ibilbidearen hasieran autoa parkingean uzteko aukera dago, 2 euroren truke, eta hamaiketako egiteko mahai proposak ere badaude.





LAIA

GURE MUSIKA TALDEAK



Mikel Cubillo aretxabaletarra Laia taldearekin zuzenean. | LAIA

# "Ez zaigu axola ikusle bakarria edo ehunka egotea, disfrutatzea da gure helburua"

- ▶ Mikel Cubillo aretxabaletarrak 'Diamanteak' lana grabatu du bilbotarrekin
- ▶ Scam-ekin jotzen zebilela ezagutu zuen Laia tadeko 'Juanmi'

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Mikel Cubillo aretxabaletarrak abentura berri bati ekin zion duela urtebete inguru Bilbon. Laia taldearekin gitarra-jotzaile lanean dabil Cubillo eta irailan kaleratu zuten *Diamanteak* EPa; Bilbo eta Madril artean grabaturiko hiru kantu. Laia taldeak ibilbide luzea du dagoeneko, eta, errepidean kilometro nahikotxo daramaten arren, indarberrituta dago laukotea, *Diamanteak* lana ahalik eta txoko gehienetara eramateko prest; tartean, gurera etortzeko gogoz.

Laia ez da talde berria, ezta?

2007an jaio zen Laia, baina gaur egun taldekide original bakarria *Juanmi* da. Hasi bezain laster BBK Live jaialdian jo zuten Metallica eta Incubus taldeekin, besteak beste, eta Berri Txa-

rrak-ekin ere kontzerturen bat egin zuten. Kontuak kontu, taldekideek beste bide batzuk jarraitzea erabaki zuten; tartean, Eratu; eta *Juanmi*-k itsasontzian geratzea erabaki zuen. Duela urtebete berriz ere Laia berpiztea pentsatu zuen eta horrela amaitu dut laukotean.

Nola ezagutu zenuten elkar?

Nik Scam taldean jotzen nuen eta duela bi urte inguru Laiarekin batera Arrasateko gaztetxean jo genuen. Horren ostean, harremana mantendu genuen, eta, Bilbon elkartu ginenean, Laiarekin jotzeko proposamena egin zidan. Aurre-

tik beste gitarra-jotzaile bat probatu zuten eta ez ziren guztiz gustura geratu, itxura denez.

**Orduan, proba antzeko bat egin zenuen; zelan sentitu zinen?**

Egia esan, arraro sentitu nintzen. Nik hasieratik lagun artean jo izan dut. Lokalean sartu eta konfiantza eta konplizitate osoarekin. Nahiko zakarra izan zitekeen arren, ondo joan zen. Musikari profesionala baldin bazara eta kontzertuko dirua kobratzen baduzu, egoera normala da hori; baina nire kasuan, musika maite dudalako jotzen dut. Beraz, konplizitate hori izateak garrantzia du. Hasieran beldur hori banuen, agian ez nuela ondo bat egingo... Azken finean, nik jotzeko gogoa nuen, baina beldur nintzen. Azken finean, azterketa antzeko bat da *ezezagun* baten aurrean lehenengo jotzea, baina nahiko gustura ibili nintzen eta orduetik hona formazio honekin gabilta.

**Formazio berriarekin, baina, hainbat kontzertu eman dituzue dagoeneko.**

Bai, Bilbon eta Euskal Herrian jotzeaz gain, *Diamanteak* grabazioko kantuak aurkezteko bira egin genuen; Burgosen, Torrelavegan, Gijonen eta Bartzelonan izan ginen, besteak beste. Daukaun helburua kontzertuak ematea da, ez zaigu axola ikusle bakarria edo ehunka egotea, eszenara igo eta disfrutatzea da helburua.

**Diamanteak diskoa Bilbo eta Madril artean grabatu duzue.**

Bai, base erritmikoa eta gitarra gehienak Bilbon grabatu genituen, Enkore taldeko gitarristaren estudioan, martxoan. Eta ahotsak eta gitarra konponketa batzuk, berriz,

Madrilgo Westline Studios-en.

**Zer dela eta?**

Instrumentuak grabatzeko, estudio garesti batean soinu hobea izango duen arren, estudio normaltxo batean ondo geratu ohi da. Gainera, kasu honetan, Kemper aplikadoreekin grabatu genuen. Anplifikadore horiek digitalak dira eta aukera handiak ematen dituzte grabatzeko orduan. Amplitude baten antzeko zerbait da, baina, softwarea izan arren, fisikoa da. Horrez gain, Bilbon bertan grabatzeak arazorik egonez gero segurtasun handiagoa ematen zigun eta ekonomikoki ere ondo irten zitzaigun. Ahotsak grabatzen, ordea, Westline Studios-era joan ginen, Nothink taldeko Juan Blas-en estudioa. Hasieratik giro oso ona sortu zen, eta, ahotsak grabatzeaz gain, gitarra konponketa batzuk grabatu genituen. Juan Blas, teknikari lanak egiteaz gain, *Eztarrian* kantuan abestera animatu zen; gainera, euskaraz. Gure asmoa Blasek ingelesez abestea zen, baina hasieratik euskaraz abestera animatu zen eta bertan inprobisatu genuen. Aholku batzuk eman genizkion eta emaitza *bandcamp*-ean entzun dezakezue.

**Izan ere, diskoa fisikoki ez duzue oraindik argitaratu, Interneten baizik.**

Bai, *bandcamp* plataforman argitaratu ditugu hiru kantuak eta deskargatzeko aukera ere badago. Aurrerago formatu fisikoan kaleratzeko lanean gabilta; hainbat aukera ditugu esku artean, baina ez daukagu presarik. Lehentasuna kontzertuak lotzea da, baina taldekide batzuen konpromisoak direla-eta gutxi barru hasiko gara zuzenekoekin eta etxetik gertu pasatzea espero dut.

"Etxetik gertu zuzeneko bat laster ematea espero dut"



## ETXEKO SUKALDERAINO

## Mariasun Pagoaga | Aktorea

- Sukaldean dena prest izaten du, baina bera ere ondo moldatzen da
- Fagorren 42 urtez lan egin ostean, kasualitatez topatu zen antzerkiarekin

## "Posible dudan artean, antzerkiarekin jarraituko dut"

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Antzeztan duela 10 urte hasi arren, Mariasun Pagoagak (Arrasate, 1950) dagoeneko hainbat antzeztan lan hartu du parte, pantaila handian bost filmetan agertu da eta bi telesailetan ere aritu izan da lanean. Egun Goenkalen dabil, Amalia, botikariaren alargunarena egiten, baina hori guztia baino lehen, Fagorren publikitate arduradun izan zen 42 urtez.

### Mariasun Pagoaga zelakoa da?

64 urte ditut, baina 35 urte bantatu bezala sentitzen naiz. Langilea eta baikorra naizela esango nuke. Zein harreman duzu sukaldearekin? Etxeko ardurak banatzean, senarrak hartu zuen sukaldearena. Horregatik, bazkaltzera iristean, dena prest izan ohi da, eta mahaian esertzen naiz zuzenean.

### Zein da zure espezialitatea?

Baba gorriak. Hala ere, orokorrean ondo moldatzen naiz.

### Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?

Afaltzera gonbidatuko nuke, eta ondoren, dantzara.

### Eta etsairik handiena zertara?

Ezertara ez. Ez dakit etsairik dudana ala ez, baina izatekotan ez nioke kasurik ere egiteko.

### Zeinekin gustatuko litzazuke mahaiaren bueltan esertzea?

Bilobekin bakarrik nagoenean egoten naiz gusturen, oso ondo pasatzen baitut eurekin.

### Nondik datorkizu antzezteko zale-tasuna?

Duela hamar urte egin nuen topo antzerkiarekin, kasualitatez. Gokobaluren X. urteurrena zela eta, Arrasateko elkartearen artean zer egin erabakitzeke bilerara joan nintzen senarraren ordean, eta bertan erabaki genuen antzeztan

bat egitea. Hortik sortu zen Doke antzerki taldea eta bertan ikasi nuen interpretatzen.

### Zer eman dizu antzezteak?

Arrasateko bertako jendearengandik hasita, espero ez nuen pertonekin harremana izateko aukera eman dit.

### Zer behar da aktore izateko?

Beldurrak eta lotsak ezabatzea.

### Zein zuzendariekin egingo zenuke lan gustura?

Ez dago Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga bezalakorik. Zuzendari lanetan oso onak dira, eta zer esanik ez pertsona bezala.

### Etorkizunean, zer?

Buruak eta gorputzak hutsik egiten ez didaten artean, antzerkiarekin jarraitzeko asmoa dut. Iratxoek hiru desio eskatzeko aukera eman dizute...

Nire alaba haur bat izatekotan da eta harentzat dena ondo joatea nahi nuke. Horrez gain, orain dudana indarra eta umorea urte luzez mantentzea gustatuko litzaidake, baita inguruan dudana jendea nirekin egotea ere.

### Zure bizitzako anekdota bat?

Hong Kongera joan eta galdu egin nintzen behin. Okerreko lekura heldu nintzen eta bertan topatu nuen gizon batek joan behar nuen tokira eramango ninduela esan



Mariasun Pagoaga. | GOIENA

## "Antzezteak espero ez nuen jendearekin harremana izateko aukera eman dit"

zidan. Beldurrez igo nintzen gizonaren autora, baina bere hitza bete zuen. Nola eskertu ez nekila esan nionean hauxe erantzun zidan: ibili zaren moduan topatzen baduzu norbait, lagundu iezaiozu. Horixe egin dut geroztik.

### Damu zara..

Ez dut damurik. Gauzak gaizki eginez gero, barkamena eskatzen

dut, baina damutu ez, onerako edo txarrerako, egindakoa nire erabakia izan delako.

### Zerk beldurtzen zaitu?

Beldurrik ez dut, ardurak bai ordea. Hurrengo belaunaldiei zer utziko diegun, adibidez.

### Lanetik etxera iritsi berri, zer egitea gustatzen zaizu?

Egun osoko zalapartaren ondoren, posible dudanetan, une batez bakarrik, isiltasunean eta iluntasunean egoteak erlaxatzen nau.

### Nora egingo zenuke ospa?

Eskoziara edo Indiara.

### Ze aholku konpartituko zenuke?

Ingurukoekin zintzo jokatu eta egia aurretik dela ibiltzea, emandakoa jaso ohi baita bueltan.

## PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

## FRENCH TOAST: TOSTADA FRANTSESEN ARTEA

Gosari berezi baten errezetarekin natorkiez gaurko honetan, Ameriketako Estatu Batuetan ikasi eta dastatu ahal izan nuen errezeta mundial batekin, hain justu.

Pentsa: gosari amerikarra, tostada frantsesak eta sukaldari euskalduna. Halako inkongruentia edo nazioartekoa da gaurko errezeta.

*French toast. Well soaked. With fruit, with press (Tostada frantsesak, ondo bustita, frutarekin eta prentsarekin).*

Horrelaxe eskatzen nituen domeketan San Frantziskon. A ze herrimina etortzen zaidan! Hasperen sakona botarazi behar dit pentsatzeak: ze pozik bizi nintzen han...



Tostada frantsesak, astigar jarabearekin eta gurinarekin. | THE COOK ROCKER

### New Yorkekoa

Errezetari dagokionez, Marc Grossman-en New York-eko kultuzko errezeta liburuko errezetaren bertsio bat da. Nik %100n gomen datzen dizuet.

Neronek brioche ogia erabili dut errezeta egiteko, baina ogi arruntarekin ere egin daiteke errezeta berbera, eta gozo askoa geratzen da.

Eta gaurko errezetan jartzen ez dudana arren, normalean fruta apur batek lagunduta jaten da nazioarteko gosari hau. Jakina, ondo dakizuen moduan, osasuntsuena sasoiko fruta jatea da. Kontuan hartuta udazken betean gaudela, sagar erreak lagungarri ederrak dira; are gehiago kasu honetan, tostada frantsesak ere epel jaten direlako.

## Fitxa

- Denbora: 30 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

### OSAGIAK

- Brioche ogi gozoaren lau xerra potolo.
- Basokada bat esne.
- Bi arrautza handi.
- Basokada bat esnegain, harrotzekoa.
- Bainila esentzia koilarakada bat. Eta halakorik ezean, bainila zaporea duen azukre paketetxo bat.
- Koilarakada handi bat azukre.
- Urtutako gurina, frijitzeko
- Tostadak bustitzeko gurina, postrea ateratzeko orduan erabiltzeko.
- Astigar jarabea, postrea ateratzeko ordurako.

## Prestaketa

1. Katilu batean ondo nahastu behar dira arrautzak, esnegaina, bainila, kanela apur bat eta azukrea.
2. "Jaungoikoen" saltsa mundial horretan sartu behar dira brioche ogi xerrak. Ogien aurpegi bakoitza 30 segundoz izan behar da saltsan murgilduta, nahasketarekin ondo busti dadin.
3. Su ertainean zartagina jarri, bertan gurina urtzeko.
4. Tostadak frijitu bertan, bi aurpegiak gorritu arte.
5. Epel daudela zerbitzatuko ditugu tostadak. Ondo bustita astigar jarabetan (zartaginetik atera ostean busti behar dira). Eta gatzik ez duen bigundutako gurin koilarakada batekin gainetik, izozkia izango balitz modura.

# Eskolarako aplikazio sorta berria abiatu du Googlek

- ▶ Googlek tresnak baliatu gura ditu hezkuntzan ere txertatzeko
- ▶ Lanak agindu, kontrolatu eta laguntza emateko bideak ematen dituzte

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Enpresetan txertatzea lortu duten moduan, ikasgelak dituzte orain jomugan Googlekoek. 2000an abiatu zuten Google Apps zerbitzu sorta eta hortik etorri ziren Gmail, Chrome, Maps ala Docs hain era-

biliak, besteak beste. 2006 urtean Google App *suite*-a aurkeztu eta etengabe hedatu da zerbitzua. Inplementazio bereziak egon dira ordutik eta negozioetarako (Apps for Business), erakunde publikoetarako (Apps for Government)

eta, azkenik, hezkuntzarako *suite*-ak kaleratu dituzte. Apps for Education horretatik dator orain *Google Classroom*. Dokumentuak sortu, editatu eta kolaboraziorako aukerak emateaz gain, kudeaketa sistema bat dakar eta ikasle eta irakasleen arteko komunikazio tresna bereziak eskaintzen ditu. Irakasleek sareko egutegi bitartez lanak agindu eta jarraipena egin diezaiekete, gogorazpenak bidali ala laguntza *on-line* eskaini. Hezkuntza munduan jada oso baino hobeto daude txertatuta Moodle ezagunak. Plataforma horren hobekuntza eta areagotzea da *Google Classroom*-ekin eskaintze duena.

Honekin batera gainera, sareko espazio handia eskaintzen die hezkuntza zentroei eta Unibertsitatei. Hori gutxi balitz, eskuera jartzen diren tresnak doan ematen dituzte, gainera. Enpresa munduan duen txertatze maila espero du hezkuntza munduan Googlek zerbitzu honekin aurrerantzean.



'Google classroom' aplikazio sorta. | GOOGLE

## Androiden 5.0 bertsioa, euskaraz erabili ahal izango da osorik

J.B. | ARRASATE

Googlen mugikorretarako sistema eragilearen 5.0-a oso-osorik euskaraz konfiguratu ahal da. Androiden webgunean bertan iragarri dutenez, sistema eragilearen bertsio berria 15 hizkuntzatan egingo da esku-argarri, tartean, euskara ere.

### 'Android euskaraz'

Euskal programatzaile eta zaleek auzolanean egindako itzulpena da Android 5.0. *Android Euskaraz* webgunean aurki daitezke xehetasun guztiak eta bertan ematen da prozesu guztiaren berri. *Lollipop* delako banake-

ta da euskaraz osorik egongo dena.

Lana aspaldi ei zeukaten egin baina Googletik kasu "zipitzik" ere ez dietela egin kontatzen dute webgunean. Bada, eguaztanean bertan, ezusteko erabatekoan Twitterreko aipamen baten bitartez eman zen euskarazko bertsioaren berri, hau da, Google-ek esku-argarri jarriko zuela. Hala ere, *Android Euskaraz*-etik ez dakite euren elkarlaneko itzulpena erabili duten ala itzultzaile profesionalen bitartez egindakoa den banatuko den bertsioaren lana.

## Giga bat 3 segundotan deskarga dezakeen WiFaren garapena egin du Samsung-ek

J.B. | ARRASATE

Samsung konpainiak WiFi teknologiarekin garapen areagotu baten lanean dihardutela iragarri du. Estandar berri bat litzateke eta aurreratu dutenez 60 gigako multikanal bat litzateke. Honela 3 segundotan giga bat deskargatzeko gaitasuna du sareak. Hala, deskarga tasa horietan, film bat, kalitate

betean, 10 segundo baino gutxiagotan jaitsi ahal izango litzateke sare horretan.

Samsungetik diotenez, datoren urtean martxan jartzekoak dira eta hasiera baten medikuntzarako eta telekomunikazioetarako sistema garatuetan hasiko lirateke lanean. Horrekin batera, domotikan ei dute begirada ezarria.



HTCren Re Camera kamera. | HTC

## Pantaila eta bisorerik gabeko kamera berria ateratu du HTCK

J.B. | ARRASATE

GoPro kamera ezagunaren arrakastaren lorratza jarraitu nahian, HTCK kamera berri batekin bereganatu gura du kamera berezien merkatua.

Re Camera *akziorako kamera* deritzen horietako berriena da merkatuan. Pintza bat da eta edozein arropa ala euskarritan koka daiteke, urpean ere erabili daiteke eta bideoaz gain argazkiak ere graba ditzake. 229 euroko prezioan jarri dute merkatuan

### Prezio altua

Hain zuzen, merkatuari begira, prezioa da deigarriena, azke-

naldian halako kameretan merkatze handia egon da eta GoPro arrakastatsua berak nahiko modu nabarian jaitsi dio bere produktu izarrari.

Diseinua da indargune nagusietako bat. Re Camerak lehiakideengandik aldendu ahal izateko, gainera, karkasaren beharrik ez du busti ahal izateko; zuzenean sar daiteke uretan eta grabatzen jarraitu. Kamerak 16 megapixelexe sensora dauka, kamera konpaktu gehienek kopuru bertsua. Kontrako aldean, enkoadratzeko aukerarik ez du ematen eta erresoluzioan gorabeherak ditu abiaduraren arabera.



iPad Mini berria. | GIZMODO

## Touch ID botoia dakarren iPad mini gama berria aurkeztu du Applek

J.B. | ARRASATE

Espero bezala, tarte gutxi izan zuten azken aurkezpenean ezustekoetarako. iPad Mini 3a aurkeztu berri du Applek eta ezagun nabarmen moduan dakartza Retina pantaila, Touch ID hasiera-botoia eta 2GBeko RAM memoria. iPhone 6 Plusaren neurri berriarekin eta *phablet*-etara gerturatuta, iPad Miniak bere neurrian hobekuntzak eskatzen zituen, produktu bezala bere lekua izaten jarrai zezan. Eguneraketa honekin Applek jada berri du bere produktuen gama guztiak eta arreta berezia jarri die gailu eramangarrien neurri aukera ezberdinei, itxura denez. iPad

Miniak harrera ona izan du lehen merkatutzetik, gainera.

### IOS 8.1, gaurtik

Applekin lotuta, iOSen bertsio berria gaur kaleratuko dute. 8.1 bertsioak, 8ak zekartzan akats ugari konpondu eta aplikazio askorendako pantaila zatikatua eta ordainketa sistema berria ekarriko ditu. Sistema eragilearen eguneraketa, noski, iPad berrien merkatutzetarekin batera etorriko da eta eguneraketa asko bertsiorik berrietara egokitzeke etorri dira. Modu mailakatu emango da eguneraketaren eta erabilizaillei banaka abisatuko diete.

## Kontsolen errege izaten jarraitzen du PlayStationek

J.B. | ARRASATE

Sonyren bideo-joko kontsolari aurrea hartu dionik ez dago, oraingoz. Iaz kontsolarik salduena izan zen eta aurtengo irailean iazko epe berean baino %200 gehiago saldu dute, markak hautsita. Salmenten gorakada hau, noski, PS4-aren nobedadeak ekarri du baina baita joko zehatz batek izan duen erabateko arrakastak. *Bungie: Destiny* da joko hori eta PlayStation kontsolarik salduena bilakatzeaz gain, jokorako plataformarik erabilien artean lehen postua eman dio.

### IOS k

Markak marka, orokorrean oso urte ona dabil izaten kontsola eta jokoen salmentari dagokionez eta etxe nagusi guztietan egon da hazkunde salmentetan. Baita, azkenaldian makal zebilen Nintendo dagokionez. 3DS eramangarriari eta *Super Smash Bros* jokorekin arrakastari esker bolada txar samarrari hobeto eusteko aukera izan dute Japoniako konpainian.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Aurrera ebolie!

Azkenaldian guztiok ebola aditu bilakatu gara. Guztiok dakigu zer egin, nola babestu eta ia-ia txertoa etxeko sukaldan egiteko gai gara. Duela gutxi Marilo Monterok esku-larru batzuk nola kendu behar diren erakutsi zigun. Nork eta Marilok, txolintasunaren bikain cum laude doktorea den petrikiloak!

Dudarik gabe baina, argietan argiena Maria Dolores de Cospedal anderea izan da. Horrek Gaztela-Mantxako telebista bere nahierara eraldatu ostean, eta Opuetik irteerako ehunka kazetariz bete eta gero, 10 egunez ez dute Maria Teresa, Ebola eta Carlos III bezalako hitzik erabili. Badi-rudi Gaztela Mantxa izan dela Españatik alde egiten lehen lurraldea, eta ondorioz, ebola urrun geratzen den kontu bat besterik ez dela.

Maria Teresa jabearekin batera, telebista ordu pilo bat bete dituen bere txakurra izan da. Excalibur animalia *celebrity*-en klubean sartu da. Bertan batuko da Rex, Rintintin, Milú edo Lassierekin.

Telebistaren bat ausartu al da Afrikatik zuzeneko bat egiten? Inork aipatu du ebola baino hilgarriagoa dela gosea? Zertarako, goseak ez du sekula dirudun bat hilko.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 20



**'Harmailatik'**  
Antzuola eta Bergarako futbol taldeek derbia jokatu zuten domekan eta laburpena erakutsiko da. | 22:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 13:00 Ikusmira
- 13:25 Zorion Agurrak
- 13:30 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Bertso saioa
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Ertzak
- 17:50 Sasoi betean
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Amaia DJ
- 19:30 Sasoi betean
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Harmailatik
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Harmailatik
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

MARTITZENA, 21



**'Harira'**  
Iñigo Lamarca Arartekoak 10 urteotan egin duen lanaz jardungo du Eneko Azkarateren saioan. | 22:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Harmailatik
- 13:00 Sasoi betean
- 13:25 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Harmailatik
- 15:30 Onein
- 15:55 Zorion Agurrak
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Amaia DJ
- 17:30 Ikusmira
- 18:00 Bertso saioa
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Aniztasunean bizi
- 19:30 Harmailatik
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Harira
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Harira
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

EGUAZTENA, 22



**'Gipuzkoa pedalka'**  
Gipuzkoa bizikletaz zeharkatuko du Julen Iriondo kazetariak estreinatuko den saio berrian. | 22:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 HARIRA
- 13:00 Bertso saioa
- 13:25 Zorion Agurrak
- 13:30 Harmailatik
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Ikusmira
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Harmailatik
- 17:30 Ikusi irrattia
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Harmailatik
- 19:30 Harira
- 19:55 Zorion Agurrak
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Gipuzkoa Pedalka
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Gipuzkoa Pedalka
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

EGUENA, 23



**'Amaia DJ'**  
Whatsapp, Twitter eta Tuenti bitartez gazte-txoek egindako bideo-klipak jarriko dira musika saioan. | 22:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Gipuzkoa Pedalka
- 13:00 Sasoi betean
- 13:30 Bertso saioa
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Ikusi irrattia
- 15:55 Zorion Agurrak
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Harira
- 17:30 Ur eta lur
- 18:00 Jaiak 2014
- 18:30 Berriak
- 19:00 Ikusmira
- 19:30 Gipuzkoa Pedalka
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Amaia DJ
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Amaia DJ
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

EGUBAKOITZA, 24



**'Moda kontuak'**  
Debagoiena zuzenean saioan moda kontuak izango dira berbeta gai, Txomin Madinaren gidaritzapean. | 20:00

- 12:00 Debagoiena zuzenean
- 12:30 Amaia DJ
- 13:00 Ikusi irrattia
- 13:55 Zorion Agurrak
- 14:00 Debagoiena zuzenean
- 14:30 Berriak
- 15:00 Amaia DJ
- 15:30 Onein
- 16:00 Debagoiena zuzenean
- 16:30 Berriak
- 17:00 Gipuzkoa Pedalka
- 17:30 Ertzak
- 18:15 Ikusmira
- 18:25 Zorion Agurrak
- 18:30 Berriak
- 19:00 Sasoi betean
- 19:30 Amaia DJ
- 20:00 Debagoiena zuzenean
- 20:30 Berriak
- 21:00 Debagoiena zuzenean
- 21:30 Berriak
- 22:00 Idemtitateak
- 22:30 Debagoiena zuzenean
- 23:00 Berriak
- 23:30 Bertso saioa
- 00:00 Debagoiena zuzenean
- 00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Autoramas taldearen kontzertua ikusteko sarrerak zozketan

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, Autoramas Brasilgo hirukote magnetikoak eskainiko du kontzertua gaztetxean. Egueneko zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera. Hartu parte zozketan eta zorte on, entzule!

Bergarako Txotxongilo Mostra berbeta gai, gaurko irratsaioan

Eguenetik domekara bitartean Bergaran Txotxongilo Mostra egingo da eta horri buruz hitz egingo du gaur, astelehena, antolatzaile lanetan dabilen Taun Taun Teatroa elkarterko kide den Itsaso Azkaratek *Igo autobusera!* irratsaioan, 11:00etan. Aurtengo mostrari buruzkoak kontatuko ditu.

'Opera abeslaria' antzerkiari buruzkoak, 'Igo autobusera!'-n

Zapatuan, hilak 25, Amaia antzokian 17:00etan eskainiko da *Opera abeslaria* haur antzerkia. Bada, antzezlanari buruzkoak kontatuko dira astean 107.7ko uhinetan, *Igo autobusera!* irratsaioan. Deabru Beltzak taldearena da antzezlan eta bertako kideen hitzak jasoko dira irratsaioa elkarriketaren tartean.

TELE-ALBISTEAK

Berrikuntzekin dator gaurtik 'Debagoiena zuzenean' saioa

Bailarako eraikinak ezagutzeko aukera izango da astero eta sare sozialen tartea berreskuratuko da

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Itxura eta eduki berrituarekin dator gaurtik aurrera Txomin Madina aurkezlearen gidaritzapean, astelehenetik egubakoitze-ra bitartean Goiena telebistan estreinatzen den *Debagoiena zuzenean* saioa (20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean).

Hasteko, dekoratu berria estreinatuko da gaurko saioan. Denok Zuzeneko Komunikazioa enpresak diseinatu eta muntatu du platoko dekoratu berria, Lanbide Hastapeneko ikasleen laguntzarekin.

Gainera, kulturaren inguruko tarte berri bat ere estreinatuko da gaurko saioan Mondragon Unibertsitateak eta Goiena Komunikazio Taldeak kolaborazioan eskainiko dutena. Asteburuan MUn ematen hasi diren Aditu Tituluaren jarraipena egingo da tarte horretan hilero eta horren kronika egingo du Jon Berezibar Goienako kazetariak telebistan.

**Bailarako eraikinak ezagutzuz**  
Bestalde, martitzeneko Debagoieneko eraikinak ezagutu ahal izango dira aurrerantzean Mireia



Saiko aurkezle Txomin Madina, dekoratu berrituarekin. | IMANOL SORIANO

Egunero eskainiko da 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean

Bikuña kazetariaren eskutik. Orain arte tarte horretan, bailarako auzoak ezagutzeko aukera izan da, baina horri lekukoa hartuko dio berriak. Eraikinen historia eta bitxikeriak ezagutu ahal izango dira, besteak beste.

**Sare sozialei buruz**  
Eguaztenetan, berriz, orain arte egindako udako bidaiei buruzko tarreak atsedean hartuko du eta MUko irakasle Amaia Pavon itzuliko da sare sozialei buruz hitz egitera.

## ZORION AGURRAK



ESKORIATZA  
**Danel Urzelai Azkargorta**  
Urriaren 23an, urtebete. Zorionak, Dane!! Etxeko danan partetik!



ESKORIATZA  
**Nora Berezibar Arevalo**  
Urriaren 22an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Zure txokolatadan, txokolatzeko pastela zuri gustatetan zaizun koloretako bolatxoekin... Hori, hori, Lacasitos!



ARRASATE  
**Urki Garitaonandia Uriarte**  
Urriaren 21ean, 9 urte. Zorionak, maittia. Mila muxu maite zitugun denon partetik. Oso ondo pasatu.



ARRASATE  
**Alazne Sandoval Guerra**  
Urriaren 21ean, 12 urte. Zorionak, printzesa, etxeko partetik. Ondo pasatu zure eguna. Hamabi musu potolo zuretzat.



OÑATI  
**Unax Inza**  
Urriaren 20an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako, Unax! Lau urte bete ditzuzu! Zelako mutiko handixa egin zarien! Maite zaitugun danon partetik, mila kilo zorion!



OÑATI  
**Malen Osinaga Osinaga**  
Urriaren 20an, 9 urte. Zorionak, potxola. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada eta muxu handi bat etxekuen partetik.



OÑATI  
**Javier Inza**  
Urriaren 20an, 68 urte. Zorionak, osaba! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat!



OÑATI  
**Aiert Marko Guridi eta Maialen Guridi Guridi**  
Zorionak, bikote! Akordau orduko gure etxeko txikiñak urtetxo bat beteko dau urriaren 20an. Bere amatxo Maialene, berriz, 28 urte urriaren 24an. Txokolatzeko muxu pillia eta belarritik tirakadak zuen etxekuen partetik. Egun eder hau danok batera ospatuko dugu tia Garak eta amama Belenek eindako bizkotxo eder batekin. Muxuak "prexiosos".



OÑATI  
**Gorka Otxotorena Arratibel**  
Urriaren 20an, 35 urte. Zorionak, txiki! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat eta belarritik tirakada asko. Etxekuen partetik. Tiagotxoren partetik be bai (pipi, pipi).



ARETXABALETA  
**Eider Velasco Racionero**  
Urriaren 19an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Zelako guapa zauden! Egindako hiru urte hauek oso ondo ospatu eta opari asko jaso! Patxo handi bat danon partetik!



OÑATI  
**Sara Aberasturi Galdos**  
Urriaren 18an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxutxo asko etxeko partetik! Mua!



ARETXABALETA  
**Irati Iturbe Murgiondo**  
Urriaren 18an, 7 urte. Zorionak etxeko guztion partetik. Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat.



BERGARA  
**Zalao Unamuno Lopez**  
Urriaren 18an, 8 urte. Zoriona, politta! Ondo pasatu zure urtebetetzea eta jaso patxo pila bat Laida, amatxo eta aitaxoren partetik.



ANTZUOLA  
**Ane Urzelai Ibabe**  
Urriaren 18an, 2 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian, pitxin! Patxo potolo bat familixakuen partetik.



OÑATI  
**Unai Izura Astigarraga**  
Urriaren 18an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako. Egun polita pasa dezazula opa dizugu. Muxu handi bat etxeko partetik.



OÑATI  
**Oier Zubizarreta Iñiarra**  
Urriaren 17an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Mila patxo potolo etxeko guztion partetik. Jarraitu orain arte bezala!



OSINTXU  
**Oier Laskurain Gabilondo**  
Urriaren 17an, 6 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu eguna. Muxu handi bat etxeko eta, bereziki, Auritzen partetik!



ARETXABALETA  
**Jokin eta Lander Lanzos Gastañaga**  
Urriaren 16an, 6 urte. Zorionak, bikote! Jada 6 urte... eta Almeneko lehenengo mailan! Ze nausixak! Ondo-ondo pasatu eta patxo potolo zakukada bat bakoitzarendako! Aupa Uda! aupa Errela! Aupa Barça! Etxeko danon partetik! Batez be Julenek.



ARRASATE  
**Peru Arrese Sampedro**  
Urriaren 15ean, 7 urte. Zorionak, Peru! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Jaso zazpi tirakada belarrietatik eta patxo handi bana Ildari, Hegoa, Martin eta Marixeren partetik!



ELGETA  
**Lili Arantzabal Larrañaga**  
Urriaren 15ean, 2 urte. Hau da hau neskatua! Gure etxeko txikiak bete ditzu bi urte. Familixa guztien partetik zorionak!



OÑATI  
**Urko Ugarte Elorza**  
Urriaren 14an, 3 urte. Zorionak, Urko!



ARRASATE  
**Alaitz Nin Ugalde**  
Urriaren 14an. Urtebete printzesiak! Zorionak, Alaitz! Patxo handi bat familixako danon partetik.



OÑATI  
**Eneko Moia Bikuña**  
Urriaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun! Patxo potolo eta besarkada handi bat guztion partetik.



ESKORIATZA  
**Ibai Sanz Eraña**  
Urriaren 8an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.  
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitzez [Goiena.eus](http://goiena.eus) atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitzez Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



**Maddi Mendizabal Larrañaga**

Bergara 3,540 Kilo. Urriaren 14a. Gurasoak: Nerea eta Gotzon. Argazkian, Maddi, sehaskan lo.



**Enara Brunet Moreno**

Bergara 2,890 Kilo. Urriaren 14a. Gurasoak: Maribel eta Asier. Argazkian, Enara, aitaren besoetan.



**Oinatz Odriozola Ruiz**

Arrasate 4,040 Kilo. Urriaren 13a. Gurasoak: Vanesa eta Aaron. Argazkian, Oinatz, amama M. Carmenekin.




**Sura Samaniego Bower**

Oñati 3,540 Kilo. Urriaren 11. Gurasoak: Eugenia eta Gorka. Argazkian, Sura txikia gurasoekin.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK


	* Irudiko garraio-bidea	Musika tresna	Karrika
	Ez militarra	Ezin hobea	Teilatuko ohola
	Gaizto		
	Titulu ingeles		
Lotarako gela	Lehorte		
Horiaren antzekoa	Metal zuria		
			Bazkari osteko lo-kuluxka
Landareen izerdia			Boroa
Zegoen			Toka, du
	Noren atzizkia	51	
	Antimonioa	Rutenioa	
Soka, hari sendoa			
Zur estimatua			
		Ukapen	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

K	V	O	B	V	U	K	O
Г	И	З	Т	В	И	В	
Σ	Ε	И	Ε	И	Δ	Ι	
Г	Ε	В	Г	И	В	В	
Н	О	В	И	К	В	В	
Г	Σ	Ι	Κ	Α	Τ	Ε	
	Σ	Ι	Α	Τ	Г		
	Σ	Ι	В	Ι	Г	Α	
	В	Σ				Κ	

Α	Κ	Α	Κ	Α	Κ	Α	Κ	Α
Ι	Α	Ρ	Α	Γ	Α	Υ		
Α	Μ	Ε	Ο	Κ	Ι	Κ	Α	Τ
Κ	Ο	Τ	Ρ	Ρ	Α	Ι	Σ	
Α	Ρ	Υ	Ε	Υ	Ο	Κ	Ρ	Ι
Υ	Ρ	Β	Ε	Ρ	Ν	Α	Α	Κ
Ι	Ε	Α	Ι	Κ	Ρ	Α	Υ	Ε
Σ	Τ	Ο	Κ	Η	Ο	Λ	Μ	
Ρ	Α	Κ	Ε	Κ	Ο	Υ	Τ	Ε

3	7	5	9	8	6	4	1	2
4	1	8	2	5	3	9	6	7
9	2	6	7	4	1	8	3	5
2	6	7	3	9	4	5	8	1
1	9	4	5	2	8	6	7	3
5	8	3	6	1	7	2	9	4
6	4	9	1	7	5	3	2	8
8	3	1	4	6	2	7	5	9
7	5	2	8	3	9	1	4	6



Ezetz igarri!  
Bai: 1+1+5+13=20, /  
Zu zen.

SUDOKUA

	5			9		4	6
8				2	7		9
			7			2	
		3	6			9	4
		4	5	8			
2	6						1
		6				3	5
		8		5	3	9	7
				8	6		2

HIZKI SALDA

Topa itzazu bost xxxxx

R	A	K	E	K	O	U	T	E
S	T	O	C	K	H	O	L	M
I	E	A	I	K	R	A	U	E
U	R	B	E	R	N	A	A	K
A	R	U	E	U	O	K	R	I
K	O	T	R	P	A	R	I	S
A	M	E	O	K	I	K	A	T
I	A	A	P	R	A	G	A	U
A	K	A	U	R	I	K	R	A

EZETZ IGARRI!

Bost zenbaki bakoitiren batura izan daiteke 20?  
-  
Nor da zure anaiaren anaia izanik, zure anaia ez dena?

## AI, ENE!

### Pelikulako gaiztoa bezala sentitzeko

Zer pentsatuko zenukete etxe batean sartu eta aulki hau aurkituz gero? Bizkarrarentzat behintzat, eroso dirudi.

[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



## AHOBERO

### "Gurago dut mila ama palestinarrek negar egitea, ama israeldar bakar batek baino"

ISRAEL KATZ | ISRAELGO POLITIKARIA

Abuztuaren 26an, 50 eguneko bonbardaketan ostean, su-eten iraunkorra adostu zuten Israelek eta Palestinako alderdi nagusiek. Dena den, Israelgo Garraio ministroak Likudeko alderdikideen aurrean esan dituenek ez dute itzaropenerako leku gehiegi uzten.

[www.deia.com](http://www.deia.com)

## EGURALDIA



Max. 27°

Min. 18°

Eguraldi dotorearekin jarraituko dugu. Tenperatura apur bat jaitsi daiteke.

[euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2014-10-20

## HAMARREKOA

**Anjel Alkain** 'Sorginen Laratza', 'Wazemank', edo 'Kontrako eztarria' bezalakoei esker, ETBko aurpegi ezagunenetakoa da andoaindarra; 'Zuek hor eta gu hemen' arratsaldeko saioan dabil orain | TXOMIN MADINA

## "Jendea aspertzen bada, berehala esango didate nagusiek!"

**1. Zergatik aldatu beharko nuke siesta ordua zuen programatik?** Siesta egitea txarra delako. Ez zaizu gertatu siesta egin eta jenio txarrarekin esnatzea? Niri bai. Hori saihesteko, onena gure programa ikustea da.

**2. Dituzuen lehiakideak ez dira nolanhikoak... Tartean, Salvame.** Atzo hitz egin nuen Salvame-ko zuzendariarekin eta esan zidan gu hastearrekin nabaritzen dutela audientziatan jaitsiera... Beldurrik dugun? Bat ere ez! Azkenean egiten duzunean sinisten baduzu, ordua gutxienekoa da.

**3. Gaurkotasuna eta umorea: zer da gakoa formulak funtzionatu dezan?**

Lantalde aproposa edukitzea. Uste dut guk talde polita egiten dugula, eta aukeran gutxi garen arren, saiatzen gara bakoitzaren onena ateratzen. Hori lortuz gero, produktu polita egin dezakegula uste dut.

**4. Izan duzu inoiz arazorik imitatu duzun norbaitekin?**

Sekula ere ez. Horrek erakusten du imitatuak umorea dutela; eta gainera, gu ez gara sartzen imitatuaren bizitzan pertsonalarekin, gure umorea zuria da.

**5. Eta sortu dituzun pertsonaien artean, zein duzu kuttunena?**

Hainbeste dira, ezin dizudala bat esan. Pertsonaiak sortzeko abiapuntua da gure ezaugarriak izatea eta gertukoak izatea, ikusleak ingurukoren batekin identifikatzeko.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

**"Eskatuko nuke euskaldunok ETB1 gehiago ikustea: euskaldunok ez badugu ikusten, ez du inork ikusiko"**

AGM

**6. Euskaraz eta gazteleraz egin duzu lan. Umorea egiteko, zein puntura arte eragiten du hizkuntzak?** Askok erreminta garrantzitsua da. Gehiago gozatzen dut euskaraz, errazagoa egiten zait. Gazteleraz nabilenean ere, saiatzen naiz euskarazko ukitua ematen; baina, hala irteten zaidalako.

**7. Azken urteotan ia etengabe ikusi zaitugu telebistan. Jendea aspertzeko beldurrik ez?**

Ez; argi izan dut beti hau momentuko gauza bat dela. Askok irau duen edo ez? Horretarako, asmatu egin behar da eta pertsona egokiaz inguratu. Jendea aspertzen bada, berehala esango didate nagusiek!

**8. Zer suposatzen zuten zuretzat Wazemank-ek?**

Lantaldean, baina nire kasa landutako lehen proiektua izan zen. Beste garai bat zelako, eta pertsonaiekin eta egoerekin asmatu genuelako, sekulako arrakasta izan zen. Bost urte zoragarri izan ziren.

**9. Botatzen dituzu faltan agertokiak?**

Apur bat bai, baina aukeratzen jakin behar da. Jakin behar da gauzak noiz egin behar diren. Orain denak monologoak egiten ari dira... Bada, nik ez dut nahi!

**10. Zuri irakurria: munduko paelagile onena ei zara. Zein da gakoa?**

Ze ordutan esan nuen hori? Onak egiten ditut, Valentziako batek erakutsi zidan-eta. Baina mundukoa ez, kosmos osokoa esango nuke!

## BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE ZULAIKA



Inposaketarik ez!

**B**ilduk 2015erako zehaztu du Zestoan dagoen Osinbeltz harrobian hondakinen zabortege berria jartzea. Iragarpen horren harira, hondakinen gaian legealdian zehar Bildu hartzen ari den erabakien izaera ilegala nabarmendu nahi du Gipuzkoako EAJ-PNVk beste behin alde bakartasunetik, Foru Gobernuari ez, baizik eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei dagozkien erabakiak iragarri. Batzar Nagusietan gehiengo beraiekin bat etortzen ez denez, inposizioa jotzen du ezker abertzaleak.

Gaur egun ditugun adostasun guztiak urratzea dakar azken irtenbide gisa zabortegea planteatzea. Osinbeltzeko zaborra inerteza izango dela esaten dute. Baina beste neurri batzuk ere hartu behar dira, hala nola konpost-fabrikak martxan jartzea, eta baita Zubietako hiri-hondakinak tratatzeko instalazioa ere.

Beste zunda-globo bat besterik ez dugu begien aurrean: legea betetzen ez duena, proposamen demokratikoa ez dena, teknikoki bideragarri ez dena, ezta izapide administratiboko bermeak dituen, ezta denboran egiteko modukoa, eta Europako zuzentzarauak betetzen ez dituen. Ezker abertzaleak gipuzkoarrek eraman nahi dituen kale itsu berri bat.

## HERRITAR KAZETARITZA

Goienaren mugikorretarako aplikazio berria. Goienarekin zu berriemaile!

- **Kexatu:** Testu eta argazkien bitartez kexa eta salaketak egin daitezke.
- **Txalotu:** Ekimen ala gertaerak auzatzeko txokoa izango da.
- **Bidali argazkiak:** Albisteak proposatu, irudiak bidali, zerbaiten berri eman...
- **Oharrak bidali:** Jakinarazpen, prentsa-ohar zein abisuen lekua da.

### Deskargatu!

Behiko QR kodea irakurrita, aplikazioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.



[goiena.eus](http://goiena.eus)



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena